

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-09-03
ASTELEHENA
375. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Bergaran gelditu da garaikurra

Aretxabaletari 3 eta 0 irabazi ostean | 22-23



Agorrosinen, garaikurrarekin. | J.C.

Herritar asko erakarri zituen, urtero legez, zirku txinatarrak Oñatin | 28



Parte-hartzaile mordo mendi bizikleta martxan | 24



Abesti zahar eta berriak ekarri zituen Atzeko kalera Anari musikariak | 29



BIZITZA OSO BATI OMEN

Artzaintzaren alde egindako lana aitortu diete Legazpin Korta eta Zumalde artzain oñatiarrei. Bestetik, Artzain Txakurren Lehiaketan Arrasateko Jesus Mari Plazaola eta Gure izan dira garaile | 12

Julian Korta eta Maximo Zumalde oñatiarrak, atzo, Gipuzkoako Artzain Egunean, Legazpin.

JULIO CALLEJA

Uribetxeberria lehenbailehen askatzeko eskatu dute Arrasaten

Josu Uribetxeberria eta larri gaixo dauden gainontzeko presoak lehenbailehen askatzeko eskatuz manifestazioak egin dituzte aste-buruan, Auzitegi Nazionalako Jose Luis de Castro epaileak joan den astean arrasatearra baldintzapean aske uzteko erabakia hartu ostean. | 4

Garagardo festa Eskoriatzako Zaharren egoitza diruz laguntzeko

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 27 | KULTURA 28 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | JAIOTAKOAK 37 | ZORION AGURRAK 38 |

943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

%50 eko **deskontua**

► Zoaz 21. orrialdera.

gahir fisioterapia osteopatia
GAHIR Fisioterapia-Osteopatia

Asko ugaritu dira azkenaldian alga berdeak Deba ibaian

- ▶ Deba ibaiak hobekuntza nabarmena izan du
- ▶ Oinarrizko saneamendu fasea ia amaituta dago
- ▶ Loinak, ezkailuak eta amuarrainak ikus daitezke



Uraren kalitate fisikoa eta kimikoa asko hobetu da gure ibaietan. | ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Deba ibaian eta Debagoieneko gainontzeko erreketan algak asko ugaritu dira azken hilabeteetan. Horren arrazoi nagusia ekosistemaren desoreka garrantzitsua da. Ibaien ur emari eskasak, ur hori gelditu egoteak eta eguzkiaren beroak uraren tenperatura igo egin du; ondorioz, algen ugaritzeaultzatuz.

Ugaritze hori samur antzeman daiteke. Errekara begira, ohar-tuko gara, gainera, ur sakonera handiagoko gunetan eta itzaletan dauden tokietan hauen presentzia askoz txikiagoa dela. Algen ugaritze hori ez da kaltegarria.

Algen eragina arrainetan

Kiko Alvarez biologian doktoreak dio algek ez dutela zertan eragin kaltegarri izan arrainengan. "Algek ura depuratzeko gaitasuna daukate. Alde batetik, fotosintesiaren bidez, oxigenoa gehitzen dute uretara eta horrela gehiegizko materia organikoa oxidatzen lagundu. Bestalde, uretan disolbatutako oxigenoa gehi-

DATUA

58

KILOMETRO

Euskal Herriko bosgarren ibai luzeena da Deba ibaia, eta tamalez Euskal Herriko ibairik kutsatuenetariko bat ere bada.

ESANAK

"Epeleko araztegiarekin uraren kalitate fisikoa eta kimikoa nabarmen hobetu da"

FELIX IZCO
URAREN KONTROL ETA KALITATE BURUA

tuz, ibai ekosistemen osagai diren beste organismo batzuen alde jokatzeko dute".

Hala ere, uraren mailak nabarmen egingo balu beheara alga kopuru handiak pilatuko lirakeela dio Alvarezek, eta algak materia organikoa diren heinean usteltzen hasiko lirakeela gaineratu du: "Orduan oxigenoa kontsumituko litzateke eta amoniakoa askatu. Honek egoera toxikoa sortzen ditu ur itxietan, baina Deba ibaiaren ezaugarriak kontutan hartuta, pentsatu behar dugu hemen eragina ez litzatekeela nabarmena izango".

Errekaren bilakaera

Deba ibaiak bilakaera ona izan du azken urteetan. Dena den, hobekuntza nabarmenagoa da parametro fisikoetan eta kimikoetan eta mugatuagoa, berriz, indize biologikoetan. "Nahiz eta Epeleko araztegia abian jarri ondoren ia amaituta dagoen oinarrizko saneamenduaren lehen fasea, beti geratzen dira jasotzen ez diren isurketak, industrigu-

neak, eta behe-hornidurako udal sareetako gabeziak", azaldu du Felix Izco Foru Aldundiko Uraren kontrol eta kalitate saileko buruak. Gaineratu du kalitate hidromorfologikoa galtzeak (ur desbideratzeak, ubideratzeak, ertzetan landarediaren falta...) erreka kalitate biologikoa berreskuratzea eragozten duela.

Alvarezek dio: "Araztegiei esker uraren kalitateak hobera egin du eta egingo du. Baina, alga hauek erakusten diguten bezala, uraren kutsadura kimikoa ezabatu eta uraren kalitate fisikoa hobetu diren arren, kutsadura organikoaren arazoa oraindik hor dago eta ibaiak ez du bere oreka lortu oraindik". Erreka bazterren (erriberen) kontserbazio egoera "negargarria" izaten jarraitzen duela dio Alvarezk: "Ur bazterretako basoen zati txikiak baino ez zaizkigu geratzen eta tarte askotan, espezie exotiko inbaditzaileek estaltzen dute ibai bazterra (akaziak, Reinutria)".

Izcok dio Debagoiena prozesu argi batean dagoela: "Epeleko

araztegia arazte-errendimendu handiak lortzen ari da eta kalitate fisikoa eta kimikoa nabarmen hobetu da". Gaineratu du datozen urteetan egingo diren kontrolen bidez ikusiko dutela makro-organogabeen eta arrainen populazioan izan duen eragina. Errekan ematen diren aldaketa morfologiko larriek (bideratzeak, estaldurak eta abar) kalitate ekologiko ona izatearen xedea arriskuan jartzen dutela azaldu du Izcok.

Loinak eta ezkailuak

Arrainei dagokienez loinak eta ezkailuak ikusten dira gehien gure errekan, nahiz eta amuarrainak ere gero eta gehiago egon. "Ibai bateko uraren kalitatea berreskuratzen denean arrainak oso azkar azaltzen dira, inguruko erreka garbiek ekarpen-haztegiaren papera egiten baitute", dio Izcok. Azaldu du arrainen inguruko datu gehiago jasoko dituztela datozen egunetan egingo duten arrantza elektrikoaren bidez. Bestalde, ahateak ere asko ikusten dira erreketan: "Ahateak

Udan sartu ginenetik euri gutxi egin du

Ibaien ur emari eskasa eta eguzkiaren beroak eragin handia izan dute algen ugaltzean. Ekain hasierako tenporek iragarri bezala, uda lehorra izaten ari da gurean. Dagoeneko hiru bero-alerta izan ditugu, eta euri gutxi, oso gutxi. Pello Zabala eguraldian adituak esan du udan sartu ginenetik ez duela apenas euririk egin. Sortzen diren borraskek indar gutxi dute; eta, ondorioz, ez du euririk egiten: "Ekaina polita izan genuen baina udan sartu ginenetik ez du euririk egin". Uztailean 12 egunetan bakarrik egin zuen euria, 51 litro metro koadroko botaz. Abuztuan ez du euririk egin, azken egun hauetan egin duen zirimiria bakarrik: "22 bat litro botako zituen, hortaz, udan sartu ginenetik 75 litro inguru". Indar barik botatzen du, eta Zabalaren esanetan euri-langar hori ez da nahikoa ura erreketara iristeko.

Inguruko zelai eta mendien egoera larria da, eta larriagoa izan daiteke. Samur antzeman daitezke zelaiak lehor daudela. Zabala beldur da ez ote duen euri gehiago egingo. Uste du lehorte egoerak udazkeneko lehen zatia ere har dezakeela. Oraingoan, Urkuluren betetze maila nahiko ona da: %81,21.



Inguruko zelai eta basoetan igartzen da uda lehorra izaten dabilela. | JULIO CALLEJA



Alga berdeak asko ugairitu dira, eta herritarren interesa piztu dute. | A.E.

granjatik sartutako basahateak dira eta ibaietara oso ondo egokitu dira". Ahate asko egoteak arazoak ekartzen dituela ere gaineratu du: batetik, arrainen arrautzak jaten dituztelako eta, bestetik, jendeak ogia eta janari-hondarrak ematen dizkienez, arratoiak azaldu ahal direlako. Ahate horiek arazo barik ugaltzen dira; horregatik, ohikoa da txita asko ikustea Debagoieneko erreketan.

Eta, noiz hartu ahal izango da bainua Deba ibaian? "Oso baikorra izan behar da ibaia erabat lehengo erara bueltatuko dela pentsatzeko", dio Alvarezek. "Ibaia arro edo unitate hidrografiko bakar eta osoa dela kontsideratu behar da eta ez bakarrik ur korronte bezala", dio biologian doktoreak. Faktore askori aurre egin behar zaie ibai hobetzeko: erriberaren basoa berreskuratu, espezie inbadizaileak erauzi, zentral hidroelektrikoak mugatu... Izok dio esperientziak erakusten duela saneamendu maila handiko ibaitan bainuarekin bateragarriak ez diren parametro bakteriologikoen kontzentrazioak jarraitu egiten dutela.

KIKO ALVAREZ | BIOLOGIAN DOKTOREA

"Algek arrainendako itzala eta babesia eman dezakete, eta ura depuratu"

Biologian doktorea da Kiko Alvarez bergararra. Deba errekan hazi diren algen inguruan galdetu diogu Alvarezzi, eta baita horiek arrainengan duten eraginaz ere.

Errekan dauden alga edo belar berde horiek zer dira?

Alga berdeak dira. Korronte lasaie-tako urak behar dituzte hazteko eta ugaltzeko, sakonera gutxiak, zeren eta argi asko behar dute; gainera nitrogenu eta fosforo asko behar dute uretan, horiek dira erabiltzen dituzten nutriente nagusiak.

Zergatik hazi dira?

Errekan ikusten dugun alga hauen hazkunde masiboa, ekosistema-ren desoreka garrantzitsu baten ondorioa da: erreka gehiegizko elikagai kopurua iristen da. Elikagai horien jatorria nekazaritza (ongarri nitrogenatuak...) eta hondakin urak izaten dira (fosforoa), uretara iristen direnak.



Kiko Alvarez. | GOIENA

Nolako eragina dute errekan dauden arrainengan?

Hasiera batean ez dute zertan eragin kaltegarriak izan behar Deba ibaian poliki-poliki leheneratzen ari diren arrainen populazioarengan. Algak ur azalera eguzkitsuenetan garatzen ari direnez, arraintzat itzala eta babesia ere eman dezakete. Gainera, algek ura depuratzeko gaitasuna daukate.



Ahateak ondo egokitu dira erreka. | A.E.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan **EUSKARAZ** plazera delako!



Uribetxeberria "lehenbailehen" askatzeko eskatu dute Arrasaten

- Uribetxeberria preso edukitzea "legez kanpkoa" dela dio haren abokatuak
- Fiskaltzak eguenera arteko epea dauka epaiaren aurka helegitea jartzeko

USOA AGIRRE | ARRASATE

Josu Uribetxeberria baldintzapean aske uztea erabaki zuen joan den astean Espainiako Auzitegi Nazionalako Jose Luis de Castro epaileak, baina oraindik Donostia Ospitalean preso jarraitzen du arrasatearrak. Uribetxeberriaren abokatuak azaldu zuen helegiterik ez dagoen artean "berehala" bete behar dela ebazpena, eta horixe eskatu diote Espetxe Zaintzari. Arantza Aparicio abokatuaren esanetan ebazpena berehala indarrean ez jartzea "legez kanpkoa" da eta "ebazpena berehala aplikatu" behar da. Egubakoitzean, Auzitegi Nazionalako fiskaltzak adierazi zuen Jose Luis Castro Espetxe Zaintzako epailearen ebazpena "zehatz-mehatz" aztertzen ari dela. Ziurrenik gaur edo bihar erabakiko du fiskaltzak helegitea jarri edo ez, baina, berez, osteguna arteko epea du. Fiskaltza aske uztearen aurka azaldu da, Uribetxeberriak biktimei barkamenik eskatu ez eta ETA-rekiko loturak hautsi ez dituela argudiatuta. Epailearen ustez, ordea, "koherentzia falta" erakutsi du Fiskaltzak, presoari hirugarren gradua ematerakoan ez zuelako halakorik exijitu. Orain argudio hori ezin duela erabili dio. Helegitea jarriz gero, Fernando Grande Marlaska buru duen zigor aretoak aztertuko du.

Egubakoitzean, Uribetxeberria eta larri gaixo dauden euskal preso guztiak askatzeko manifestazioa egin zuten ehundaka lagunek Arrasaten. Herriko pla-



Egubakoitzean Arrasateko kaleetan egindako manifestazioa. | IMANOL BELOKI

zatik hasi zen manifestazioa eta lasai joan zen. Gaixotasun larria daukaten presoak askatzeko Donostian zapatuan egin zen manifestaziorako gonbidapena eginez amaitu zen.

Manifestazioa Donostian

Milaka lagun izan ziren zapatuan Josu Uribetxeberriaren eta larri gaixo diren presoen askatasuna aldarrikatzeko manifestazioan, Donostian. Gizarte, kultura eta politika arloko hamalau norbako ezagunek egin zuten mobilizazio isil horretarako deia, joan

den martitzenean Espainiako Auzitegi Nazionalak Donostia Ospitaletik Arrasatera egitekoa zen martxa debekatu ostean. Alderdi politiko eta gizarte eragile ugari egin zuten bat aldarrikapenarekin, baita hainbat arlotako norbanako ezagunek ere. Bertan izan ziren, besteak beste, ezker abertzaleko Joseba Permach, Rufi Etxeberria eta Joseba Alvarez; Aralarreko Dani Maeztu, Rebeka Ubera eta Maite Sarasua; EAko Pello Urizar; Alternatibako Xabi Soto eta Ezker Aintzako Mikel Izagirre. Erakun-

deetako ordezkariak ere izan ziren, Gipuzkoako ahaldu nagusi Martin Garitano, besteak beste. Espainiako Kongresuan Amaiur koalizioa diputatu diren Xabier Mikel Errekondok, Maite Aristegik eta Onintza Enbeitak ere parte hartu zuten manifestazioan.

Naroa Iturri kazetari eta deitzaileetako batek berba egin zuen manifestazioaren bukaeran. Iturri "ezinbestekotzat" jo zuen egungo espetxe politika aldatzea, hainbat arrazoi medio: lehenik, "traba nabarmentzat" dutelako

"pertsona guztien giza eskubideen errespetua ardatz izango duen aroa" eraikitzea bidean; bestetik, gogorarazi zuen "sufirimendua eta samina" besterik ez dakarrela Espainiako Gobernuaren espetxe politikak euskal gizartearen zati handi batentzat. Uribetxeberriaren kasua aipatuz, presoaren egoera "krudelki" luzatu dutela salatu zuen.

Josu Uribetxeberriari 2005ean aurkitu zioten giltzurrunetako minbizia, eta 2006ko abenduan eskatu zuen baldintzapean aske uzteko.

Euskal Herriko historialarien III. biltzarreko lehen saioa Arrasaten

Nafarroako konkistan gertatutako hizkuntza galera eta eremu murrizketa izango dituzte aztergai irailaren 7an; aurrez izena eman behar da

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Albako dukearen tropek Nafarroa konkistatu zutenetik 500 urte bete dira. Gertakari horrek izan zituen ondorioak aztertzeko Euskal Herriko historialarien III. biltzarra antolatu du Nabarralde. 1512ko konkistak Nafarroan izan zituen ondorioak aztertuko dira edizio honetan, hainbat eztaba da-esparru aztertuz.

Beste urte batzuetan ez bezala, aurrez biltzarra lau saiotan burutuko da; Euskal Herriko

hainbat lekutan egingo da: irailaren 7an Arrasaten; irailaren 8an Leitza; irailaren 14an Agoitz; eta irailaren 15ean, berriz, Iruñean.

Saio bakoitzak esparru ezberdinak landuko ditu: Arrasaten, *Hizkuntzaren galera eta eremu murrizketa* landuko dituzte; Leitza, *Gaizkileen muga*; Agoitzen, *Gazteluen suntsiketa*; eta Iruñean, azkenik, *Konkistaren ondorio orokorrak: instituzionalak, sozialak...*

Lehen biltzarra Arrasaten izango da irailaren 7an eta bertan parte hartzeko izena eman behar da aurrez. Arrasateko biltzarrean Iñaki Lasak (Kontseilua) *Hizkuntza-politika egokiaren konkistarantz* gaiaren inguruan hitz egingo du; Jean Louis Davantek (idazle eta euskaltzain osoa) Nafarroa Garaian eta Behean konkistaren ondotik euskararen egoeraren aldaketaz jardungo du; eta Koldo Zuazok (EHUko katedraduna) euskalkien jatorriaz. Ondo-

ren mahai-ingurua egingo da saioari amaiera emateko. *Hizkuntzaren galera eta eremu murrizketa aztertuz, gaztelaniaren inbasio eta konkistaren testuinguruan hartuko dute gaitzat.*

Gaia publiko zabalago bati helarazteko helburuarekin historialari, irakasle, ikertzaile, ikasle eta interesa duen orori zuzenduta dago biltzarra.

Izen-ematea

Biltzarraren egitura dela eta parte-hartzaileek saio bakarrean egin dezakete matrikula. Arrasate, Leitza, Agoitz edo Iruñean parte hartzeko 20 euro ordaindu behar dira; biltzar osoan parte hartzeko, berriz, 60 euro.

Izen-ematea telefonoz deituta (948 21 10 57) edo webgune honetatik egin daiteke www.nabarralde.com/kongresua.

BILTZARREKO EGITARAUA

IRAILAK 7

16:00 Akreditazioa eta materialaren banaketa.

16:30 Inaugurazio ekitaldia.

17:00 – 19:00 Hitzaldiak

► Iñaki Lasak: *Hizkuntza-politika egokiaren konkistarantz.*

► Koldo Zuazo: *Euskalkien jatorriaz.*

► Jean Louis Davant: *Konkistaren ondotik, euskararen egoera zelan aldatu zen Nafarroa Garaian eta Behean.*



Epeleko zabortegian lanak hasi dituzte; oraingo, lurra mugitzen hasi dira | MIREIA BIKUÑA

Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegian hasi dituzte lanak

- ▶ Abuztuaren 7an hasi zituzten lanak eta urtebetez luzatuko dira
- ▶ Gela eta garbigune berriak egin eta betetako gunea zigilatuko dute

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegian hasi dituzte lanak. Abuztuaren 7an hasi eta urtebete iraupena izango dute. Egingo dituzten lanak dira zabortegiaren zati bat zigilatu, gelaxka berri bat sortu eta garbigune berria egin.

Debagoieneko Mankomunitateak dauka Epeleko zabortegiko lanen ardura. Murias enpresari esleitu zizkion bi milioi euro pasako aurrekontuarekin; zehazki, 2.172.559,17 euro, BEZ barik.

Hiru lan

Orain arte egindako lanetan, aurrerantzean hondakinak botako diren lekuan lurra mugitu dute. Bi hondeatzailek dihardute han, 15.000 metro koadro izango dituen zelda edo gunea txukuntzen. Gune hori iragazgaiztu egingo dute. Hainbat geruza izan-

go ditu, eta batetik besterako tartea iragazgaitza izango da. Gune horretan botako dituzte hondakinak aurrerantzean. Gune hori antolatzeke lau hilabete beharko dituzte. Epe hori bukatuta, horra eramango dituzte hondakinak.

Epeleko zabortegiko lanetan eguraldiak zeresan handia daukan arren, urtebeteke epean bukatzea aurreikusten dute.

DATUA

15.000

METRO KOADRO

Hori da Epeleko Zabortegian egingo duten zeldaren neurria.

Lehen gunea txukuntzen duten artean, Epeleko Zabortegian garbigune berri bat egingo dute. Debagoieneko beste hainbat herrietan dauden garbiguneen antzekoa izango da. Askotariko hondakinak batuko dituzte han; besteak beste, linea zuri eta gris-marroiko etxetresna elektrikoak.

Proiektuaren hirugarren ardatza izango da, orain arte, zaborrez bete den gunea zigilatzea; 1993. urtean zabortegia zabaldu zenetik han batutakoarekin hainbat metro koadro bete dituzte, eta gune hori zigilatu egin behar dute.

9,5 hektarea

1992 eta 1993 urte bitartean eraiki zuten Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegia. 1993. urtean hasi ziren zaborrak hara eroaten. 9,5 hektarea inguruko

lursaila okupatuko du erabat betetzen denean eta 1.800.000 metro kubiko inguruko kapazitatea dauka.

Bergarako lurretan dago Epeleko zabortegia eta Debagoieneko industrian eta eraikuntzan sortutako hondakinak jasotzen dira soilik.

Legera egokitzeko

Hondakinak kontrolpean desegiteko egoki prestatutako instalazioa da Epelekoa. Hala ere, urteekin legedia aldatzen eta zorrotzen joan da, batez ere, Europako Batasuneko Ingurumen legediak ezarritako baldintzak betetzeko.

Hori horrela, Epeleko zabortegiak arautegi berria betetzeko Ingurumen Baimen Integratua eskuratu zuen 2008an. Egun egiten diharduten lanak baimen hori aintzat hartutakoak dira.

Etixerako langileak kontratatzeke laguntzak

M.B. | ARRASATE

Etxeko langileak kontratatzekeko diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak.

Eusko Jaurlaritzak esan duenez estatuko laguntza handienak izango dira, eta urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte sinatutako kontratazio guztietan Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoaren %30 emango dute.

Oraingo laguntza hau, Gizarte Segurantzak dagoeneko ematen duen %20ari gehituko zaio, eta urtebeteko iraupena izango du, eskatzen den egunetik aurrera. Bi milioi euroko partida jarri du Lanbidek asmo horretarako.

Lan-baldintzak hobetu

Atzera-eragina izango dutenez, urtarrilaren 1a eta abuztuaren 20a bitartean etxerako inor kontratatu duenak hilabeteko epea izango du Lanbiden laguntza eskatzeko. Epe berbera izango du etxeko langileei alta ematen dienak.

Eusko Jaurlaritzak hartutako neurri honek etxeko edozein lanetarako laguntza emateko asmoa du, etxeko langileen lan-baldintzak hobetzeko abiarazi den erregulazio-aldaketaren barruan.

Dena den, abuztuaren 20a baino lehenagoko alden kasuan, ordaindutako kuotak ere aurkeztu beharko dituzte. Lanbidek sei hilabeteko epea dauka aurkeztutako eskaera bakoitzari buruz erabakia hartzeko.

"Eskubideak ugaritu"

Planifikazio eta Enpleguko sailburuorde Javier Ruizek esandakoaren arabera "etxeko langileen eskubideak ugaritu eta sendotu" gura dituzte. "Laguntza multzo honen bidez, betidanik ezkutuko ekonomiari lotuta egon den sektorea normalizatu gura dugu, betidanik langile horiek, gehien bat emakumeak, inongo babesik gabe egon direlako", esan zuen.

Baketik-en gogoeta-prozesuko emaitzak irailaren 29an

M.B. | OÑATI

Baketik-ek urtebeteko gogoeta-prozesua bukatu du, eta ondorioak irailaren 29an aurkeztuko ditu Arantzazun. Horixe adierazi du prentsaurrekoan Jonan Fernandez, Baketik-eko zuzendariak.

Gainera, egun horretan, ondorioak aurkezteaz gain, 2012-13 ikasturtea hasiko dute. VI. urteurrena ospatuko duen ekitaldian Jose Saramago gogoan izango

dute. Pilar del Rio, Saramagoren bikotekideak parte hartuko du ekitaldian.

Urtebeteko lana

Baketik 2006ko urrian sortu zen. Bost urteko ibilbidearen ondoren, 2011ko urrian, urtebeteko gogoeta-prozesua zabalduko zuela adierazi zuen bere egitasmoa birpentsatzeko eta berrikatzeko. Prozesu hori *Baketik berrabiarazi*

da txostenaren bidez bideratu dute eta bi erreferentzia handi izan dituzte. Alde batetik, ordu-ra arte egindako ibilbidearen ebaluazioa; eta beste alde batetik, testuinguru berrien eragina: krisia eta bakea.

Urtebete pasa ondoren, transizio-prozesua ondorioen agiri bat aurkeztuz amaituko dute, eta hori erakutsiko dute jendaurrean irailaren 29an.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



Indarrean da irailaren 1a ezkerro uztailean iragarritako BEZ igoera

- ▶ Saltoki txiki gehienetan igoera ez da berehala nabaritu, hilabeteak beharko dira
- ▶ BEZa igotzearen ondorioz, eskaintza bereziak jarri dituzte zenbait saltokitan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL |
ARRASATE

Iraila iristearekin batera sartu da indarrean Espainiako Gobernuak uztailean iragarri zuen BEZ igoera, eta, neurriaren ondorioz, hilaren 1a ezkerro produktu gehienak garestitu dira.

Bi urtean BEZa handitu den bigarren aldia da oraingoa. Aurretik, 2010eko ekainean, Rodriguez Zapateroren gobernuak igo zuen BEZ orokorra; hain zuzen ere, %16tik %18koa izatera pasa zen orduan.

Oraingo honetan, aldiz, hiru BEZ motetatik bik izan dute igoera, supermurriztuak (esnekiak, ogia, botikak...) orain arte bezala %4koa izaten jarraituko baitu. Aldiz, murriztua (ordenagailuak, ostalaritza, etxebizitzak...) bi puntu garestitu da (%8koa izatetik %10eko izatera pasa baita) eta orokorra (zinema, loradendak, hileta zerbitzuak...) hiru puntu igo da eta hemendik aurrera %21ekoa izango da.

Eskolara itzultzea, garestiago

Oporretatik itzultzeak poltsikoan eragin die herritarrei martxan ipini berri den neurriarekin. Eta zertan sumatuko dira BEZ igotzearen ondorioak? Beste askoren artean, etxebizitzak erosteko unean, zinemara joateko orduan, higiene produktuak erosi, bai eta telefonoz hitz egin edota Interneten nabigatzeko orduan baliatzen diren tarifetan nabaritutako da merkatuaren garestitzea.

Baina kontsumitzaileek gehien nabaritutako duten igoera eskola materialak izan duena izango da, %21eko BEZa ezarri baitaie aurretik %4 zuten zenbait gairi; besteak beste, boli-grafo, karpeta, eta abarri. Aldiz,



Bezero bat Aretxabaletako Tinta Beltza dendan erosketak egiten, BEZa igo aurretik. | MIRARI ALTUBE

testuliburuek orain arte moduan BEZ supermurriztua izaten jarraituko dute.

Saltokiak eta BEZa

Nola eragingo die igoerak denda txikiei? Indarrean sartu aurretik, kontsumitzaileek gehiago erosi ote dute?

Arrasateko Ibai-Arte merkataria elkarteko kide Jesus Mari Elkorok GOIENARI adierazi dioenez, irailaren 1a baino lehen gutxi nabaritu dute jendearen jarreraren BEZa igotzearen zenik: "Eta gurean, behintzat, ez dugu ohi baino gehiago saldu".

Aurreikuspenez galdetuta, Elkororen ustez, ondorioak ez dira berehalakoan nabaritutako, komertzio txikien kasuan, behin-



tzat. "Datozen bi hilabeteetan igarriko da, poliki-poliki joango baikara salneurriak egokitzen", adierazi du.

Ez da hori zenbait saltoki handiren kasua, Elkororen hitzetan: "Horietariko batzuk produktuak garestitzen joan dira udan

zear; igoera indarrean sartuta ez dutela BEZik igo esango dute. Enpresa handiak, marketin estrategia handiak", gaineratu du Ibai-Arteko kideak. Horrez gainera, Elkororen iritziz, posible da, baita ere, zenbait saltoki txiki BEZ igoerarik ez aplikatzea, modu horretan prezio lehiakorragoak lortzeko.

Eskaintzen ordua

Merkatuaren garestitzearen aurrean, saltzaileen irudimena martxan ipini eta eskaintza bereziak iragartzen dituzte. Eroski da, esaterako, bide hori aukeratu dutenetako bat, eta elikagai, informatika, etxetresna eta gasolindegiko produktuei eragingo dien eta irailean zehar martxan

egongo den kanpaina bat abiarazi du. Enpresako marketin zuzendari Amable Galacheren arabera, "kooperatibak bezeroen alboan egon nahi du familiako ekonomia-oren oreka mantentzen lagunduz".

Aurretiazko erosketak

Zergak igo osteko eskaintzez gainera, aurrez adierazi bezala, irailaren 1a baino lehen, hau da, BEZa igo aurretik, pertsona ugari izan dira erosketak egiteko aprobetxatu dutenak: eskola materiala dela, edota etxebizitzak, altzariak, garraio-txartelak, garbiketa produktuak, zein automobil berria, esate baterako.

Arrasateko Chapime kontzeisionarioko Mikel Loitik hauxe adierazi du: "Uztaileko eta abuztuko salmentetan zertxobait igarri dugu BEZa igotzearen zela, ohi baino auto gehiago saldu baititugu. Baina egia esan, tamalez ez da etxafuegoak botatzeko moduko zerbait izan".

"Nabaritzen da etorkizunean zer datorren ikusita jendea dirua gastatzeko beldur dela, eta nahia- go du aurreztu. Ondorioz, auto berria erosi dutenek benetako beharra zutelako izan da. Hala ere, salmentek gora egin ez badute ere, tailerren lan handia dute, eta hori ona da", gaineratu du Loitik.

Bada, egoera berri horren aurrean batzuk ezker eta haserre agertu diren neurrian, beste hainbat erabiltzaileen ustez beharrezko neurria izan da epe luze- ra krisitik ateratzeko. Kontsumitzaileen poltsikoetan eragin baldin badu ere, diru-biltzea handituz diru-kutxak bete eta krisiari aurre egiteko modua baita, zenbaiten ustez.



MARKEL GOIKOLEA
ARRASATE

"Gaizki iruditzen zait BEZa igotzea. Ostalaritza munduan egiten dut lan eta prezio guztiek igoera izan dute. Aurretik hainbat erosketak egin ditut, gutxienez etekinen bat ateratzeko".



FRECIA BONER
ARRASATE

"BEZa igotzearekin batera gauza guztiek izaten dute igoera, baina bizi kalitatea jaitsi eta pertsonak geroz eta behartsuagoak dira. Arropa eta janaria erosteko aprobetxatu dut aurretik".



ENAITZ ETXEBARRIA
ARRASATE

"Gehiegizkoa da BEZa horrenbeste igotzea; Europako berdina edukitzera iritsiko gara, eta hemen ez dago bizitza maila bera. Igoeraren aurretik autoari konponketa bat egin diot".



MAITE GOMEZ
ARRASATE

"Ez dut uste inori ongi iruditzen zaionik, ez saltzaileei, ezta erosleei ere. Alabarekin batera eskola materiala eta liburuak erosteko aprobetxatu dut, baita etxerako zenbait gauza ere".



FELIX ARROSPIDE
ARRASATE

"Egia esan, ez dut BEZa igo aurretik ezer erosteko aprobetxatu. Izan ere, uste dut ez duela ezertarako balio. Neurria oso gaizki iruditzen zait, gehiegizkoa eta jasanezina".

Lukene Lizaso | AGIPAD elkarteko prebentzio teknikaria

"Drogak beti egon dira eta egongo dira; haiekin bizitzen ikasi behar da"

- ▶ 2011ko memoriaren datuak eta ondorioak aurkeztu ditu AGIPAD elkarteak
- ▶ Haien arabera, gazteen artean droga kontsumoak jaisteko joera hartu du

A.T./U.M. | ARRASATE

Ikerketa eta Drogen Abusuaren Prebentziorako Gipuzkoako Elkarteko (AGIPAD) Lukene Lizaso prebentzio teknikariarekin izan gara, drogen kontsumoari eta horrekin lotutako hainbat alorri buruzko xehetasunak lantzen.

Zein da AGIPAD elkartearen zereginna?

Bideratzea drogamendekotasunaren inguruko zenbait alor: tratamendu zentroak (Haizea); umeei zuzendutako tratamendu zentroa (Haurtxoak), tratamendu ambulatorioa (analisiak, tratamenduen jarraipena...), espetxeko zerbitzua (Martutenekoa, droga arazoak dituztenekin), prebentzio arloa eta adikzioa duen familiekin egiten den lanketa.

Eta zein da helburu nagusia?

Droga arazoa ez izatea. Dagoen zerbait da, urtetan egon da, lehen egon da, orain dago eta egongo da, hori ezin da ukatu.

Zelako profila dute drogamendekotasuna dutenak?

Gure memoriaren datuen arabera, 35-40 urteko gizonezkoak dira, bakarrik (alargun edo ezkongabeak) daudenak, eskola graduatua dutenak, Oarso aldekoak... Dena den, hori ez da profil orokorra, da gure elkarteak duen profila. Horrek ez du esan nahi droga arazoak dituzten guztiak 40 urtekoak direnik, gizonezkoak...

Emakumezko asko daude?

Datuek diote emakumeen kontsumoa handitzen doala. Baina hori ez da errealitate gordina. Gertatzen dena da orain arte emakumeen kontsumoa gordeta izan dela, ze emakumeak baitauka atzetik bere etxeko pisua. Alkoholarekin, adibidez, arazoa daukat, baina familia daukat atzetik eta ezin dut tratamendurik egin; orduan, nire arazoa ezkutuan gelditzen da. Pixkanaka-pixkanaka lortzen eta ahalbidetzen gabiltzana da tratamenduak denon eskura izatea. Kontsumoak oso antzerakoak dira. Emakumeek gizonen ohiturak hartu dituzte gizonen emakumeenak hartu beharrean.

Haurtxoa zerbitzua haurrei zein haurdunei zuzendutakoa da?

Bai. Berez, Haurtxoa programa eta zentroa sortu zirenean, bideratu ziren droga arazoak zituzten emakumeengana, baita gizonezkoengana ere. Orain, berriz, 5 urte arteko umeak dituzten amandako bakarrik da. Ez bakarrik drogekin arazoa dutenendako; gizarteratzeko arazo handiak



Lukene Lizaso prebentzio teknikaria Arrasaten. | AMAIA TXINTXURRETA

"Emakumeen eta gizonezkoen kontsumoak oso antzerakoak dira"

dituzten emakumeei laguntzeko ere ahalbidetu da. Gizarteko errealitatearen arabera, aldatu egin da zerbitzua.

Gazteei dagokienez, gero eta gazte gehiago doa laguntza eske?

Bada, datuak erlatiboak dira. Gero eta jende gehiago gerturatzen da, baina gerturatzen da adikzioa duena; eta adikzioa ez da egun batetik bestera sortzen. Guregana gerturatzen direnek, adibidez, agian badaramatzate 10 urte kontsumitzen. Izan ere, gazte baten tratamendua ez da 15-18 urterekin hasten, aurrerago baizik. Horrez gainera, azken datuek diote gazteen kontsumoa ez dela igo, jaisteko joera hartzen ari dela.

"Ahaztu egiten zaigu tabakoa eta alkohola drogak direla"

2011ko memorian diozue lehen aldiz 10.000 onuradunen kopurua gainditu egin duzuela. Zenbatek jaso dute prebentzio zerbitzua eta zenbatek tratamendua?

Kontuan hartu behar da prebentzioa zabalagoa dela, gelaka egiten delako. Inguruan ibili gara Arizmendin, Oñatin, institutuan... Gutxi gorabehera, 8.000 dira prebentzioan esku hartu dutenak eta 2.000 dira prebentzioa bai baina zerbait espezifikoa lantzen dutenak.

Zer kontsumitzen da gehien?

Gehien, legezkoak: alkohola eta tabakoa. Askotan, ahaztu egiten zaigu drogak direla. Tabakoaren kontsumoa asko jaitsi da erre-

"Helburua ez da beti ez kontsumitzea, baizik eta kontsumoa egokia izatea"

tzaileen gaineko kanpainak efektua izan duelako; gazteen artean oso gaizki ikusita dago erretzea. Zer gertatzen ari da? Lehen tabakoa erretzen hasten dela. Jendeak uste du gauza bera dela, baina ez da horrela. Beraz, gehien kontsumitzen direnak dira legezkoak. Atzetik leudeke kokaina, kalamua eta beste zenbait substantzia; anfetaminen kasua, adibidez. Guregana gerturatzen diren gehienak dira kokainarekin arazoa dutenak, alkoholarekin arazoa dutenak... Gertatzen dena da normalean polikontsumoak izaten direla; hau

da, kokaina kontsumitzeaz gainera, alkohola ere kontsumitzen dute...

Noiz bihurtzen da droga arazo?

Ezin dira pautak batzuk eman. Kontuan hartu behar da zer kontsumitzen den, kontsumitzailearen profila, ze ingurutan ze momentutan kontsumitzen duen, zergatik... Ez da gauza bera 30 urteko batek zapatu gau baten zurito bat hartzea edo 30 urteko batek astelehen baten, 08:00etan, baso bat ardo hartzea. Substantzia, adina eta sexua bera da, baina kontsumo arazoia eta ingurua aldatu egiten dira. Askotan, orokortzeko ohitura dugu, baina, sarritan, kontuz ibili beharra dago. Ez da gauza bera 20 urteko batek porru bat erretzea zapatu gau baten edo unibertsitatera joan baino 10 minutu lehenago...

Tratamenduak ze irizpideren arabera izaten dira?

Saiatzen gara, betiere, pertsonaren arabera ahal den eta egokituena egiten. Sartzen da laguntza eskatzen eta horretan ahalegintzen gara. Psikologo batetik pasa behar du, ikusi zer substantzia kontsumitzen duen, zelako arazoa iruditzen zaion duela, benetan zein duen, zein helburu lortu nahi duen... Izan ere, askotan, helburua ez da ez kontsumitzea; nahikoa da gutxiago kontsumitzea edo kontsumo hori egokia izatea.

Tratamenduak eraginkorrak dira?

Datuen arabera, %50ek lortu nahi dituzten helburuak lortu egiten dituzte.

Debagoieneko zenbat pertsona hartu dituzue elkartearen?

Prebentzioaren ikuspegitik baillan izugarritzko lan piloak egiten da: Oñatin, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran... egon gara. AGIPAden urte askoan egin du bailara honetan lan. Horrez gainera, Arrasateko eta Oñatiko udalekin programak lantzen dira, guraso eskolekin, ludotekekin, gaztelekuarekin... Presentzia gero eta nabariagoa da.

Mezuren bat bidaliko zenuke?

Garbi gelditzea, azken batean, errealitate bat dela, ukatu ezin dena; eta dela zerbait berba egin beharrekoa, landu beharrekoa. Drogak beti egon dira, daude eta egongo dira. Beraz, denon artean eta lanketa ezberdinen artean ea arazorik ahalik eta gutxien sortzen diren eta haiekin bizitzen ikasten dugun. Desagertzea zaila da.

ZABALIK

INAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/



Saiatu eta lortu

Zapatua da, uztailearen 21a. Eguerdia, Bizkaiko herri txiki baten. Lagun talde bat batu gara eta udako egun polit bat pasatzeko gogoz gaude, seme-alabekin.

Barre algaren eta umeen garrasi artean, telefono batekin jo du 13:00 inguruan. Naomirena da, gure anfitrioi. Telefonoaren bestaldean dagoenarekin elkarrizketa lasaia izaten ari da. Jarraibide zehatzak eman dizkio, eta nire kuriositatea piztu du horrek. Eskegi egin du.

"Dena ondo?", galdetu diot. "Bai", erantzun dit. "Gontzali eta haren familiari laguntzen gabilta. Patologia terminala dauka hark, eta, segurunez, bere azken orduak bizi izaten ari da".

Zaintza aringarrien proiektu bateko *alma mater*a da Naomi; hasiera baten Gipuzkoako Diputazioak eta Europako Gizarte Fondoak babestuta, eta orain, Fundazio Sozio Sanitarioak, Oberrik eta Urbegi Taldeak bultzatuta. Eta proiektu horren helburua da gizaki baten heriotza atzerazinari aurre egitea, bere etxearen berotasunean, asepsiatik eta minik ematen ez duen ospitaleko zaintzatik urrutitua, eta etxeko ondoan.

Gizarte berrikuntzako proiektu horren izena Saiatu da, eta, nagusiki, gauza bi uzten ditu agerian: batetik, beharrezkoa dela osasun-politikan norabide aldaketa bat gertatzea. Mota horretako politikak bultzatu behar dira, eta hala, pertsona baten heriotza duintzeaz eta haren familiari laguntzeaz gain, ezinbestekoa da ospitaleko baliabideak optimizatzea; eta bestetik, gizakiak oraindik soluzioa duela; izan ere, ezin daiteke izan proiektu hori osatzen duten pertsona eta profesionalak egonda, oraingo egoera ekonomikoak eta egozentrismo sozialak alternatibarik ez edukitzea.

Bide batez, Javi Martinezengatik Municheko Bayernek 40 milioi euro gastatu baditu, zenbatean baloratuko dugu Naomi eta haren *ingeru* taldea?

"Beharrezkoa da osasun-politikan norabide aldaketa bat gertatzea"

USTEAK USTE

XABIER URTZELAI | xurtelai@goiena.com

Erakusten duguna, eta dena

Maider Undari deitu diot oraintsu, datorren asterako hitzordua egiteko (hortxe egubakoitzean izango duzunaren aurrerapena). Joko Olinpiarren bueltan komunikabide guztiek azpimarratu zuten baserri mundukoa dela, gazta ekoizlea, Madrilgo bizimodura ondo moldatu ez zela... Batzuetan zalantza izaten dut komunikabideok erakusten dugunak zenbateraino erakusten duen errealitatea, benetakoa dena. *Pi, piii* (telefonoa). —"Bai?", telefonoaren beste aldean. —"Maider etxean da?". —"Ia ba, itxoin apur bat. Maideeeeeeeeeeeeeeeeeer!". Egiten ari dena utzi, eta baserriaren beste puntatik korrika etorri da telefonora, arnasestuka. Brontzeak ez du aldatu Unda.

KALE INKESTA

Hauteskundeak aurreratuko dira; zer deritzozu?



ANA MARI
LIZIAGA
OÑATI

"Espero nuen hauteskundeak aurreratuko zirela, baina horrela ez da al garestiagoa izango?".



LUISITA
AIZKORRALDE
OÑATI

"Sorpresa hartu nuen aurreratuko zirela jakitean. Gertatuko den aldaketa onerako izan dadila espero dut".



OSKAR
BERRETEAGA
OÑATI

"Suposatzen nuen aurreratuko zirela, hala ere, ez dut uste funtsean ezer handirik aldatuko denik".



RAUL
GARCIA
OÑATI

"Bi aukera ikusten ditut; EAJk edo Bilduk irabaztea. Gauza asko daude egiteko, baina egoera kaxkarra da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Abuztuan ere bai

Pello Zabala

http://berria.info/blogak/pellozabala/

Irakurt-pitxi polit eta sakonik badut, isilaldi luzexka abuztuko honetan ganbaratutakorik; baina, lot nadin gertuenekotara. Atzoko *aulkien martxakoa* adibide argi ta klaroa: "Paulo Agirrebaltzategi 70 urteko frantziskotarrak larriki gaixo dauden presoan aldeko martxari ekin dio... Donostian zehar ibili dira arratsaldean eta, euripean, ospitalera itzuli dira..." (Hedabideren batean Agirrebaltzategi deitu badiote ere, badakit balitz-etik gutxi duela eta, Arantzazu inguruko *Baltzategi* zaharretik bai, handik areago datorrena... ez da alferrik Araotzen jaioa, eta 1953ko irailaren 15ean Arantzazura, koltxo kiribildu eta guzti, orduan genotzen moduan, Oñatiarra bus zaharrean etorria... hau dena, noski, jakin beharrean nago, Brinkolatik zetorren bus zahar berean baintorren, beste sei-zazpi lagunekin...).

Eta ez dago esan beharrik leon-kastillok berekin daramala argiaren osteko itzala:

Gaurko pitxia ere ez baita makala, alegia, ez dela zur makalekoa, ezta makal zurezkoa ere. Halatsu dio: Ez da petrolioaren morrontza bakarrik: bada besterik. Ekonomiaren soroetan, ezer itxurazkorik lortuko bada, beti aipatuko digute eskasian egoteaz gainera, nahitaezko eta ezinbestekoa omen zaigun produkturen bat. Eskasia makurra begien aurrean eta, ordezkorik ez begien bistan. Nola heldu arazo honi, klimaren krisiak berak ere, eragin definitiboan izan badezake etorkizun guztiz gertukoan.

Petrolio ordezkatzeak, edo ordezkatu behar derrigorrezkoak, ez al dizkigu, ordea, ondorio latz eta estuagoak aurkeztuko? Lursoroen ekarria, artean ere, emanean daukagu: baina, janaritarako eskas bidean ipini omen dizkigute. Artoa, soja, palma olio, azukarra, eta beste hainbat produktu auto ta berebilen erregaitaroko baitarabilzkgigute. AEBetako adibidea: arto uztaren ia %40a erregaitara bideratzen omen dute.

Aspaldikoa da, XVI.enekoa nonbait, Erresuma Batuko atsotitza: "Ardiek irensten

gaituzte". Inguruko lurrazalaren emanik gehiena artaldeentzat omen orduan. Eta baserrietik kaleratu behar izan zutenen bildurra hartarainoxe gehitu zen, non eta oilo bat lapurtzeak herio zigorra merezi izan baitzuen urte batzutan.

Gaur nola esango genioke? "Berebilak irentsi du gizakia"? Ondo legoke, tristeegia ez balitz, ezta? Egia da bai, eta hain gertu bertakoan ikusten duguna: autoen inguruan, automatikoki, dirutza dabilela korrituan, autoen gose egarriak, alegia, aise berdintzen direla gurean. Aldiz, behartsuaren gosea eta egarria, luzetxorako dauzkagula desafio aurrean, erronka trixtean. Gure arrazoinamendua hartarainoxe plegatu dugun sasoi honetan, autoen ibilia da, arrazoi osoz (ustez), lehen betekizun: pentsa zenbateraino okertu ta perbertittu dugun gure arrazoi, garai batez, sanoa: lurrazalaren ta belazeen ordeka emankorrenak, terreno eroso ta onenak, alegia, errepide beltz antzuarri aporrillo eskaintzerainoxe makurtu gabela...

Gizaki makurtua, gizaki denaz haztua.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitate)

Asteburuko edizio arduraduna
Eneko Azkarate
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

IRAILAREN 29AN GORBEIAREN ESKUTIK

DONOSTIAKO ZINEMALDIAREN 60. EDIZIOA

BI LAGUNENTZAKO BAZKARIA

AKELARRE JATETXEAN

BI SARRERA AMAIERAKO GALARAKO

ETA EGONALDI BAT **LONDRES HOTELEAN**

EGIZU GUTXIENEZ 20 EUROKO EROSKETA BAT ETA
PARTE HAR EZAZU HONAKO WEBGUNE HONETAN:

CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM



GORBEIA
10 URTEZ AURREZTEN



60

DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Promoziok 2012ko abuztuaren
31tik irailaren 20ra iraungo du

Oinarri osoak:
www.centrocomercialgorbeia.com



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jose Antonio Baz | Ezker Batuko zinegotzia Arrasaten (2003-2007)

- ▶ CCOOko sindikatuko ordezkari eta EBko zinegotzi lanak bateratu zituen Bazek
- ▶ Herrian politika egiteko urte gogorak izan zirela azpimarratu du
- ▶ Besteak beste, La Caixako etxeak egitearen aldeko jarrera izan zuen Ezker Batuak

"Penagarria da herriarendako proiektu on bat interes politikoengatik gauzatzen ez denean"

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Jose Antonio Bazek (Caceres, 1952) ez du zinegotzi izan zeneko oroitzen onik. Arcelorren erre-tiro aurreratua hartuta, gaur egun Valladolid aldean ibiltzen da gustura, etxeko lursailetan lanean. Urte gogorak izan zirela onartu digu, baina baita sasoi hartan oso jende jatorra ezagutu zuela ere.

Zelan iritsi zinen politikara?

Errebotez, egia esanda. Arcelorren CCOO sindikatuko ordezkari nintzen, eta, erdi brometan-edo, Ezker Batuko zerrendetan jarri ninduten. Hirugarrena nintzen zerrendan, eta hauteskundeen ostean jaso nuen lehenengo deia alderdiko lagun batena izan zen: "Izorra hadi!", esan zidan, brometan. Gero, egia da bateko eta besteko lanaz ito samar ibili nintzela, baina ez nituen hartutako ardurak utzi nahi. Eta bestalde, Arrasaten lan handia zegoen egiteko.

Urte gogorak izan zirela esan didazu.

Bai, ez dut urte haietako oroitzen onik. Batetik, gure aurpegiak eta halakoak ateratzen zituzten pegatinetan, presio galanta genuen. Haietako batean Isaias Carrasco, ni neu eta beste zinegotzi batzuk azaltzen ginen. Kalean paseatzen joan eta dirua lurrera ere bota izan didate; une horiek ez dira gozoak izaten.

Sasoi hartan EAJrekin batera gobernatu zenuten.

Eta arlo horretatik ere ez zen batere erraza izan lan egitea. EAJrekin gobernua osatuta, ondo ikusten ez nituen gauza asko irentsi egin behar izan nituen, ideologikoki ideia batzuk izan,




Jose Antonio Baz, 2007an, Zutik eta Ezker Batua batera aurkeztu zireneko aurkezpen ekitaldian. | GOIENA

baina beste erabaki batzuk onartu behar; eta ez zitzaidan batere erraza egiten. Gure alderdian nahiko askatasun genuen, baina, hala ere, gauza bat baino gehia-

go irentsi behar izan nituen. Bestalde, guk EAJrekin osatzen genuen Udal Gobernua, baina, aldi berean, jeltzaleek sozialistekin hartu-eman handiak zituz-

ten. Orokorrean, ez nintzen gustura geratu udal ordezkari moduan egindako ekarpenarekin; izan ere, gehiago egin genezakeela uste dut.



La Caixako etxeen fatxada, lanak egiten ari zirela, 2008an. | GOIENA

Egongo da gauza positiborik...

Bai; sasoi hartan ezagutu nuen jende on asko, oso jatorra. Bena-tan esango dizut, ez dut arazorik onartzeko, sasoi hartan Paco Gartziarekin oso txarto konpondu nintzen. Haren jokatzeko modua ulergaitza egiten zitzaidan. Eta esango nuke sasoi hartatik harremanik ez dudana bakarra dela. Bestalde, nahiz eta politikoki muturrekoak izan, Itziar Lamarainen lana gorai patuko nuke. Ikustekoa zen emakume horrek herriarengatik zelan egiten zuen lan.

Zer sentitzen da politika kontuen-gatik proiektu bat gauzatzen ez denean?

Ezintasuna baino gehiago, amorrua, malaostia galanta. Eta askotan pasatzen zen. Esaterako, La Caixako etxeak egin behar zirenean, sozialistak kontratan azaldu ziren, bestelako interes politikoengatik, eta guk oso garbi ikusten genuen herriko jende gaztearendako oso gauza ona zela.

Sasoi hartan egin ziren lanen artean, zeintzuk dituzu gogoko eta zeintzuk ez?

Gernikako Oinezkoen Zumardia oso ondo geratu zela iruditzen zait, herritarrek paseatzeko leku ederra da. Bestalde, Biterin dagoen *gasolindegia* ez zait bate-re gustatzen. Garestia izan zen, eta ez du aparteko erabilpenik. Eta zatarra da.

Bereziki gogoratzen duzun lorpenen bat?

Gelmako etxebizitzengatik Udalak ia hiru milioi euro pasatxo jaso behar zituen, ez gehiago, baina tinko jarri ginen eta zazpi milioi euro pasa lortu genituen Udalarendako.

"Alderdian askatasun handia izan arren, gauza asko irentsi nituen"

"Biteriko 'gasolindegia' garestia izan zen, eta ez du erabilpenik"

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 20:15 | TXOMIN MADINA ETA MIREN ARREGIK AURKEZTUA



HERRIAK

ESKORIATZA

Zaharren egoitza diruz laguntzeko, garagardo festa solidarioa irailean

- ▶ Etorkizunari begira, herriko beste elkarte edo talde bati laguntzeko bide ere izan daiteke
- ▶ Hilaren 20an, 21ean, 22an eta 23an ospatuko da, eta karpa Herriko Plazan jarriko dute

AMAIA TXINTXURRETA | **ESKORIATZA**
Zaharren egoitza diruz laguntzeko bide moduan sortu zen garagardo festa antolatzekeo ideia; zaharren egoitzako patronatuaren eta Udalaren arteko bilera batek, hain zuzen ere. Hilaren 20an, 21ean, 22an eta 23an ospatuko da eta boluntarioen lanarekin aterako da aurrera festa.

Egoitzaren egoera ekonomikoa
Zaharren egoitzak gaur egun hornitzaileekiko zorrak kitatuta ditu eta egoera ekonomikoari buelta ematen dabil. "Azken bi urteetako kudeaketak zorrak sortzen ez jarraitzea eragin du, kostuak asko murriztu baititu eta dagoeneko egoitza bideragarria dela esanenez", aitortu digu Beñat Herce alkateak. Egoera, beraz, ez da kritikoa, baina zerbitzua prestatzen jarraitzeko derrigor zenbait egokitzapenetarako inbertsio burutu beharra dago, eta finantzazioa falta da.

Garai batean ia 400.000 euroko zorrak azaleratu ziren, legez egin beharreko inbertsioak kontuan izan gabe. Hornitzaileekiko zorra kitatzeko zaharren egoitzak 150.000 euroko mailegu bat eskatu du, Udalarik Jose Aranaren etxea saldu zion, 170.000 eurotan, eta gainontzekoa herritarren ekarpen eta baliabide propioak erabiliz ordaindu zen. Itarte familiarak ere ekarpen garrantzitsua egin zuen, eta, horregatik, ekainean plaka bat jarri zuten egoitzan eskuzabaltasuna eskertzeko. Herritarrek ere oraindik egin ditzakete ekarpenak kontu korronte hauetan: Euskadiko Kutxa, 3035 0044 82 0440028200 eta Kutxa-banken, 2101 0038 57 0012756144.

Diru beharra

Momentu hauetan egoitzan egin beharreko egokitzapen lanak hainbat dira. Garrantzitsuena legea betetzeko egokitu behar diren lau banako gelaren inbertsioa da, bigarren solairuan egongo direnak, eta igogailua ere bertaraino heltzeko lanak burutu behar dira; lehendabizi egingo diren lanak dira horiek. "Hala ere, beheko solairuko gelan, erabilera askotariko gela jarri nahi da, eta komuna egokitu eta baita jangelarako sarrera ere. Teilatua konpontzea ere behar-beharrezkoa



Diru premia duen zaharren egoitzako zenbait lagun, eraikinaren aurrean. | AT.

da", dio alkateak. Horretarako, 442.300 euro aurreikusen dira.

Finantza erakundeekiko zorra
Hornitzaileekiko zorra kitatuta dago; beraz, finantza erakundearekiko zorra geratuko litzateke

ordaintzeko. 15 urtean, sei hila-beteko kuotatan ordainduko da: "Estimatzen dugu egoitza bere baliabide propioekin gai izango dela kuota horiei aurre egiteko. Dena den, hala ez balitz, Udalararekin hitzarmen bat ere badago,

inoiz ordaindu ezin badu, ordainketan laguntzeko", dio Hercek. Inbertsioak finantzatzeko, aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza lortu nahi da. Bere garaian 300.000 euroekin laguntzeko konpromisoa egon zen,

"baina jakin badakigu Foru Aldundiarendako ere ez direla garairik onenak", dio alkateak. Ondorioz, ikusi egin behar.

Egoitza gaur egun

32 plaza daude egoitzan autonomoendako, mendekotasuna dutenendako eta mendekotasun handia dutenendako. Gehienak azken multzokoak dira eta plazak bete daude; gaur egun itxaron-zerrenda dago sartzeko. Lanean, berriz, 20 lagun dabilta.

Garagardo festa

Garagardo festa antolatzen hasteko lehenengo bilera uztailean egin zuten eta erantzuna "ezin hobea" izan zen, alkatearen hitzetan: "Boluntario gisa laguntzeko 100 bat pertsona inguru prest agertu dira eta bileretara etorri direnek ideia eta ekarpen oso onak egin dituzte. Bileretara nahita elkarteak deitu genituen; kontuan izanda urtero antola daitekeela eta urtero elkarte bat edo batzuk edota proiekturen bat lagun daitekeela". Han izan ziren, besteak beste, egoitzakoak bertakoak, erretiratuak, Amuskakoak, Kirol Elkartekoak, Musika Eskolakoak, Zu Behar Zaitut proiektukoak, Eingeinlekoak eta Aitzorroztz kultur elkarteak.

Karpa Herriko Plazan jarriko dute eta zati baten mahaiak eta aulkiak egongo dira; bestean, berriz, zutik egoteko espazioa izango da. Guztira, 200 pertsona inguru sartuko direla aurreikusuten dute.

Hainbat garagardo motaz gain, jatekoa ere egongo da: txerri-kondoa, saltxitxak, patatak.. egunen baten pintxoak ere jarriko dituzte.

Oñatiko antolatzaile batekin egin zuten Eskoriatzako lehena hartu-eman, eta asko lagundu dietela esan digu alkateak. Gainera, materiala uzteko prest agertu dira, eta asko eskertzen dute jasotako laguntza.

Bukatzekeo, herritarrei mezu hau bidali nahi izan die Beñat Herce Eskoriatzako alkateak: "Anima daitezela, asteburu polita izango da eta ekitalditxo batzuk ere antolatuko ditugu. Azken finean, ondo pasatuz, kausa bati lagunduko diogu".

DATUA

442.300

EURO

Aurreikusten da kantitate horretako inbertsioak egin behar direla Eskoriatzako zaharren egoitzan.

ESANAK

"Oraindik herritarrek diru ekarpenak egin ditzakete"

"Eskoriatzarren inplikazioak ez dauka preziorik; eskertzekoa da"

BEÑAT HERCE | ESKORIATZAKO ALKATEA



Etxeko txikiak gazta nola egiten den ikusten. | JULIO CALLEJA



Ardiak nola eskilatzen diren ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek. | JC



Baserri ugaritako ardiak ikusgai izan ziren Legazpin atzo, domeka. | JC



Jesus Mari Plazaola arrasatearraren Gure txakurra izan zen artzain txakurren lehiaketako irabazlea. | ARTZAIN EGUNA

LEGAZPI

Omenaldi hunkigarria Korta eta Zumalde artzain oñatiarrei

Arrasateko Jesus Mari Plazaolak eta Gure txakurra irabazle, Artzain Txakurren Lehiaketan

AMAIA TXINTXURRETA | LEGAZPI

Gipuzkoako Artzain Eguna ospatu zen atzo, domeka, Legazpin eta bi artzain oñatiar omendu zituzten: Julian Korta eta Maximo Zumalde.

Kortak, Urriagain baserriko 86 urteko artzainak, gaur egun 200 buruko artaldea du, hala ere, 510 ardi izatera ere iritsi zen garai batean eta atzo merezitako omenaldia jaso zuen: artzain makila eman zion Josu Etxezarreta Artzain Eskolakoak. Omenaldia jaso zuelako "gustura" zegoela aitortu zigun Kortak.

Kontatu zigun baita ere urte-tan joan dela Legazpira Artzain Egunera eta gazta lehiaketan ere parte hartu izan duela. Urte batean bigarren saria eskuratu zuen gainera.

Bestetik, Maximo Zumalde Araotz auzoko Madina baserrian bizi denak jaso zuen artzain aipagarriaren omenaldia, 180 ardi ditu gaur egun eta Euskadiko Latxadun Elkarteko Jon Murgiondo lehendakariak eman zion saria. Elkartearen barruan buru belarri lan egin duen bazkide den artzain bati ematen zaio sari

hori, hobekuntza genetikoan eta artzaintzaren alde modu berezian eta kementsuan aritu den artzainari, eta ondo merezitako omenaldia "oso pozik" jaso zuen Zumaldek ere.

Betidanik ezagutu dituzte ardiak Madina baserrian ere eta bizitza guztia eman du Zumaldek artzain, Kortak bezala.

Biek esan ziguten esker onez jaso zutela Legazpin egindako omenaldia eta oraindik artzaintza munduan lanean jarraituko dutela azaldu ziguten bi artzain oñatiarrek.

Gazta lehiaketa

Gipuzkoako Artzain Eguna 28. lehiaketa ere atzo, domeka, jokatu zen Legazpin eta Oñatiko Gomiztegioko bederatzigarren postuan geratu zen sailkapenean.

Ez zuen, beraz, saririk lortu, baina, hala ere, euskadiko txapelketan parte hartu ahal izango du, izan ere, lehenengo 10 postuen artean geratu zen.

Gazta lehiaketako irabazlea Joseba Intxausti ordiziarra izan zen eta 540 euroko saria eta txapela eskuratu zituen.

Epaimahaian zegoen Alberto Elorza oñatiarrek esan zigun aurtengo gazta lehiaketan "nahiko maila ona" zegoela: "Gauzak geroz eta hobeto egiten ditugu eta lehiaketara aurkeztu diren gazta gehientsuenak oso lortuta daude; bakarra da ketua eta egia esan horrelakoekin oso argi ibili behar da ke gustua puntuan izatea oso konplikatua izaten delako".

Txakur irabazlea, arrasatearra

Aurtengo Gipuzkoako Artzain Egunaren barruan, Gipuzkoako XLIV. Euskal Artzain Txakurren lehiaketa ere ospatu zen. Bertan hiru debagoiendarrek hartu zuten parte; Arrasateko Jesus Mari Plazaolak Gure izeneko txakurrarekin, Oñatiko Migel Arregik Mendi txakurrarekin eta Jose Luis Madinabeitia oñatiarrek Txiki izeneko txakurrarekin. Arrasateko Plazaola izan zen irabazlea azkenean.

BERGARA

Osintxun azken urteotako jai jendetsuenak ospatu dituzte

Zapatuko eguna indartuz lortu dute jaietan parte-hartze gehiago izatea

AMAI TXINTXURRETA | BERGARA

Orain arteko Osintxuko jaietan egun indartsuena egubakoitza izaten zen eta jendea dagoeneko "nekatuta" iristen omen zen zapatua, Jon Olivares Osintxuko jaietako antolatzailearen hitzetan. Hori ekidin nahian eta jaiak gehiago aprobetxatzeko asmoz, hainbat ekitaldi zapatua pasatu dituzte aurten eta emaitza "oso ona" izan dela diote antolatzaileek: "Auzotarrak izan gara parte hartu dugunak baina inoiz baino jende gehiago ibili da" esan digu Olivaresek.

Ekitaldi ugari

Jaiei hasiera egubakoitzean eman zieten etxafuegoekin eta urtero moduan bizikleta martxa egin zuten Soraluzera mozorrotuta.

Aurtengo zapatua jaietako egun indartsuena izanda, goizean umeendako jolasak izan zituzten, besteak beste, eta ondoren, indarrak hartzeko, koadrilen arteko bazkaria egin zuten frontoian lehen aldiz. Koadrila bakoitzak bere bazkaria eraman zuen eta giro ederrean egon ziren. Arratsaldean, berriz, sukaldaritza txapelketa jokatu zuten eta oilaskoa txilindroi erara prestatzen izan ziren 11 bikote eta talde. Lehenengo saria Andreak, Eniak eta Zazuk egindako platerak eskuratu zuen. Irabazleek eta gainontzeko partaideek egindako jana erabili zuten herri afarirako eta inoiz baino pertsona gehiago elkartu ziren; 160 lagun. Gero, erromeriarekin goizeko ordu



Lagun koadrila bat zapatuko bazkarian. | JULIO CALLEJA

txikietara arte luzatu zen festa. Osintxun bizi diren senegaldarrek inprobisatutako ikuskizuna ere eskaini zuten danborrekin.

Domekan, mezaren ondoren, Iñaki Perurenaren erakustaldiaz

gozatzeo aukera ere izan zuten. Gainera, Perurenak erakustaldiaz gain, saio didaktikoa ere egin zuen eta harri jasotzeen inguruko kontuei buruzko azalpenak eman zituen, besteak beste.



Haurrek sagar jokia egin zuten, besteak beste, zapatu goizean. | JC



Futbolin txapelketa jokatu zuten zapatu goizean Osintxun. | JC



Frontoian bazkaldu zuten koadrila ugari zapatuan euren jana eramanda. | JC

ARRASATE

Zarugaldeko kaleko jaietan gustura ibili dira haur, gazte eta helduak

100 lagun elkartu ziren zapatuko afarian

A.T. | ARRASATE

Zapatuan ospatu zituzten Arrasateko Zarugalde kaleko jaiak eta goizeko txupinazoaren ostean, haurrek hartu zuten protagonismoa. Hainbat joko izan zituzten; zaku karrera, arto jasotze moduko jolasa azenarioekin, goxokiak irin artetik ere hartu behar izan zituzten ahoarekin... Gustura ibili ziren txikienak lagun artean.

Eguerdian, berriz, triki poteoa egin zuten nagusiagoek eta tabernetan pintxoak dastatu zituzten bertaratuak.

Arratsaldean, bomba japoniar, buruhandi eta txistulariek girotu zuten kalea eta afarian 100 lagun elkartu ziren. Nekane Atxa antolatzaileak balorazio positiboa egin zuen jaiak "oso parte-hartzaileak" izan direla esanda.

Mus eta partxis txapelketak

Arratsaldean bi txapelketa izan ziren. Bigarrenoz jokatu zuen mus txapelketan zortzi bikotek hartu zuten parte eta Mikel eta Luken izan ziren irabazleak. Partxis txapelketa, berriz, lehenengoz egin dute aurten Zarugaldeko jaietan eta sei lagun lehiari ibili ostean, Jon Berezibar izan zen irabazlea.



Zapatu eguerdian triki poteo jendetsua egin zuten Zarugalde kaleko jaiak ospatzeko. | SERGIO AZKARATE



Bomba japoniarrek arrakasta izan zuten gaztetxoeren artean. | SA

Sutea Fagorren eta auto bat erre izana, gertaera aipagarrienak abuztuan

- ▶ Lapurretarik ez da izan, Udaltzaingoaren arabera
- ▶ Kamioi bat irauli zen joan den astean San Andresen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Abuztuko oporretan lapurretak hazi egiten diren baieztapena zalantzan jartzen hasi beharko gara. Bai behintzat Arrasaten. Uztail amaieran Iñaki Arriaga udaltzainburuak aurreratu zuen abuztuan ez direla bereziki lapu-

rreta gehiago ematen. Gabonetan gehiago ematen direla adierazi zuen, adibidez.

Bada, aurten ere ez da lapurreta aipagarrikerik eman, ez etxetan eta ezta komertzioetan ere: "Ez dugu mota horretako inongo gertaeraren berririk jaso".

Istripu ikusgarria

Lapurretarik ez, baina izan dira bestelako gertaerak. Hilaren 17an gazezko labe batek su hartu zuen Markuleteko Fagor Ederlanen eta suhiltzaileen hiru kamioi egon zirean sua itzaltzen. Ez zen zauriturik egon. Hilaren 19an



Suhiltzaileak Fagor Ederlanen sortutako sua itzaltzen, abuztuaren 17an. | MIREIA BIKUNA

auto bat erreta agertu zen Nafarroa etorbidean; Ertzaintzak goizaldeko 05:50ean jaso zuen abisua. Azken egunetan ez da nobedaderik eman, ikertzen jarraitzen dute. Amaizteko, joan den eguaztenean, hilak 29, kamioi batek istripu ikusgarria izan

zuen San Andres auzoko Alfontso VIII kalean, Takoloko biribilgunitik Arimazubiko Bolintxo okindegira arteko tartean, hain justu. 20:00ak aldera gertatu zen, kamioi batek istripua izan eta bide erdian geratu zen, iraulita. Ez zen zauriturik egon.



Axerikoa zubiko lanak epe barruan doaz

Uztailean Axerikoa edo San Isidro zubia bota zutenetik, obrak erritmo onean doaz Arrasaterako Musakolako sarreran. Atzerapen barik dihardute lanean, eta epeak betetzen badira, abendurako bukatzeko gertu egongo da zubia. Izan ere, sei hilabeteko lanak izatea aurreikusitako ziren. Jaurlaritzako Ur Agentziak sustatutako lanak dira eta uholdeak ekiditea du helburu. Ez du arkurik izango, hau da, zulo hutsa izango da ura azpitik

TXALOAK ETA TXISTUAK



Garajeen aparkatzeko eskaera

Udalak, Mugikortasun Planaren barruan, Gazteluondo eta Olarte kaleetan autoen zirkulazioa erregulatzeko erabaki zuen, oinezkoen lehentasuna emateko. Horren ostean, irakurle batek aditzera eman duenez, bertara sartzeko aukera duten bizilagunetako batzuk kalean aparkatzen dute, hau da, ez dute autoa garajera sartzen. Bizilagun horiei euren autoak garajeetan sartzeko eskaera egin gura die.

ERRETRATU ZAHARRA



Udala auzoko eskola

Argazkiaren egilea: Udaltzaingoa.
Jabea: Udal Artxiboa. **Urtea:** 1955.

Ikasturte hasiera badatorrela-eta, Udalako Ingurugiro Eskola bisitatuko dugu argazki zaharraren bitartez. Izan ere, eraikin hori egin zutenean, berez, Udala auzoan zituzten hezkuntza beharrak asetzeko erabiltzea zen helburua. Udaleko osoko bilkurak onartu zuen proiektuaren adjudikazioa 1934ko ekainaren 8an. 41.139 pezetako aurrekontua bideratu zuten, eta

gerora 6.500 pezeta gehitu zuten likidazioarako. Hala sortu zen Udalako eskola. Gerora, eraikina berritu egin zuten, haren erabilera aldatu egin behar zela-eta. Hain zuzen ere, 1990eko maiatzaren 28an, adjudikatu zuten berrikuntza proiektua. Eta behin obrak eginda, gaur egun ezagutzen dugun erabilera eman zioten: Ingurugiro Eskola.

Torremolinoseira irteera Abaroa elkartearen eskutik

Abaroa erretiratu elkarteak irteera antolatu du Torremolinoseira (Malaga). Urriaren 7tik 21era joango dira eta izena ematen duen pertsona bakoitzak 510 euro ordaindu beharko du -250 euroko fidantza eskatzen da-. Irailaren 21era arte eman daiteke izena. Nola? Bada, Etxaluzeko bulegoetara jo beharko du interesatuak. Autobuseko eserlekuak izenemateko ordenaren arabera zehaztuko dira.

Bidaiaren prezioaren barruan honakoa sartzen da, besteak beste: autobusa Arrasatetik bertatik, joaneko eta bueltako bazkaria -menua jango dute-, 14 gau pasatzeko hiru izarreko hotela mantenu osoarekin eta bidaiaren aseguru.



McEnroe taldearen pop rock eta indie doinuak entzun ahalko dira, hilaren 15ean. | PABLO NIETO

Zuzeneko akustikoeak hartuko dute Kulturate, hileko azken asteburuetan

- ▶ Jaialdiaren laugarren edizioa izango da, sei saiorekin
- ▶ Izen handiko musikariak datoz, doan ikuslearendako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Abuztuko oporraldiaren ostean, zuzeneko musika emanaldiek hartuko dute Kulturate. Kulturate Akustikokoak jaialdiaren laugarren edizioa izango da eta oraingoan sei kontzertu izango dira, guztiak formatu akustikoa. Udaleko Kultura Sailak aditzera eman duenez, "kalitatezko doinuekin" gozatzeko aukera izango du ikusleak, musu-truk.

Musikari ospetsuak, merke

Karmelo Alberdi Udaleko Kultura Saileko teknikariak gaineratu du zorte handia izan dutela aurtengo taldeak ekartzen eta horretarako McEnroe taldearen adibidea aipatu du: "Oso disko ona atera dute aurtun eta jotzen hainbat urte badihardute ere, guk izen handia egin aurretik lotu genuen kontzertua". Beste talde batzuekin ere hori gertatu zaie, hau da, kontratatu ondoren egin dira ospetsu taldeak. Horrek eman dio aukera Udalarari izen handiak merkeago ekartzeko.

Kulturate, oso leku egokia

Era berean, Kulturate halako formatuetarako oso egokia dela dio Alberdik: "Akustikoa larregi landu ez den formatu bat da, nahiz eta azkenaldian bereziki tabernetan ugaritu egin den. Hala ere, tabernekin ez dute eskaintzen aukera talde handiak ekartzeko. Eta Kulturateko areto nagusiak asko laguntzen du: eserita egoteko aukera, ez da taberna, doa-koa da sarrera...". Horrek guztiak

urtez urte harrera hobea izatea ekarri du: "Iaz arrakasta handia izan zuen jaialdiak, saio guztietan ia bete egin zen-eta aretoa". Aurtun ere formulak ondo funtzionatzea espero du Alberdik.

Sei talde, denetarik doinuak

MobyDick Getxoko bakarlariak irekiko du jaialdia. Euskal Herrian ezaguna da oso, hainbat txokotan eskaini ditu-eta kontzertuak.

Hainbat adituk goraipatu dute musikari bizkaitarraren gaitasun artistikoa eta estudioko lana, baina batez ere zuzeneko nabarmendu dute. Haren abestien intentsitatea eta haren ahotsaren pertsonalitatea aintzat hartuz, bakarlari moduan mugak gainditu dituela uste dute askok.

McEnroe taldearen pop rock eta indie doinuek tonu melankolikoa dute eta hitzak -instrumentalak soilik diren abestiak ere joko dituzte- oso zainduak dira. Azken diskoaren ospearekin datoz eta bira berriko kontzertuetan sorpresak eta sentsazio berriak dira nagusi. Smile taldearen azken diskoan, bestalde, rock doinuek joera garbia da eta Jonny Kaplan eta Neal Casal musikarien kolaborazioak ditu. Tom Petty, Jayhawks, Ray Lamontagne eta Jack Johnson handien eragina nabaria da euren kantuetan.

Bigarren aste bukaera Britainia Handiko Sons of the Delta taldeak irekiko du. Delta blues doinuak dituzte oinarri baina AEBetako hegoaldeko jatorria duten beste hainbat doinu ere lantzen dituzte. Hurrengo Javier Corcobado izango da: mikrofonora itsatsita bizi den musikaria eta poeta da, amodioari eta bizitzari abesten diona.

Euskaldun batekin hasi eta bi euskaldunekin amaitu. Igor Arzuaga eta Luis Vilek osatzen duten taldeak itxiko du jaialdia. Biak ala biak eskarmentu handiko musikariak eta ez dutenak inor oharkabean utziko.

IV. KULTURATE AKUSTIKOAK

IRAILAK 14

20:00 MobyDick.

IRAILAK 15

20:00 McEnroe.

IRAILAK 16

20:00 Smile.

IRAILAK 21

20:00 Sons of the Delta.

IRAILAK 22

20:00 Javier Corcobado.

IRAILAK 23

20:00 Igor Arzuaga & Luis Vil.

Kontzertu guztiak Kulturateko areto nagusian izango dira.

Jose Manuel Matas | Arrasate Aikido taldeko arduraduna

"Aikidoa edonorendako da, eta osasun fisikoa zein psikikoa hobetzen ditu"

Eguenean ate irekien jardunaldiak egingo dituzte Musakolako kiroldegian, 18:00etan hasita

J.B. | ARRASATE

23 urte daramatza Jose Manuel Matasek (Eskoriatza, 1961) Arrasate Aikido taldean. Eguenean edonorendako doako saioa egingo dute. Hori aitzakia hartuta, harekin egon gara borroka-arte horren gainean berbetan. **Zergatik aukeratu zenuen Aikidoa? Zerk erakarri zintuen?**

17 urte nituela hasi nintzen borroka-arteak ezagutzen eta batzuk ezagutu ostean konturatu nintzen Aikidoa zela gehien gogobetetzen ninduen. Oso erraza da, edonork egin dezake. Gainera, osasun fisikoa zein psikikoa hobetzen laguntzen du. Hau da, gorputzeko atal eta organo ezberdinak lantzeko ariketa fisikoak eskaintzen ditu eta baita meditaziorako ariketak ere.

Ez du lehiakortasuna bultzatzen -pertsona guztiak ez dira gai lehiatzeko-. Lehiatzeko gai ez diren edonork aukerak ematea garrantzitsua dela deritot. Hala, Aikidoak norberaren burua gainditzen eta hobetzen laguntzen du.

Eguenean ate irekiak izango dira Musakolako kiroldegian. Zein da jardunaldi horren helburua?

Aikidoa ezagutaraztea da helburu nagusia eta hainbat aurreiritzi ezabatzea. Esan dudan moduan, borroka-arten barruan dagoen arren, ez dago lehiakortasunik. Defentsan oinarritu-

tako artea da eta horregatik modu batera esan daiteke *ahulendako* dela. Klaseak irailan hasiko dira eta beraz, diziplina hau zertan datzan azalduko zaie datozenei. Horrez gain, haur eta gurasoen arteko harremana lantzeko beste era bat ere eskaintzen du. Kirol osatua da eta horregatik probatzera gonbidatu gura zaituztet. Parte hartzeko egin behar den bakarra da egunean 18:00etan kiroldegira agertzea, arropa erosoarekin eta izerditzeko asmoz.

Nolako harrera dauka Aikidoak Arrasaten?

Ez du jende asko erakartzen baina gero eta gehiago dabilta. Ikasturtez ikasturte hobera egiten du parte-hartzeak eta hori poztekoa da. Gure taldeak borroka-arteak bultzatu gura ditu eta arte bakoitzak dituen balioak ezagutzera ematea.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Eskerrak eman gura ditut. Parte hartzen dutenez gain, Udalarari eta Aukeari, euren laguntza barik ez zelako posible izango. Eta herritarrek Aikidoa ezagutzera animatzen ditut.

"Lehiakortasunik ez, norberaren burua gainditzen laguntzen du"



Jose Manuel Matas Biteri plazan, joan den astean. | J. BEREZIARTUA

Gaur hasiko dute ikasturtea Goikobaluko helduek eta gazteei gonbidapena egin diete parte hartzeko

Goikobalu abesbatzako helduen taldeak gaur hasiko du ikasturtea. Aurtun ere martitzenetan -21:00etatik aurrera- eta eguenetan -20:00etan hasita- egingo dituzte entseguak. Goikobalu Gazte, Goikobalu Txiki eta tailerreko taldeak beranduago hasiko dira. Urtero moduan, gonbidapena egin diete abestea gustuko dutenei izena eman dezaten, gazteei bereziki. Izena eman edota informazio gehiagorako bi aukera daude: 685 750 222 telefonora deitu, edo goikobaluarasate@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Arrizuriaga laga eta Zubietako eskola zaharrera joango da Jardun elkarteak

- ▶ Aisialdi taldeak, bertso eskola eta errefortzu eskolak emango ditu han
- ▶ Arrizuriaga jauregiaren egoera kaskarra da aldaketarako arrazoia

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Jardun euskara elkarteak berrikuntzekin hasiko du ikasturte berria. Arrizuriaga jauregiaren egoera kaskarra dela eta, hura laga eta Zubietako eskola zaharrean eskainiko ditu aurrerantzean gaur egun Arrizuriagan eskaintzen dituen ekintzak: bertso eskola, errefortzu eskolak eta asteburuko aisialdia, hain justu ere.

Jarduneko ordezkariak pozik daude aldaketarekin. Udalak hobekuntza batzuk egin ditu erai-kinean eta Jarduneko urriaren 1ean hasiko dute han ikasturtea. Bi gela ditu: bata, handia eta bestea, txikiagoa, eta datozen egunetan atondu egingo dituzte Jarduneko ordezkariak urrirako prest izateko.

Berriketan: egitasmo oparoa

Jardun euskara elkarteak dituen ekintza ugarien artean, Berriketan egitasmoa oso garrantzitsua da. Programa horren oinarria da euskaraz berba egiteko ohitura duten lagunak, hitz egiteko ohitura ez duten lagunekin elkartzea.

2006an ekin zioten mintzapraktika programa horri eta urtetik urtera indarra hartzen joan da. Azken ikasturtean, esaterako, 71 lagunek hartu dute parte Berriketan egitasmoan, 21 taldetan banatuta. Horietatik 47 bidelariak izan dira eta 24 bide-



Irudian dagoen Zubietako eskola zaharrera eramango ditu Jardunek zenbait ekintza. | MONIKA BELASTEGI

lagun. Bestalde, aipatzekoa da bost kideko Hika lagun talde bat ere egon dela.

Datu horiek eskuan, ikasturtearen balorazio positiboa egin dute Jarduneko ordezkariak eta egitasmoaren garrantzia azpimarratu nahi izan dute: "Orain arte intuizioak esaten ziguna, hau da, egitasmo eraginkorra dela, par-

taideek gustura parte hartzen dutela, mintzamina hobetzeko balio duela... berretsi egin digute egindako inkestek. Hemen hiru datu: bidelari guzti-guztiekin aitortzen dute laguntzaileei esker *asko* edo *nahikoa* hobetu dutela berba egiteko gaitasuna; partaideen gehiengo oso zabal batekin aitortzen du esperientzia oso positiboa izan

dela; eta denek aitortzen dute lehen baino leku gehiagotan eta jende gehiagorekin egiten dutela euskaraz.

Jarduneko ordezkariak garbi dute; Mintzapraktika programak hiztun kopurua igotzeko eta euskaldunon sarea osatzeko lagun-garriak dira: "Euskararen erabilera ondo zuzena dute erabi-

lera bultzatzen eta zabaltzen laguntzen dute.

Jardunetik aurreratu dutenez, ohi bezala udazkenean ekingo diote Berriketan egitasmoari. Hori horrela, interesatuek dagoneko eman dezakete izena Jardun elkartearen bulegoan (Errotalde jauregia) edo 943 76 36 61 zenbakira deituta.

Zirku emanaldia barikuan

Herriko euskara elkarteak zirku emanaldia antolatu du egubakoitzarako, irailak 7, 18:30ean, San Martin plazan. Zirku loretsua taldeak *Florenzio Galdino* zirku ikuskizuna egingo du. Adin guztiei zuzendutako ikuskizun horretan malabarez, magia, pailazoez... gozatzeko aukera izango dute ikusleek. Hain justu ere, Florenzio Galdino lorezaina da eta bere lorategi debekatura doa lanera. Han, sagarra jatean aldaketa jasango du eta aurrerantzean bere lana abentura bilakatuko da eta gauza guztiek norabide ezezagunak hartuko dituzte.

Postal lehiaketa amaitzean

Egun gutxi geratzen dira Jardunek aurten lehenengoz antolatu duen udako euskarazko postal lehiaketan parte hartzeko. Hain justu, postalak jasotzeko azken eguna irailaren 17a da. Edozein pertsonak parte har dezake, nahi beste postal bidalita. Postal guztiak jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izan beharko dira eta edozein lekutatik posta arruntez Errotalde jauregira bidaliko dira. Gaia-ri dagokionez, libre da, eta postalean telefono zenbakia jartzea komeni da. Sariaren kasuan, argazki kamera digitala jasoko du irabazleak. Informazio gehiago 943 76 36 61 zenbakian eta www.goiena.net/blogak/jardun blogean.



lako entsegetako bat Martinez de Iralan. | MONIKA BELASTEGI

Gaur, hilak 3, hasiko dira danborradako entseguak

Udal Pilotalekuan izango dira; umeena 19:00etan eta nagusia 20:00etan, ohi bezala

M.B. | ARRASATE

San Martin jaiak gero eta gertuago daude eta ume zein nagusien danborradetarako entseguak ere hastear daude.

Biak ala biak gaur, astelehena, hasiko dira, eta Udal Pilotalekuan izango dira.

19:00etan haurren txanda izango da. Parte-hartzaileak 4 urtetik gorakoak izango dira, hau da, 4 urtetik beherako haurrek ezingo dute ez danborradan ezta entsegetan ere parte hartu, Udaletik gogora ekarri dutenez. Bestalde, ohartarazi dute entse-

guetan zein danborrada egunean gerrikoa eraman behar dela, danborrari eusteko.

Nagusiei dagokienez, haien entseguak, 20:00etan hasiko dira, horiek ere Udal Pilotalekuan.

Entsegu egunen kasuan, irailaren 3an, 4an, 6an, 10ean, 11n, 12an eta 13an izango dira.

Martin eta Martinak batu

San Martinetako egitarauaren kasuan egongo dira berrikuntzak. Esaterako, San Martin egunean, hilaren 16an, herriko Martin eta Martinak batu nahi ditu Udalak 12:00etan San Martin plazan talde argakia egiteko. Aurten 50 urte betetzen dira Surragan San Martinen omenezko gurutzea eraiki zela, eta horri egin nahi diote keinu deialdi horrekin.

San Martinen kanonizazioaren mendeurren ospatzeko helburuarekin egin zuten gurutzea -ekintza gehiagorekin batera- 1962an; izan ere, 1862an izendatu zuten santu. Proiektua Fernando Azkargorta artistak egin zuen eta aparejadore lanetan Jesus Arregi ibili zen Surraga baserriko jabeek emandako lursailetan. Herritik gertu egotea eta leku askotatik ikustea nahi zuten.

Lehen Karlistaldiari bukaera eman zion Besarkadak 173 urte bete zituen egubakoitzean

1839ko abuztuaren 31n sinatu zen Bergarako Hitzarmena, Irizar jauregian

M.B. | BERGARA

Abuztuaren 31 egun garrantzitsua da Bergararen eta Euskal Herriaren historiarako. Izan ere, 1839ko abuztuaren 31n, duela 173 urte, sinatu zen Bergarako Konbenioa, Lehen Karlistaldiari bukaera eman zion ituna.

Gertakari harekin gatazkak gaintzeko eredu bat finkatu zen Bergaran eta herriko hainbat izenek protagonismo zuzena izan zuten horretan. Hala ere, bake ituna lortzeko nazioarteko bitartekaritza ezinbestekoa izan zen; gehienbat, ordezkari britainiarrena. Hala, alde zuzenetik burututako negoziatioak Bergaran berretsi ziren. Maroto eta Espartero jeneralek Azkarrentzen elkartu eta elkar berrakatu zuten. Ondoren, Joakin Irizarren etxean (Irizar jaure-

gian) sinatu zuten bakea ekarri zuen konbenio edo hitzarmena. Gerora, historiari garbi erakutsiko zuten adostutakoaren garrantzia; baita adostutakoa ez betetzearen ondorioak ere.

Erakusketa Irizarren

Bergaran hitzarmena sinatu osteko urte askoan zehar ospatu zen urteurren hura, 1843. urtera arte, hain zuzen. Eta gaur egun ere aintzat hartu den gertakizuna da. Hain justu, gertakizun garrantzitsua hura gogoratzen duen erakusketa jarri zuen duela hilabete batzuk Bergarako Udalak Irizar jauregian, Ituna sinatu zen etxe bereko sarreran. *Besarkadak*. *Bergarako bake hitzarmena gogoan* izeneko liburuxka ere kaleratu du.



Patxi Ugalde piraguismoa egiten . | JULIAN UGALDE

Eslovenian dago Ugalde, finalean sartzeko asmoz

Etzi hasiko den Europako txapelketan hartuko du parte Patxi Ugaldek

OIHANA ELORTZA | BERGARA

"10 bakarrik sartzen dira finalean, eta horien artean sailkatzea da nire asmoa. Hortik aurrera, datorrela datorrena", aitortu du Patxi Ugaldek Esloveniarako bidaia egin bezperan.

Europako piraguismo txapelketak jokatu dituzte herrialde horretan etzitik zapatua bitartean, eta Espainiako selekzioarekin lehiatuko da Patxi Ugalde, 18 urteko gazte bergararra.

Bigarren Espainian

Leridan jokatu Espainiako txapelketan eskuratu zuen Europako txartela Patxi Ugaldek, abuztuan. "Sorbalda atera nuen egun batzuk lehenago eta ez nekien nolako jaitziera egiteko gai izango nintzen. Bigarren sailkatu nintzen eta Europako txapelke-

tarako txartela eman zidan postu horrek. Asko poztu nintzen", dio piraguista bergararrak. Segre ibaian lehiatu zen 150 piraguis-tekin. Tartean egon ziren Londresko Joko Olinpikoetan egondako Maialen Chourraut, Ander Elosegi eta Samu Hernanz. Beti Bustiko hiru ordezkari egon ziren Espainiako Txapelketan, eta hirurak sailkatu ziren finalerako. Patxi Ugaldek lortutako zilarrezko dominaz gain, Aritz Gimbert 16. sailkatu zen gazte mailan. Aldiz, beteranoetan, Kuxi Gallastegi bederatzigarrena izan zen.

Beste bi katalanekin batera

Zapatuan hartu zuen Patxi Ugaldek Esloveniara heltzeko hegazkina. Donostiatik Bartzelonara lehenengo, handik Venezuelara eta Esloveniara gero. Txapelketa etzi,

hilak 5, hasiko da, eta bitartean entrenamenduak egingo ditu Espainiako selekzioarekin. "Guztira 27 goaz eta nire kategorian, K-1en, hiru, bi kataluniar eta ni. Hirurok hartuko dugu parte *patrulla*-ko, taldeko, txapelketan. Hori 7an izango da. 5ean neskek eta kanoek hartuko dute parte, 6an mutilek, eta 8an finalak izango dira", kontatu du Ugaldek.

Europako txapelketan, bizpahiru metroko luzera duen jaitziera egin beharko du: "Ez da jaitziera soila, ur korrente bizian egindako zirkuitu bat da". Duela bi urte Europako eta munduko txapelketetan hartu zuen parte Ugaldek, eta sekulako maila dagoela aitortu du. Eslovenian, Espainiak Joko Olinpikoetan erabili dituen jantziak erabiliko ditu uretako probetarako.

Soraluze-Bergara krosa, Euskal Herriko txapelketa

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Aurtengo Soraluze-Bergara krosa Euskal Herriko txapelketa izango da. Azaroaren 3an izango da lasterketa.

Antxintxiketan taldekoek 10.000 metroko ibilaldia zehaztu dute, eta distantzia horren gaineko Euskal Herriko kros txapelketa izango da azaroaren 3koa. Distantzia bera egingo dute disziplina guztietan: patinetan, bizikleta gainean etzanda doazenak (hand bike) eta gurpil-aulkietan doazenak.

Soraluze-Bergara krosaren zortzigarren edizioa erronka berri bat izango da antolatzaileendako. 10 kilometroko proba ofiziala izanik parte-hartzea mugatu egin beharko dute:

gehienez 700 korrikalari onartuko dituzte. Urrian zabalduko dute izena emateko epea.

Gazteendako ibilbidea

Gazteendako artean atletismoa bultzatzeko helburuarekin, 8-12 urte artekoendako lasterketak egingo dituzte egun berean erdiguneko zirkuito batean, orain arte egin izan duten moduan.

Behobia-Donostiaren atarian

2005ean egin zuten lehen Soraluze-Bergara krosa. Behobia-Donostia herri lasterketaren aurreko aste bukaeran egingo da. Askok 21 kilometroko lasterketa herrikoia prestatzeko erabili izan dute.



Azken Soraluze-Bergara lasterketako bi korrikalari. | JULIO CALLEJA

Jabier Herrero artista audioarraren erakusketa Aroztegin

'Bernardo Soaresen mitoa' izeneko bildumaren barruko eskultura eta pinturak dira

O.E. | BERGARA

Artista arabarrak *Bernardo Soaresen mitoa* izeneko eskultura eta pintura erakusketa zabaldu zuen abuztuko azken egunean Aroztegi aretoan.

Jabier Herrero grabatu ikasketak Debako Arte Eskolan, Donostiako Artelekun, Betanzoseko CIECen eta Bilboarte zentroan egin zituen. Grabatuan, eskulturan eta pinturan garatu du bere lana. Figuraren inguru irudikapen oso pertsonala du.

Hilaren 16ra arte

Erakusketa irailaren 16ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta

domeka eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Irailaren 21ean, berriz, Zalao Fuertes argazki erakusketa zabalduko dute Aroztegin bertan, urriaren 7ra arte.



Erakusketako artelan bat. | UDALA

TXALOAK ETA TXISTUAK



OIHANA ELORTZA

Gerizpetan dauden eserlekuak

Uda hasieran jarri zituzten eserlekuak Labegarrietako kiroldegiairen kontra, bidegorrian, eta ederki aprobetxatu dituzte herritarrek udan. Zuhaitzen azpian daude eserlekuak, eta batek baino gehiagok aprobetxatu du gerizpea abuztuan.



Udaletxeko beheko solairuak egun duen itxura, berrantolatu ostean. | MIREIA BIKUÑA

Plazatik sartu behar da orain udal bulegoetara

Udaletxeko beheko solairua berrantolatu egin dute eta gaurtik aurrera plazatik dute sarrera berria

M.B./O.E. | OÑATI

Udaletxearen beheko solairua berrantolatu egin dute, eta irailaren 3tik, gaurtik, herritarrek, arkupean dagoen sarrera erabili beharko dute, orain arte atzeko atetik sartuta egiten zituzten gestio berdinak egiteko. Sartu eta eskuinetara dagoen atean dago harrera zerbitzua. Aldaketa horiek egin dituzte "herritarrei zerbitzu hobea" emateko.

Oñatiko udal langileen artean sortu den Herritarren Asebetetze Taldea izan da proposamena garatu eta exekutatzeko ardura dena. Taldean jarritako helburuak hobeto betetzeko, bulegoetan espazio aldaketak proposatu zituzten. Aldaketekin herritarrek errazagoa izango dute igogailurako sarrera, udal eraikinaren irisgarritasun irizpideak hobeto beteaz.

Beste aldaketa batzuk

Orain egin duten berrantolaketak espazioari eta irisgarritasunari erantzun dio. Baina Herritarren Asebetetze Taldeak beste zerbitzu batzuk hobetzeko azterketak egiten dihardu. Epe laburrean zerbitzuaren funtzio eta ordutegiaren inguruan aldaketa gehiago iragarriko ditu, eta herritarren eskura jarriko.

Ordutegiak, lehengora

Bestalde, udal zerbitzuen ordutegirak lehengora bueltatu dira. Udako ordutegia bukatu eta ohiko ordutegia dute dagoeneko udal zerbitzuek. Udaletxea, esaterako, 09:00etatik 14:00etara dago zabalik astebarruan eta 09:00etatik 13:00etara zapatuetan. Sarrera, kontzejupetik.

Zubikoa kiroldegia ere ohiko ordutegira bueltatu da. Horrela, gaurtik, zabalik egongo da astelehenetan ere. Aste barruan 07:30etik 21:30era dago zabalik, zapatuetan 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era eta domeketan, 09:00etatik 14:00etara.

Bestalde, haur liburutegia ere zabalik da berriro, 16:30etik 19:30era. Liburutegi nagusia, berriz, goiz eta arratsaldez dago zabalik aste barruan, eta 09:00etatik 13:30era zapatuetan.

Fitness eta gimnasia zerbitzuen izenematea gaur zabalduko dute

Denboraldi berrian Zubikoan eskainiko dituzten fitness eta gimnasia zerbitzuetako izenematea zabalduko dute gaur, hilak 3. Irailaren 14a arte egongo da aukera lehorreko zerbitzuetan izena emateko. Eskolak 17an hasiko dituzte. Ur ekin-tzetan apuntatzeko epea, berriz, 10etik 14ra da. Bestalde, irailaren 10eko astean ate irekiak egingo dituzte Zubikoan, gura duenak gura duen kirola probatzeko.

Etzi, hilak 5, da eguna heterano txapelketan apuntatzeko

2012-13 denboraldian parte hartu gura duten taldeek Aloñaren egoitzara joan beharko dute, irailaren 5ean, 19:00etatik 19:30era. Jokalarien NAREN fotokopiak (gutxienez 15 jokalaria eta gehienez 25) eta fidantzarako dirua eroan beharko dute (250 euro). Herriko futbol txapelketa jaien ondoren hasiko dute. Bestalde, San Migeletako zarpiko futbol txapelketako izenematea egun berean da.

Bihar hasiko dituzte danborrada txikiko entseguak

Irailaren 4an, 6an, 11n, 13an eta 18an egingo dituzte haurren danborradako entsegu orokorrak. Danborrero, barrilero, kantinera, sukaldari eta iñude jantziak ere egun horietan banatuko dituzte, hurrenez hurren. Arropak urriaren 11n bueltatu beharko dituzte. Bestalde, nagusien danborradako entseguak hilaren 18an hasiko dituzte eta dantzarietak etzi, Txantxiku ikastolako patioan. Dantzari eta danbor jotzaileen zozketak bihar egingo dituzte Errekalden.

50 euro txantxikuak topatzen dituztenendako

Urriaren 31ra arte iraungo du zabalik Txandak bigarren urtez antolatu duen jolasak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bigarren egungo dute Oñatiko Txanda dendarien elkartearen Txantxikuaren bila jolasa. Iazko arrakastaren ondoren, bi hilabetez ipiniko dute txantxiku dendarik denda: irailaren 1etik urriaren 31ra arte.

Erosketa-bonoa

Txandako txantxiku egunero saltoka ibiliko da elkarteko kide direnen negozioetan. Erosketak egitera joan eta txantxikuarekin

topo egiten dutenek 50 euroko saria irabaziko dute. Erosketa-bono hori izango da Txandako dendetan gastatzeko.

Edozein tokitan

Txandaren txantxiku edozein tokitan egon daiteke: erakuslehoian zein denda barruan eta Txandako edozein dendatan: San Lorentzon, Bidebarrietan, Kale Zaharrea, Mendiko kalean, Kale Barrian, Portu kalean ... Parte hartu eta zorte on.



Altuna estankoarean aurrekaldean ere jarri dute lehiaketako kartela. | O.E.

OHARRAK

1972KOEN KINTADA

Irailaren 8an kintada egingo dute 1972an jaiotakoek. Luis tabernan elkartuko dira 12:00etan. 12:30ean hildako kintoen aldeko meza izango dute Agustinoetan eta ondoren bazkaria Etxe Aundi jatetxean. Joan gura duenak 50 euro ingresatu behar ditu Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0005 30 0051046961. Izena emateko azken eguna bihar da.

GARATE ETA BARRENETXEA ZABALIK

Udako ordutegiaren barruan, Garate eta Barrenetxea farmaziak daude zabalik hilaren 15era arte. Irailaren 17tik aurrera lau farmaziak egongo dira zabalik, egunaz.

ARETXABALETAKO

Ibarra kiroldegia ofizialki dago zabalik gaurtik

Joan den astean ate irekiak egin zituzten eta herritar mordoak estreinatu zituen igerilekuak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Ibarra kiroldegia zabaldu dute irailarekin batera eta ohiko ordutegia dauka gaurtik: astelehentik egubakoitzera, 08:00-21:30; zapatuetan, 08:30-14:00 eta 16:00-20:00; eta domeka eta jai eguntan, 09:00-14:00. Aretxabaletarrak lau urtean zain egon ondoren kiroldegi dotorea estreinatuko dute.

Gela guztiak hornituta

Joan den astean zabaldu zituzten Ibarra areak, eta datozen 10 urteotan kiroldegia kudeatuko

duen enpresak -LKS, Athlon eta Ondoan hirukoak- aretxabaletar guztiei eman gura izan zien aukera instalakuntzak ezagutu eta erabiltzeko; baita herritarrek erabili ere, batez ere igerilekua eta spa gunea.

Dagoeneko gela guztiak daude hornituta, baita gimnasioak ere ekipamendu modernoarekin. Instalakuntza horiek behar bezala funtzionatzen dutela frogak egiteko aprobetxatu zuten joan den asteko ate irekiak, eta poliki-poliki dagokien martxa hartzen doaz guztiak.



Gaztetxoak kiroldegiko kantxan jolasean eguen goizean. | M.A.

Oraingoz inauguratzerik ez

Abonatze kanpaina, ostera, uztailetik dago abian, eta joan den asteko ate irekiekin batera eskerra asko dabilta jasotzen. Hala, Ibarra kiroldegia jakinarazi dute dagoeneko iritsi direla 500 abonatuetara. Horiek igerilekurako txanoa jasoko dute oparizat egunotan.

Argibideen eta tarifen berri jakin gura duenak kiroldegira jo dezala -943 03 98 42 eta info@ibarrakiroldegia.com-. Bestalde, inauguratze ekitaldirik oraingoz ez dela egingo jakinarazi dute, urrirako iragarritako hauteskundeak direla-eta. Ondoren, urri bukaeran edo azaroan, izango da inauguratzea.

Areantzako jaiak datoz aste bukaeran

Berrikuntzen artean Mendiolakoen aurkako futbol partidua dago, zapatuan

M.A. | ARETXABALETAKO

Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoan egubakoitzean hasi eta domekara bitartean. Urtero legez, auzo afaria, meza nagusia, Kurtzebarri mendira irteera eta jolas mordoak egingo dituzte: jinkana, aro-sartze txapelketa... Aurten, gainera, badute berrikuntza bat, Mendio-

la auzokoen (Eskoriatza) aurkako futbol partidua; zapatuan izango da (18:00), Itturriko soroan.

Partiduko arauak zehaztuta

60 bat urte pasatu eta gero bi auzokoen artean jokatutako partiduei heltzea bururatu zaie areantzareki eta baita erronkari

erantzun ere mendiolarrek. Orduerdiko bi zati izango dituen partidua antolatu dute, eta arauak dagoeneko zehaztu dituzte: zapiak partidua, gura beste aldaketa egiteko aukerarekin; jokoz kanporik ez da egongo; eta atek 2x4 metroko neurria izango du.

Epaile lanak Goroeta auzoko Iker Urkiak egingo ditu, eta aurrez

erabaki dute berdinketa egonez gero luzapena jokatu barik penaltietan erabakiko dutela txapelketa zein den. Talde irabazleak garaikurra jasoko du sarritzat, baina jokalaririk guztiek izango dutela oroigarria jakinarazi dute.

Irabazi edo galdu adiskide direla guztiak diote antolatzaileek, eta urtero legez areantzareki Kurtzebarri mendiko egunean, irailak 9, atera izan duten argazkian Mendiolakoen izango dituzte lagun aurten.

Udalbatzako kideak eta herritarrek Arantzazura doaz gaur

Gaur, irailko lehen astelehena, eta ohiturari jarraituz Arantzazura joango dira erromes herritarrek eta udalbatzako kideak. Gehienak autobusetan eta automobiletan hurreratuko dira, baina oinez joateko asmoa ere badute batzuek. Meza entzungo dute santutegian, eta ondoren, gehienak bazkaltzera geratuko dira.

Jabier Muguruzaren eta Mikel Azpirozaren kontzertua

Egubakoitzean, irailak 7, kontzertua eskainiko du Jabier Muguruzak Mikel Azpiroz lagun duela pianoan (22:00) Arkupen; prezioa, 4 euro. 20 urteko ibilbidea duen musikari irundarrak azken disko-lanak eskainiko ditu.

Era berean, gaur zabalduko dute erakusketa aretoa pintura ikastaroko ikasleen lanekin. Hilabete guztian egongo dira ikusgai.

Domekan bataiatuko dituzten umeen gurasoen batzarra

Domekan, irailak 9, bataiosakramentua ospatuko dute Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren. Egun horretan bataiatu gura dituzten umeen gurasoen batzarra daukate aurretik, egunean, hilak 6, hain zuzen (18:30). Parrokia-ko lokaletan elkartuko dira guraso horiek ospakizuna gertatzeko.

ESKORIATZA

Udako argazki lehiaketara aurkezteko azken egunak

Egubakoitzera arte bidali daitezke, Ibarraundira

M.A. | ESKORIATZA

Ibarraundi museoa I. Udako Argazkien Lehiaketa antolatu du eta aurkezteko epea irailaren 7an, egubakoitzean itxiko du. Dagoeneko hainbat jaso dituztela iragarri dute arduradunek, 12 inguru, baina abuztuan herritarrek argazki asko aterako zituztelakoan gehiago aurkeztera animatu gura dituzte. Horretarako posta elektronikoki bidez Ibarraundira bidali besterik ez dago: ibarraundi@eskoriatza.net.

Erakusketa argazkiekin

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez bi argazki aurkez ditzakeela gogorarazi dute, eta harekin batera norberaren datuak bidali behar dituzte kontaktua; adina; eta argazkiaren izenburua. Baldintza bi bakarrik bete behar dira: eskoria-

tzarra izatea egilea eta aurkeztutako argazkiok beste inon argitaratu gabeak izatea.

Jasotako argazki guztien artean 30 aukeratuko dituzte antolatzaileak, eta erakusketa egin gero museoan bertan, irailaren 17tik 28ra bitartean (biak barne). Gainera, erakusketara doazen bisitariek botoa emateko aukera izango dute bertan; facebook eta webgunearen bitartez -www.eskoriatza.net- ere egongo da aukera horretarako.

Ibarraundik lehenengoz antolatutako lehiaketa honetako argazki onenek urriaren 2an, martitzena, jasoko dute saria, bertako produktuekin osatutako otarra, hain zuzen. Eta hiru irabazle egongo dira adinaren arabera banatuta: 15 urtera artekoa; 16 eta 49 urte bitartekoa; eta 50 urtetik gorakoa.

1962an jaiotakoek bazkaria egingo dute irailaren 29an

1962an jaiotako eskoriatzarrek bazkaria egingo dute irailaren 29an. Interesatuek izena eman behar dute irailaren 19a baino lehen, kontu korronte honetan 50 euro sartuta (izena eta abizena adierazita): Kutxa 2101 0038 50 0013056452. Argibide gehiagorako Edorta edo Aintzanerengana jo.

Galiziarra joateko izenematea irailaren 13a arte zabalik dago

Olazar erretiratuen elkarteak Galiziarra irteera antolatu du udazkenerako. Urrian izango da hori, 1etik 7ra bitartean, baina izena emateko azken egunak iritsi direla gogorazi gura dute. Interesatuek eta argibideak gura dituztenek Olazar jubilatuen etxeko bulegora jo dezatela irailaren 13a baino lehen (11:00-12:30). Prezioa 290 euro da.



ARETXABALETAKO

M.A.

Hawaitik Aretxabaleta ezagutzera

Euskal Herria ezagutzen dabil Hawain bizi den bikotea eta Aretxabaletaren berri izan dute. Gizonaren abizena Archuleta da -Colorado estatuan jaioa- eta bi izenok antzekoak direla pentsatuta bertaraino etorri ziren egubakoitzean, gure parajeak ezagutzera. Klean bueltatxo bat eman -Aretxabaleta izena duen kamiseta erosteko asmoarekin- eta ondoren Urkulu aldera jo zuten.



Elgetako txirrindularien bazkarirako elkartutako lagun koadrila. | LZ

ELGETA

Urteroko txirrindulari ohien bazkarian 50 bat lagun elkartu dira aurten Elgetan

Intxorta elkartean egin zuten bazkaria eguenean; tartean ziren Julian Gorospe, Alberto Leanizbarrutia eta Juan Fernandez txirrindulari ohiak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako txirrindulari elkarteak desaginduta dago dagoeneko, baina taldean lanean ibilitakoek urteroko bazkaria antolatzen jarraitzen dute. Emilio Mandaluniz, Jose Antonio Irazabal eta konpainiak abuztuko azken asterako prestatu ohi zuten bazkaria, eta aurten ere ez dute hutsik egin. "Aurten Espainiako itzuliaren atsedean egunean egitea proposatu genuen modu horretara Txomin Perurena eta gainerakoak etorri ahal izateko, baina esan ziguten komunikabideetan ez dutela atsedetik egiten, eta eguna mantendu egin dugu azkenean".

Eguenean, abuztuak 30, talde ederra elkartu zen Elgetan, txirrindulari ohiak 30 bat. Lagun arteko bazkaria izan ohi da, eta belaunaldi ezberdinetako txirrindulariak elkartzen dira bertan.

Eguerdian parte hartu zuten hitzordua, eta trago batzuk jo ostean taldeko argazkia —goian ikusgai— ateratu zuten Andra Mari plazan. Bazkaria, urteetan moduan, Intxorta elkartean egin zuten.

Aurpegi ezagunak

Julian Gorospe izan zen egueneko bazkarian aurpegi ezagunetako bat. Mahaiaren bueltan izan ziren baita ere Alberto Leanizbarrutia, Imanol Murga, Jose Luis Uribe Zubia, Juan Mari Uribe Zubia, Antonio Ferraz, Andres Gandarias, Paco Galdos, Jose Ramon Goienetxe, Benigno Azpuru, Fausto Iza, Jokin Mujika, Oskar Elgezabal, Juan Fernandez, Gregorio San Miguel, Miguel Bengoa, Santi Aiastui, Imanol Murga, Carlos Etxeberria edo Anton Barrutia, besteak beste.

Eibarko txirrindulari elkarteak zuzendaritza batzordeko hiru ordezkari ere Elgetan izan ziren.

Anekdotak zaharrak gogoan

Bazkalostean, nola ez, Espainiako itzuliko etaparen amaiera ikusi zuten elkarrekin, eta nork bere pronostikoa ere botatu zuen. Purito Rodriguez, Alberto Contador eta Christopher Froome dira txirrindulari ohiak artean ere faboritoak. Eta nola ez, aspaldiko karrerak izan zituzten gogoan; anekdota zaharrak gogora ekartzeko aukera ematen du bazkariak.

80 urtetik gora dituen Antonio Ferrazek oparia ere ekarri zuen. *El ciclista del pañuelo* izeneko liburua oparitu zien Elgetako antolatzaileei. Hurrengo bazkaria Durangon egingo dute, urrian.

LEINTZ GATZAGA

Egitaraua gertu dela Andramaixak noiz hasiko zain daude herritarrak

Zapatuan egingo duten herri bazkarirako txartelak salgai dauzkate Labidean eguna arte

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean hasiko dituzte Andramari jaiak gatzagarrek eta egitarauari erreparatuta jai dotoreak dituzte aurrez aurre. Kultura Sailak herritarrekin batera gertatu ditu herriko jai nagusiak azken urteotan legez, eta egoera ekonomikoa zaila izan arren adin tarte guztietarako eta gustu guz-

tiak asetzeko moduko ekitaldiak elkartzen ahalegindu dira.

Reggae eta mariatxiak

Iaz baino bi egun gutxiago dituzte jaiak eta aste bukaeran izango dira ekitaldiak. Egubakoitzean, bezpera, hutsik egiten ez duten bi hitzordu garrantzitsu izango dira: amabirjinaren bederatziu-

rrena Dorletako santutegian eta ondoren mokadutxoak; eta rock kontzertuak, bost talderekin.

Zapatuan, osteran, bada berrikuntzarik: herri bazkaria —azken urteotan afaria egin da—. Oraindik txartelak salgai dituzte Labidea dendan eguna artean. Horrekin batera Otxandio koei ongietorria, meza nagusia, mus eta bolo txapelketak, umeendako jolasak eta reggae kontzertua izango dira.

Eta domeka kirolak eta musika girotuko dute. Batetik, mendi bizikleta ibilaldia eta pilota partiduak izango dira, eta bestetik, mariatxi eta batukada doinuak jaiak agurtzeko.

ARAMAIO

2013ko Arabako bertsolari txapelketa, irailaren 9tik aurrera

Sei aurre-kanporaketa jokatu dira txapelketan zeintzuk parte hartuko duten erabakitzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2013ko urtarrilaren 19an hasiko da Arabako bertsolari txapelketa eta dagoeneko baieztatu daiteke inoizko parte hartzerik altuena izango duela. 52 bertsolarik gura dute parte hartu baina 30 pasako dira. Horretarako sei aurre-kanporaketa jokatu dira iraileko lehen hiru aste bukaeretan; 34 bertsolarik jokatu dituzte kanporaketok eta horietatik 12 bakarrik pasako dira.

Izan ere, 2011ko txapelketan finalerdietara sailkatu ziren bertsolariek zuzenean hartuko dute parte 2013koan. Aramaioarrei dagokienez, zuzenean sailkatu dira Manex Agirre —2011ko txapelketa—, Andere Arrio-

labengoa eta Xabi Igoa. Baina ziur ez direla aramaioar bakarrik izango, izan ere, aurre-kanporaketak jokatu beharko dituztenak ere indartsu dotoz: Paula Amilburu, Maria Izaga, Iker Agirre, Beñat Zalakain, Beñat Burgi eta Sabin Aranburu, hain justu.

Bide luzea finalerako

Esandako moduan, 2013ko txapelketaren aurkezpena urtarrilaren 19an izango da. Kanporaketak, berriz, urtarrilaren 25, 27 eta otsailaren 1, 2 eta 3an. Finalerdiak, otsailaren 16 eta 23an eta martxoaren 2an. Final handia, azkenik, martxoaren 16an jokatu da, Gasteizko Printzipal antzokian.



Manex Agirre 2011koan. 2013an txapela defendatzea tokatuko zaio. | GOIENA

ANTZUOLA

Zapatuko Elkartasun Festan parte hartzeko dei egin du Anelkarrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Anelkarrek, Afrikarekin duen senidetasuna berretsiz, Elkartasun Festa antolatu du zapatuko. "Helburua da herritarrek parte hartzea; eta horretarako tortilla bat ekar dezakete 18:30erako Zurrategira", azaldu digu Anelkarko kide Jabi Etxanizek.

Izan ere, Kongon eta Senegalaren elkartasun proiektuak abiatu dituzte; Kongoko Kapi-ri herriari iturriak eta garbitokia eraikitzen dihardute; Senegalgo Djimbering herrian, aldiz, maternitate eta hezkuntza lanekin segitzeko asmoa dute.

Hala, elkartasun gisa, 20:45etik 22:15era bitartean, Zurrategi plazan afaria izango da —bi pintxo erraldoi, edaria, kafea eta pasta— 7 euroren truke.

Ondoren, Torresoroan, 22:30ean, Virginia Imazen eskutik *Encantadas* antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da. Sarrerak salgai daude Itzar liburu-dendan, 8 euroren truke.

Batzen den dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuak bultzatzeko izango da.

Finalista Eguna domekan

Arrola mendi taldeak antolatuta, Karakatetik Trekutzerainoko ibilbidea osatuko dute parte-hartzaileek, eta gura duenak bazkaltzeko aukera izango du Gaztelugainen. Hilaren 9an, domekan, izango da; 09:00etan da irteera ordua.

Izena emateko bi bide daude: Orlaranen 19:00etatik 20:00etara bitartean edo 664 272 519 telefono zenbakira deituta. Gaur, hilak 3, da azken eguna.

SARI NAGUSIA



Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
Bidali KLUBA TELEBISTA
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

OKI V19B-LED4 telebista

- LCD monitorea, 19 hazbetekoa
- Bereizmena: 1366 x 768 pixel.
- HD ready
- HDMI eta USB sarrera bat
- LTD, bereizmen handikoa



SARRERAK

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA ikusteko gonbidapenak.
Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko. Pertsona bakoitzendako bi gonbidapen.

PARTE HARTZEKO:
Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia] zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com



Atera etekina

goienakluba 2012

%50

eko deskontua

gahir fisioterapia osteopatia
GAHIR
FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza,
943 71 43 41

•%50eko deskontua
lehenengo kontsultan.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIENDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

EUREKA!
zientzia museoa
EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentruak
GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER
SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

IZENADUBA BASOA
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61

JAIXAK
disfrutatze oparixak
JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

LASTAI
haurtzaintza eta atsedeen gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

MULTIOPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan
MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergararentzat herriko torneoa, Aretxabaletari 3 eta 0 irabazita

- ▶ Bergarak gol-aukera gehiago izan zituen partiduan
- ▶ Neka Galan kaleratu zuen epaileak bigarren zatian

USOA AGIRRE | BERGARA

Bergarak eta Aretxabaletak jokatu zuten atzo, domeka, Bergara Hiria torneoko finala. Egubakoi-tzean Bergarak eta Urolak jokatu zuten lehen finalerdia eta 0-0 egin ostean, penaltietan Bergarak lortu zuen finalerako txartela. Zapatuan Aretxabaletak eta Mondrak jokatu zuten bigarren finalerdia eta 1-1 egin zuten partiduan; penaltietan Aretxabaletak lortu zuen finalerako txartela.

Domekako finaleko lehen zatian oso aukera gutxi sortu zituzten Bergarak eta Aretxabaletak eta geldikako jokaldi batean lortu zuen Bergarak lehen gola. Lehen zatiko 34. minutuan falta bat erdiratu eta Jon Linazisorok

buruz igo zuen Bergararen lehen puntua markagailura.

Bergarak aukera gehiago

Bigarren zatian Bergarak aukera gehiago sortu zituen Aretxabaletak baino. Bosgarren minutuan epaileak Neka Galan Bergarako entrenatzailea kaleratu zuen eta harmailetatik jarraitu behar izan zuen Galanek bigarren ia zati osoa. Hala ere, taldeak aukera ugari sortu eta bi gol egin zituen. Bergarakoen bigarren gola bigarren zatiko 10. minutuan etorri zen, hori ere falta baten sakearen ondorioz egin zuen Xabi Urrutiak. Hirugarren gola, berriz, Iñigo Machok egin zuen; sakonean pase bat egin zioten eta Aretxa-

baletako defentsaren aurrean bakar-bakarrik zela egin zuen gola 13. minutuan.

Hirugarren goletik aurrera Bergara nagusi izan zen zelaian eta aukera gutxi izan zituen Aretxabaletak. Aukera garbiena 26. minutuan izan zuen Aretxabaletak, falta baten ostean.

Bukaeran, beraz, Bergara izan zen nagusi, 3 eta 0 emaitzarekin.

Arrasate Hiria asteburuan

Ohorezko Erregional mailako txapelketa irailaren 16an hasiko da eta datorren aste bukaeran denboraldi-aurreko beste txapelketa bat jokatu dute ibarreko taldeek: Arrasate Hiria.



Bergara eta Aretxabaletako jokalarri bana, baloiaren jabetzarako borrokan. | JULIO CALLEJA



Jose Luis Agirreraren alarguna eta semeak oroigarriak jasotzen. | JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Jose Luis Agirre zena omendu zuten, Azkoagainen

Zendu zenetik urtero egin dio Aloñak omenaldi sentitua; geroko partidua irabazi egin zuen taldeak

MIREN ARREGI | OÑATI

Urte askotan zehar Aloña Mendi futbol taldeko presidente izan zen Jose Luis Agirre zena omendu zuten atzo Azkoagainen. Eta zer hobeto haren bihotzeko taldeak bere omenezko partidu bat jokatzea baino!. Arratsaldeko 17:00etan Agirre zenaren bi semeei eta emazteari oroigarri bana banatu zieten. Modu horretan, jakina den zerbait berretsi zuten; alegia, Jose Luis Agirre oso maitatua izan zela eta dela. Duela hiru urte hil

zen Agirre eta ordutik urtero egin diote omenaldi xumea presidente ohiari.

Denboraldirako gertu

Omenaldiaren ondoren Aloña Mendik Bakioren kontra jokatu zuen aurrendenboraldiko partidu honek, balio izan zuen berehalakoan hasiko den denboraldiari begira ipintzeko. "Entrenamenduetan lantzen ditugun kontzeptuak eta abar zenbateraino barneratu diren eta horiek balio duten

MENDI BIZIKLETA | Mountain Bike eta Enduro martxa Aretxabaletan | 24



Begararen hamaikakoa, egubakoitzeko partidua baino lehen. | JULIO CALLEJA



Aretxabaletaren hamaikakoa, zapatuko partidurako prest. | JULIO CALLEJA



Mondraren hamaikakoa zapatuan, partidua hasi baino lehen. | JULIO CALLEJA

ala ez ikusteko oso garrantzitsua izan da gaurko partidua" zioen Aloñako entrenatzaile Andoni Azkargotak partiduaren bukaeran. Gaineratu zuen, ez zirela gaizki jardun eta nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko, taldea nahiko txukun ikusi zuela.

Izan ere aldaketa handiak egon dira taldean. Zazpi jokalaririk joan egin dira eta gazte mailatik bederatzirik sartu dira taldera. Noski, aldaketa horiek guztiek lan handia eskatzen dute talde bat berriz ere egonkortuko bada.

3 eta 0, garaille

Entrenatzailearen hitzetan, freskotasuna falta izan zen partiduan, baina hala ere, oñatiarrek jakin zuten euren atea zaintzen. Hori bakarrik ez, arerioaren atean, hiru gol egitea ere lortu baitzuten.



Aloñako entrenatzaile Azkargotak zelairatu zuen hamaikakoa. | JULIO CALLEJA

MTB ETA ENDURO MARTXAK

Parte-hartzaile asko, teknikoki gogorra zen proba baten

- ▶ Hirugarren urtez antolatu dute MTB martxa
- ▶ Enduro martxa ere egin zuten; are zailagoa teknikoki
- ▶ Antolatzaileak pozik, parte-hartzaile kopuruarekin

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Duela bi urte antolatu zuen lehenengoz Dorletako Ama txirindulari eskolak Aretxabale-tako mendi bizikleta martxa. Orduko esperientziak baliatuta, iaz bigarrena antolatu zuten eta berrikuntzekin etorri zen gainera: hala, mendi martxaz gain, Enduro martxa ere antolatu zuten. Halaxe egin zuten atzo ere eta guztira 202 lagunek hasi eta bukatu zuten ibilbidea. Kopuru polita, antolatzaile Markel Uriarteren esanetan: "Teknikoki nahiko proba zaila da eta horregatik, ez genuen espero horrenbeste jendek parte hartuko zuenik". Aurten, gainera, zaildu egin dute ibilbidea. "Iaz jendeak bide-zidorrak bota zituen faltan eta hori horrela, aurten, ibilbideari goranzko bidexkak gehitzea erabaki dugu. Horrek teknikoki zaildu egin du zirkuitua eta fisikoki ere esfortzu gehiago eskatu die txirindulariei. Dena den, oso pozik gaude lasterketak eman duenarekin". Gaineratu zuen Uriartek.

DATUA

202

PARTE-HARTZAILE

Horietatik 66k Enduro proban hartu zuten parte, gainontzeko guztiek, berriz, Mountain Bike Martxan.

Lau ibilbide, lau martxa

Kategoriak bi ziren, ibilbideak, berriz, lau. Alegia, mendi bizikleta kategoriaren baitan, zirkuitu luzearen (34 kilometro) edo motzaren (25 kilometro) artean aukeratu behar zuten parte-hartzaileek. Berdin Enduron ere; luzeak 24 kilometro zituen, motzak, aldiz, 20. 202 parte hartzailetik 136k martxa normala egin zuten, 66k, berriz, enduro martxa. Zirkuituak toki askotan elkartu egiten baziren ere, Enduro, nola ez, askoz gogorragoa zen teknikoki. Are-

txabaletako plazan hasi zuten ibilbidea. Handik, Mendiolara, gero Kurtzebarri azpitik Aretzara eta handik Urrexolara egin zuten. Urkuluko araztegitik, Aretxabale-tako plazarako bidea hartu zuten parte hartzaileek. Lehenak, 12:00ak aldera iritsi ziren, azkenak, 14:30ak inguruan.

Debagoienetik eta kanpotik

Aretxabale-tatik 30 lagunek hartu zuten parte; oñatiarrak, bergararrak, arrasatearrak edo eskoria-tzarrak ez ziren falta izan. Kanpotik ere etorri ziren; Zarautzik, Donostiatik, Bilbotik edota Burgostik. Baita, Holandatik ere.

Espainiako txapeldunak tartean

Parte hartzaileen artean bazeuden martxatan ohikoak direnak eta lasterketatan lehen postuetan dihardutenak ere bai: esaterako, Iraitz Etxebarria mungiarra, 23 urtez azpiko 2011ko Espainiako txapelduna, edota Daniel Olarra, jaitsierako 2012ko Espainiako txapelduna, Gorlizkoa azken hori.



Goizean, Aretxabale-tako plazan, txirindulariak ibilbideari ekiten. | JULIO CALLEJA



Parte-hartzaileak izena ematen. | JULIO CALLEJA



IÑIGO BITERI
ESKORIATZA

"Asko gustatu zait ibilbidea. Gainera, oso ondo markatuta zegoen. Hori bakarrik ez, jan eta edateko guneak ere bikain zeuden prestatuta. Martxa asko egin ditut, baina hemen lehen aldian izan da".



JOKIN AGIRREZABALAGA
ZARAUTZ

"Bizikleta martxa egongo zela entzun eta etorri egin gara. Enduro proban parte hartu dut eta asko gustatu zait. Proba gogorra bazen ere, paraje eta bide-zidorrak gozatzeak merezi izan du".



ASIER URZELAI ETA IBAN OLALDE
ESKORIATZA

"Mountain bike martxa luzea egitea zen gure asmoa baina bizikletarekin arazotxo bat izan dugu eta jaitsi egin behar izan gara. Ez dugu, beraz, ibilbidea bukatu; dena den, egin dugun zirkuituaren zatia nahiko zaila iruditu zaigu. Bustita zegoen eta horrek zakartu egin du bidea. Dena den merezi izan du, eguraldi ederraz eta pintxo gozoz gozatu dugu".



XABAT ARRATE ETA URKO PAGOAGA
MARKINA-XEMEIN

"Bizikleta martxa luzean hartu dugu parte, 34 kilometrokoan. Ederra, zoragarria izan da. Ez zaigu gogorra egin, paisaia ederraz disfrutatzea ederra izan da. Gehien gehien gustatu zaizkigu jaitsierak. Oso jaitsiera gogorak eta era berean ederrak zituen ibilbideak; asko disfrutatu dugu horietan. Ea datorren urtean hemen egoterik dugun".



Jokin Etxabe, Sumofic-Igartua taldeko txirrindularia, denboraldiko lasterketa batean. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Jokin Etxabe: "Denboraldi erregularra egiten ari gara; bai ni eta baita taldea ere"

Espainiako Txapelketan izan zen duela astebete Euskadiko selekzioarekin; 18. postua lortu zuen

USOA AGIRRE | ARRASATE

Txirrindularitzako denboraldia bukatzen ari da eta aurtengoaren balantze positiboa egin digu Jokin Etxabe Lokatza Ziklismo Eskolako Sumofic-Igartua taldeko bergararrak. Denboraldi hasieran bazirudien Mikel Aristi, Eneko Lizarralde eta Hodei Orobengoa afizionatuetara joan izanak hutsune handia lagako zuela taldean, baina gazteek erakutsi dute badutela indarra eta aurrean ibili dira: "Taldea oso ondo ibili da aurtun eta oso ondo erantzun du momentu zailetan, nahiz eta batzuetan ezin izan dugun errematatu taldeak egindako lan ona", esan digu Etxabek. Aurtengo lasterketen artean, Gipuzkoako Itzulian

jokatutako gogorrena azpimarratu digu: "Taldeak lan ona egin eta gero anaiak eta biok apurtu egin genuen lasterketa eta oso emaitza ona lortu genuen Caja Rural moduko talde baten aurrean; anaiak lehenengo eta nik bigarren bukatu genuen etapa".

Espainiako Txapelketa

Abuztuko azken aste bukaeran jokatu zen Espainiako txapelketa Kantabrian eta bertan izan zen Jokin Etxabe Euskadiko selekzioarekin batera. Lehenengo 15en artean ibili ziren taldekideak mendateetan gora eta behera, baina lautada batean lasterketa zatitu eta bigarren taldean sartu zen Etxabe, 18.

postuan bukatu zuelarik. Oso esperientzia ona izan dela esan digu: "Selekzioan lan handia egin zuen Espainiako txapelketan eta taldeko zortzi txirrindularietatik hiruk bukatu arren, taldeka bigarren postuan bukatu genuen".

Denboraldiko lasterketa guztietan izan da Etxabe eta denboraldia erregular doala esan digu: "Lan handia eginez denboraldi erregularra egiten ari gara; bai ni eta baita taldea ere. Orain denboraldia bukatzeko garaipenen bat lortu nahiko nuke". Izan ere, bigarren postuan bukatu duen bi lasterketetan anaia bikiak irabazi dio aurreko lehia eta arantzatxo hori kendu nahi du garaipenen bat lortuz. Hurrengo zita garrantzitsua Beasainen izango dute bi aste barru; Espainiako talderik onenak izango dira bertan.

Gazte mailan azken urtea du hau Jokin Etxabek eta datorren urtean afizionatuetan arituko da. Bi mailen artean "jauzi handia" dagoela esan digu, baina "gogoz eta indarrez" ekingo diola lanari maila horretan ere.



Ibilbidea eginda, txirrindulariak mokadutxoaz gozaten. | MIREN ARREGI



KEPA IRIZAR BERGARA

"Bergararik etorri naiz bizikletaz eta martxa motza egin dut. Askok gustatu zait ibilbidea, aldapa gogor batzuk zituen eta ederra izan da. Zerbait jan eta banoa berriz, Bergara aldera".



MIKEL SEBASTIAN ARETXABALETA

"Martxa luzean hartu dut parte. Bertakoa naiz, baina zirkuituko zati batzuk ez nituen ezagutzen, egia esan. Gogorra eta oso teknikoa iruditu zait proba, baina gustura egin dut".

PILOTA

Giro ederra Dorletako txapelketan

Zapatuan eta domekan jokatu ziren sekulako ikusle mordoaren begiradapean Leintz Gatzagan Dorleta Pilota Txapelketako lehen finalak. Beteranoetan, Usuriaga anaiak izan ziren irabazle lehen mailan; bigarren mailan, berriz, Zumalde eta Irusta oñatiarrak. Datorren domekan, 17:00etan hasita jokatu dira gazte eta senior mailako finalak.



JULIO CALLEJA

Eneko Blanco | Natra-Oñati saskibaloitzailearen entrenatzailea

"Partidu guztietan azken minutura arte lehiakorrak izaten ahalegindu behar gara"

- ▶ Natra-Oñatiko jokalariek izatetik entrenatzaile postura egin du jauzi oñatiarrak
- ▶ Bi hilabete izango dituzte denboraldia prestatzeko, urriaren 27an hasiko dute liga

M.BIKUÑA / X.URTZELAI | OÑATI

Nahiz eta ligan kategoriatik galduta, Natra Oñati saskibaloitzaileak EBAn jokatu du aurreko urtearen erdian, beste talde batzuek utzitako hutsunea aprobetxatzea erabakita. Horretarako, kluba taldea indartzeko ahaleginetan dabil azken hilabeteetan eta *fitxaketa* garrantzitsuetako bat etxean bertan egin dute, orain arte jokalariek izan den Eneko Blanco izango delako entrenatzaile berria.

Hamasei urte jokalaritza moduan egon ostean, entrenatzaile postura egingo duzu salto. Azken urteotan gutxi jokatu izanak izan du eraginik erabakia hartzeko?

Egia esan azken lau urteotan gutxi jokatu dut, eta eskaintza jasotzerakoan baloratu dut gehiago nahi nuela entrenatzaile moduan jardun, beste urtebete gutxi jokatzeko ibili baino.

Entrenatzaile lana ez da berria zuretzat?

Hamasei urte horietan urtebetez ez genuen senior mailako talderik izan, eta hor gazte mailako taldea entrenatzen hasi nintzen. Eta ordutik hona entrenatzaile eta jokalariek lanak bateratu izan ditut. Kadeteak, gazteak, seniorreko bigarren taldea, bere garaian neskak... Uste dut kategoriatik guztiak pasa ditudala.

Ederra datorkizu orain...

Bai, hau beste maila bat da. Hemen ez da horren garrantzitsua entrenatzaile titulua izatea edo ez. Saskibaloitzailearen gainera ezagupenetan ez dut uste hankamotz nagoenik. Urte horietan guztiak jokalaritza moduan, beste 8-10 urte entrenatzaile izanda, saskibaloitzaile partidu mordoa ikusita, kirol honen gainean asko irakurrita... Horrek ez nau horrenbeste arduratzen. Nire erronka gehiago izango da talde hau kudeatzen jakitea, izan ere, iaz izan genuena baino talde osoagoa sortzen ari gara.

Aurten oilar gehiago izango da taldean.

Bai, hala da. Iaz, esaterako, taldeko jokalariek batzuk oso barneratuta geneukan gure rola zein zen. Bagenekien oso minutu gutxi izango genituela, eta horietan aprobetxatzen saiatzen ginen. Aurten, baina, jokalariek gehiago daude guk iaz jokatu genuena baino gehiago jokatzeko esperantzaz, eta hori betetzen ez denean arazoak sortzen dira, arazoak baino ezinezona. Azken batean, aurten kalitate handiagoa dago taldean, eta batzuk onartu egin behar dute 30 minutu jokatu beharrean 20 jokatu dituztela. Zorionez,



Eneko Blanco, zapatuan, Natra-Oñatiren lehenengo entrenamendu saioan. | JULIO CALLEJA

jokalariek eurak ere helduak dira horretaz jabetzeko.

Aldaketa handiak aurreikusten dira taldean?

Beno... Iaz, esaterako, entrenatzaileak garbi zuen momentu delikatuetan ze bost jokalariek egon behar zuten kantxan, eta aurten aukera handiagoa izango dut bosteko hori aukeratzeko. Ez dut bosteko finko bat izango,

"Nire erronka izango da talde hau kudeatzen jakitea, talde osoa dugu"

"Iaz gutako batzuk oso barneratuta genuen gutxi jokatu genuela"

badakit 8-9 jokalariek izango ditudala momentu bakoitzean aukeratzeko moduan. Eta, aste barruko lana ere asko baloratuko dut. Akaso, aurreko urteotan aste barruko lana ez zen horrenbeste baloratzen, baina hori ere normala zen, jokalariek artean alde handia zegoelako kalitate aldetik. Aurten momentuaren arabera, kontrarioaren jokoen arabera... baldintza asko daude batzuen ala besteen aldeko hautua egiteko.

Zertan da taldea hobea?

Iaz liga hasi genuenetik liga amaitu genuenera hainbat aldaketa izan ziren, eta esaterako, Ander Gartzia eta Imanol Zeziagaren etorrerak on egin zizun. Ligako azken partiduak talde indartsuenen kontra izan genituen, eta kategoriatik galduta bagenuen ere neurria eman genuen. Mallabi aurten ez dago taldean, eta ikuskerak dago Inigo Biainek zer erabakitzen duen. Eta, iazko oinarriaz batera oso maila oneko hiru jokalariek etorri dira taldera. Horregatik

diot iazkoa baino talde hobea dugula.

Non izango zarete indartsuak?

Barruko jokoa ondo ibil gaitzake. Asier [De la Iglesia] izanda batetik.

Iaz baino talde profesionalagoa izango duzuela esan genezake?

Beno, ez dakit horrela esango nukeen. Garbi dagoena da EBAn jokatzeko herriko jokalariek

"Entrenamenduek, kontrarioak... motibo asko daude bostekoa aukeratzeko"

"EBAn jokatzeko taldea indartu egin behar zela garbi genuen guztiok"

bakarrik ez dagoela nahikoa maila, eta taldea iaz baino gehiago indartu behar zela. Kanpotik jendea ekartzeak, kasu batzuetan, ez guztietan, kostu ekonomikoa suposatzen du. Baina, behin zuzendaritzak EBaren aldeko apustua eginda garbi zegoen hau zela jarraitu beharreko bidea. Hori bai, garbi nuen taldean lauzpabost oñatiar egon behar zirela.

Helburuen gainean galdetzeko goiz izan badaiteke ere, zer duzu buruan?

Iazko azken partiduetan maila polita erakutsi genuen, eta aurten ere horretan ahalegindu behar gara. Lehiakorrek izatea partidu guztietan, itxura ona ematea eta azken minutuetara arte garaipenengatik borrokatu ahal izatea. Uste dut kategoriarik eusteko borroka egin behar dugula, erdialdean egon gaitzkeela. Hori bai, goian egoteko moduko taldea dugula uste duenik ere bada; ikusiko da hori.



Bi haur txiki parkean jolasten. | MAVI

Lehenengo haurtzaroko harreman ez berbalak

Elkarrekintza ludiko eta afektiboen garrantziaz ohartarazten gaitu Gilsanzek

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Bizitzako lehenengo urtean gartzen ditugu oinarrizkoak diren bi gaitasun; erreferentzia soziala eta sintonia emozionala. Koldo Gilsanz psikologoak adierazten duenez helduok konturatu ere ez gara egiten horretan dugun papez, baina oso garrantzitsua da haurrek harremanen oinarria modu egokian eraikitzeak.

Adituaren esanetan elkarrekintza da hitzik gabeko komuni-

kazioaren oinarria; gurasoen keinuen eta ahots tonuen handitzea, fardela aldatzean kontaktu bisuala mantenduz egiten diren elkarrekintzak, titia zein biberioa ematean arnasaren erritmoa bateratzea, elkar laztantzea... Adinean aurrerago, nahi gabe beste bati min egin dion haur bati erakutsi behar diogu besteari laztantzia egiten. Aro berbalera pasatzean barkamena eskatzearen hazia izango da.

Sintonia emozionala ere fase honetan lantzen da; bestearen egoera emozionala irakurtzeko gaitasuna da.

Denbora eskasiagatik eta bestelako elkarrekintza ludiko zein afektiboak trebatu ezinean sarri autoritateari dagokion rol normatiboan ematen dugu denbora haurrekin. Denbora komunikazio ez berbala faboratzen duten ariketan inbertitzeko aholkua ematen du Gilsanzek.

Txupetea bi urtetik gora erabiltzeak alterazioak sor ditzake

L.Z. | ARRASATE

Esne-hortzen zainketa erabakigarria izango da gerora azalduko diren hortz definitiboak egoera onean ager daitezen, eta txantxarrak zein infekzioak saihesteko. Jabier Agirre pediatrak *Guraso.com* atarian azaldu duenez, txupetearen edo erpuaren erabilerak alterazioak eragin ditzake ahoan. Goiko hortzak irtenagoak eta aho-sabaia normala baino altuagoa izatea ekar dezake. Alterazio atzeragarriak direla dio adituak, baina ohartarazten du iraunkor bihur daitezkeela erabilera ohitura umeak bi urte bete ondoren luzatzen bada.

Txupete egokia aukeratu

Forma anatomikodun txupetea aukeratu behar da beti, eta tamaina egokikoa. Haurrari

benetan minez, gosez edo loguraz dagoenean eman behar zaio soilik, eta pediatrak gomendatzen du sarri garbitzeko. Gurasook ez dugu sekula ahoan sartu behar, ez eta azukretan edo ezitan. Ez da sekula haurrari lepotik zintzilikatu behar, eta pieza bakarrekoteak aukeratuko ditugu. Gastatua edo hondatua dagoenean, berriz, zakarretara botako dugu.

20 pieza ahoan

Esne-hortzeria 20 piezak osatzen dute; 10 goian eta 10 behean. Gauzak asko aldatzen dira ume batetik bestera, baina ohikoena da lehenengo piezak sei-zazpi hilabeterekin agertzea. Sintomak dira oiak handitzea, lerre gehiago agertzea, janaria baztertzea, edo sukarra—38 gradutik behera, dena den— azaltzea.



Haurra, txupetea ahoan duela. | PALOMALECA

Eskolaren funtzioaren gaineko gogoeta 'La educación prohibida' ikus-entzunezkoan

L.Z. | ARRASATE

Eskola libreak deritzen esperientzietan oinarrituta egin dute *La educación prohibida* ikus-entzunezkoa. Bertan parte hartzen duten hezitzaileek uste dute eskolak, gaur egun, ez dituela pertsonak bere osotasunean hezten, eta sinestuta daude bestelako hezkuntza esperientziak bultzatu beharko liratekeela, izan ere, hezkuntza formula berriak behar direla uste dute.

Sistema zaharkitua

"Ez du ikasleak porrot egiten, sistema da gaizki enfokaturik dagoena", dio ikus-entzunezkoan parte hartzen duen hezitzaileetako batek. Eskolak haurtzaindegi bihurtu direla adierazten du beste batek; "mendeko hiritarrak sortzen dituen instituzioa da eskola modernoa", zehazten du.

Montessori, Freire, Waldorf eta antzeko eskoletako hezitzaileak hartzen dute hitza dokumentalean. Haurrak adinka eta multzo handitan antolatzeak joera okerra dela uste dute, eta sistemak hausnarketa sakon bat behar duela ziurtatzen dute.

Gizabanakoen beharretara

Eskolaren estruktura fisikoa, hezitzailearen egitekoa, ebaluazio sistema, gurasoen papera... dena jartzen dute hankaz gora. "Ezagutza erritmo bizian aldatzen da, eta hezkuntza sistemak ez dira erritmo horretara egokitzen", diote. "Gizabanakoen beharretara egokitzen den hezkuntza sistema sortu behar dugu", ondorioztatzen dute. Dokumentalak bi ordu eta erdiko iraupena du; *Guraso.com* atarian aurkituko duzue lotura.

Ikerketa egungo gazteen maitatzeko joeren inguruan

L.Z. | ARRASATE

Antropologo talde bat, tartean Mari Luz Esteban, gazteei buruzko ikerketa proiektu batean ari da 2010. urteaz geroztik. Esteban maitasunaz eta maitasun erromantikoaz aritu zen EHÜren udako ikastaroetan. Gara egunkariaren *Gaur8* astekarian hitzaldi horren nondik norakoak jaso dituzte, eta bertan ikerketa proiektuaren inguruan aurreratutako zenbait ondorio jaso dituzte.

Proiektuan parte hartu duten gazteak askotarikoak izan direla adierazi zuen, lehenengo eta behin, Estebanek, baina zehaztu zuen gehienak klase ertainekoak izan direla.

Amen kontua

"Gazte askok pentsatzen dute berdintasunaren aldeko borro-

ka ez dela beren borroka, beren amena baizik", laburbildu zuen Estebanek. "Amamak gaizki zeuden, amek feminismoaren alde egin zuten borrokatzeak eta eurak gizarte berdintzaile batean bizi dira. Hori da erabiltzen duten formulazioa".

Beste ondorio bat: badirudi, gazteek gurasoekin hitz egiten dutela sexuaz eta harremanez. Baina, norekin? Ba amarekin hitz egiten da batez ere. Horrenbestez, harremanekin lotutako emozioen munduak neskena izaten jarraitzen du, eta emozioak adierazten dituen mutila femeninoa da.

'Follamigo'

Ikerketaren beste ondorioetako bat da sexuak eta harremanek sekulako garrantzia dutela gazteen artean; helburu nagusia

bikotekidea lortzea eta harekin bizi izatea da. Antropologoak adierazi du, hala ere, aldaketak badaudela. Gero eta indar handiago hartzen ari dira *follamigo* eta *follamiga* bezalako terminoak. Hitz horrek adierazten du emakumezkoen ligea onartua dagoela, eta maila batean normalizat hartzen dela. Baina erantzunetan garbi geratzen da asko ligatzen duen neska zigorra jasotzen duela oraindik ere. "Lehen, printze urdinaren zain lo egon behar genuen, eta orain, aktibo bihurtu gara printze urdina topatzeko eta konkistatzeko", adierazi zuen Amalia Gonzalez antropologoak. "Ardu nagusia da nola konkistatu printze urdina".

Ikerketaren inguruko xehetasun gehiago aurkituko duzue *Guraso.com* atariko loturan.



KULTURA



Orekaren eta gorputzaren malgutasunaren erakustaldi bikaina egin zuen artista horrek. | JULIO CALLEJA



Uztai barrutik salto egiteko sekulako abilezia erakutsi zuten. | JULIO CALLEJA



Mahaiak hankekin dantzan jartzeko trebezia erakutsi zuten. | JULIO CALLEJA

Grabitate eta orekari ederto aurre egindako saioa Oñatin

- ▶ Askotariko gailuak erabiliz akrobazia eta oreka erakustaldi ikusgarria
- ▶ Beste behin, akrobata txinatarrek aho zabalik utzi zituzten ikusleak

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Kanpandorrean zazpiak jotzeaz batera hasi ziren Txinako Chonqing zirku taldeko hamaika kideak herriko plazan bildutako ikusleen aurrean akrobazia ikusgarriak eginen. Ikusleak ere denboraz joan ziren urteroko hitzordura.

Dozena bat ataletan banatutako ordubeteko saioan, akrobazia eta oreka erakustaldiak egin zituzten askotariko gailuak erabiliz: baloiak, mahaiak, uztaiak eta ontziak, beste batzuen artean. Magiak eta umoreak ere izan zuten bere tarte adin askotariko

zaleen gozamenerako; atal horietan ikusle batzuk alfonbra gorriko artista izateko gonbidapena jaso zuten.

Gidoia aldatu beharra

Ikusleok haizea apenas sumatzen bagenuen, artistendako, berriz,

traba; hori horrela, aurrez prestatutako tresna arinak albo batera utzi behar izan zituzten ikuskizuna hastear zegoela gidoia aldatzera behartuz. Ez zen hori izan baina, Chonqing zirku taldeak egin beharreko aldaketa bakarra, Txinatik abiatu aurretik taldekideen

zerrenda ere moldatu behar izan zuten-eta hango gobernuak aginduta; beste urte batzuetan gurera batez-beste hamabi urteko artistak etortzen badira, orainoan, hama sei urtetik gorakoak izatera behar zituzten.

Aldaketak aldaketa, saioa amaituta, antolatzaileak, artistak eta ikusleak pozik eta gustura zeuden erakustaldiarekin; horren erakusle, saioan zehar izandako txalo zaparrada edo ikuskizuna bukatu bezain pronto, ikusten zeuden neska gazte koadrila batek artistekin argazkiak ateratzeko erakutsitako irrika.

Irailaren 7an, Arrasaten

Azkeneko urteetako Kanean egitarauan ohiko bihurtu dira zirku txinatarren erakustaldiak. Aurretik baina, Aretxabaletan ere izan dira (abuztuan) eta Arrasaten izango dira egubakoitzean.



QUI TIEYUAN
TALDEKO ARDURADUNA

"Ordubeteen askotariko teknikak erakutsi ditugu gure herrialdeko kulturaren erakusle. Oso eskertuta gaude ikuslearen harreraz, atentzio handiz jarraitu dute; eta laguntzaileak eskatu ditugunean, segituan prestatu dira".



LI JINGHONG
AKROBATA

"22 urte ditut eta 8 urte nituenetik jardun dut profesional moduan entrenatzen. Egunero entrenatzen dut. Euskal Herriko birara, AEBtik etorri nintzen beste taldekide batzuekin batera, han beste bira bat eginda".



LEIRE BARRENA ETA ALINE ALTUBE
IKUSLEAK

"Ia urtero etortzen gara asko gustatzen zaigu-eta. Atal guztiak gustura ikusi ditugu baina bereziki aipatuko genuke hiru neskek baloiekin egiten zuten ikuskizunaren zatia, oso onak ziren; hala ere ezin gainontzekoei meriturik kendu, ez horixe! Akaso probatuko genuke gu ere kapazak garen ikusteko, baina aukeran nahiago ikusle izatea. Hurrengoan ere etorriko gara, beraz, antolatzaileei esango genieke datorren urtean ere antolatzeko zirku txinatarren beste emanaldi bat".



IBIS UGARTE
IKUSLEA

"Gustatu zait, asko gainera. Urtero etortzen naiz, txikitatik dut ohitura hitzordu honetara etortzeko. Inbidia ematen didate badakit-eta nik ezingo nukeela egin. Neskek egindako zatiak dira gehien gustatu zaizkidanak".



Anari eta haren taldea Oñatiko Atzeko kaleko kontzertuaren une batean. | A.ARANBURUZABALA

KRONIKA

Diskotik diskora gustura saltoka

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Irla izan diskoaren aurkezpen bira atzean utzita, zubi baten moduan daudela dio orain Anari, eta horrela erakutsi zuen egubakoitzean Oñatiko Atzeko kalen egin zuen emanaldian orain arteko ibilbidearen laburpena irudikatuz errepertorioan.

Hastapeneko kantuak jotzeko zalantzak izaten dituela aitortzen duen arren –ez omen da askorekin dagoeneko eroso sentitzen–, lehenengo diskoko (*Herra kantaren* bertsio lasai batekin ekin zion bandak, diskotik diskora saltoka ordu bete pasako emanaldi gozoa eskainiaz.

Gehiago ziren zaleek entzun gura zituztenak baina Anari eta

haren bandak nahiago luze baino kontzertu motzaren zentsazioaz bukatzea; lehenengo lerroko zaleek eskatutako *Amua* eta *Gu* kantuak izan ziren azkenak. Azkoitiarrak ohiko ekipoa izan zuen bidelagun: Mikel Abrego baterian, Drake baxuan eta Borja Iglesias gitarran, baina teklatuan berriz, aurpegi berri bat: Mariano Hurtado, Maite Mursegoren lekukoa hartu duena. *Inoren ero ni* taldeko Cadiztarra, egubakoitzean, laugarren aldiz izan zen taldearekin.

Gaztelekuan jotakoa da Anari, eta kalean kantatzen zuen lehenengo aldia izanda, plaza zaila izango zelakoan igo zirela aitortu zuen azkoitiarrak; baina hasi orduko zaleek bat egin zuten taldeaz.

Josu Zubia, etxeko teloneroa
Hemezortzi urte besterik ez dituen arren, eszenatokia sarritan zapaldu duela erakutsi zuen Josu Zubia oñatiarrak. Ordu beteko saioa egin zuen, kantu propioak zein hainbat kantu ezagunen bertsioak tartekatuz (horien artean, Silvio Rodriguez, Imanol, Mikel Urdangarin edo amaitzeko aukeratu zuen Pirritx eta Porrotx pailazoaren *Irri egiten duenari* deritzona).

Kontzertua amaituta, gustura zen Zubia emaitzarekin, espero baino ikusle gehiago hasieratik eta soinu, inoiz baino indartsuagoa; lehenengo aldia zen-eta, soinu ekipo profesional batekin jotzen zuela.

ANARI ALBERDI | MUSIKARIA

"Beste alor batzuetan probatu gurako nuke beste disko bat kaleratu aurretik"

Kalean egitarauak ekarri zituen Oñatira Anari eta haren taldekideak: kontzertuaren biharamunean izan ginen azkoitiarrarekin berbetan.

Gustura emanaldiaz?

Bai egia esan, Oñatin izan gara disko bat edo beste aurkezten, oraingoan ezberdina izan da, ilargipean eta disko zehatz bateko kantueta mugatu barik gustura jardun dugu.

Ibilbidearen laburpen moduan definitu genezake emanaldia?

Bai, urte eta erdian *Irla izan* disko kantuak izan dira gehienbat jo ditugunak; orain inflexio puntu batean gaudenez aspaldian jo barikoak aukeratu ditugu. Kostatu egiten zait kantu zaharrak berreskuratzea, batzuekin gerra moduko bat ere badut, baina zaleek



eskertzen dute, *betiko* kantuak eurenak ere sentitzen dituzte-eta.

Eta badago labean berririk?

Beti nabil kantuak egiten eta orain ere baditut batzuk, baina une honetan ez dugu beste lanik kaleratzeko asmorik.

Hala ere, ez zaude geldirik.

Ez, aspalditik tentatuta eta bueltaka nabil ikus-entzunezko proiekturen bat edo bestetan murgiltzeko, dokumentalen bat-edo... ikusi behar! Bestalde Bidehutsak berak sortzen dizkigun beste lan batzuk...

Ze puntutan dago Anari. Gustura zaude?

Gustura nago bai, momentu ederra da hau.

Gurean beste kontzerturik gertu?

Momentuz ez, Oñatin izan gara eta arnasa hartzen uztea komeni izaten da. Datorren astean Lekeition eta Igelon izango gara eta hurrengo Katalunian, Vicera joateko asmoa dugu.

Iban del Campo, Belgikako La Louvière-ko dokumental egileen egoitzan

Inpertinentzia gaitzat hartuta, dokumentala grabatzen ari da, hango jaialdian erakusteko gero

AA./M.B. | ARRASATE

Arrasatearrak *Festival 5 sur 5* jaialdian parte hartzeko gonbidapena jaso du Europako beste lau zinegilerekin batera. Irailaren 22ra arte egongo da La Louvièreko familia baten etxean ostatu hartuta; helburua, zuzendari bakoitzak, 15 minututako dokumentala filmatzea, horiek gero, jaialdiaren azken egunean proiektatzeko asmoarekin.

Bost aste izango ditu: dagoeneko bi agortu ditu filmaketa aurretiko lanak egiteko; beste aste bat izango du filmea grabatzeko (pasa den zapatuan zen

hastekoa) eta azkeneko biak, muntaia lanetarako izango ditu.

La Louvière bertan filmatuko du, eta hango teknikariak izango ditu taldekide; hori guztia kontatzen du Del Campok, *limbusfilmak.blogspot.com.es* blogean.

Agindutako gaia

Inpertinentzia da aurreten, *Festival 5 sur 5* jaialdiko antolatzailak dokumentala egiteko agindutako gaia. Filmaketa hasi aurretik detektibe lanetan jardun zuen arrasatearrak.



Iban del Campo zinegilea. | GOIENA



Filmaketaren aurretik egindako ikerketa lanen adibide bat. | IBAN DEL CAMPO

'Karroart', gurdi baten, eskuekin kontatutako txinatar kondaira

- ▶ Hitzekin beharrean harearekin eta txinatar-gerizpeekin irudikatutako istorio ikusgarria
- ▶ Udazabal programaren barruan, hamar emanaldi egin zituzten, atzo, domekan

A.ARANBURUZABALA | ARRASATE
Garai bateko komedianteen itxura hartuta antzeztu zuten *Negro* eta Gustavo Dizarro argentinarrek osatutako La Mosquitera bikoteak *Karroart* lana. Orduan herririk herri garraiatzeko erabiltzen

zuten gurdia, eszenatokia zen Bartzelonan bizi diren bi artistentzako.

Gurdiaren barruan, 30 lagunen aurrean egiten zuten hogeitau minutuko emanaldi bakoitzean, Txinako hiru ipuin klasiko kontatzen

zuten Dizarrok eskuekin; antzeztan ez zuen-eta, *Negro* aurkezlearen azalpenez gainera, beste berbarik. Ikusleak baina, ez zuen hitzen beharrik, samur ulertzen dira sukaldariaren, bizarra moztu nahi duen eta estralurtarra

protagonista duen istorio bakoitza; hori guztia *sand-art* (harearekin egindako irudiak) eta txinatar-gerizpeen teknikaz baliatuz. Ikusleen jarlekuen parean dagoen pantailan erakusten ditu maisuki Dizarrok eskuekin kontatutako istorioak, aproposa den musika instrumentalaren laguntzarekin.

Bi dimentsiotako antzerkia

Ikuslea ere protagonista bihurtzen dute, besteak beste, antzeztanaren hasieran banatzen dituzten kristal bariko betaurreko barregarri eta koloretsu batzuk janzteko gonbitea eginez.


Negro aurkezleak bi dimentsiotako antzerkia ikustera zoazela esanaz aurkeztu zuen bere kidea, kutxatxo batetik betaurrekoak banatuz oihalarren atzean zegoen pantaila ezkutua seinaltzen zuen bitartean. Polita zen heldu zein haur, betaurrekoak

jantzi eta mozorrotuta baileude bezala itxitako teloiari nola begiratzen zieten ikustea.

Kanpoko ere, ikusgarria

Barrukoa ikusita, baina, merezi zuen gurdiaren kanpoaldean ere une batez geratzea eta lasai begiratzea atrezzo moduan jarritako garai bateko gramofono, argazki, erloju, maleta, kutxa edo beste hainbat tramankulu bitxiel.

Aipatzekoa, era berean, *Negro*-k hurrengo emanaldia hastear zegoela iragartzen zuen modua. Gurdia inguratzen zuen hesiaren atean eskegita zegoen kanpaitxoari tiraka, Seber Altube plazako izkinetatik erdi lotsatuta baina kuriositate aurpegiarekin begira zeudenak gonbidatuz. Nik ere ikusi nituen ezagun batzuei egin nien gonbita; merezi zuen!



Sukaldariaren ipuinaren une bat. | AITZIBER ARANBURUZABALA



La Mosquitera taldekoak. | A.A.

Malikianek eta haren orkestrak berezi egin zituen Kepa Junkeraren konposizioak; Santutegia bete egin zen

Joan den eguaztenean hitzordua izan zuten Kepa Junkera eta Ara Malikian musikariek Arantzazun

MIREN ARREGI | OÑATI

Donostiako Musika Hamabostaldiak bisita egin du aurtenean Arantzazura eta bi artista handiren musikaz gozatzeko aukera eskaini du; hala, Kepa Junkera eta Ara Malikian aritu

ziren Santutegian, joan den eguaztenean. Lehena, euskal musikari internazionalena; bigarrena Libanon, familia armeniar baten baitan jaiotako semea, oso gaztetatik eta aitaren eskuetik biolina jotzen hasi zena.

Hura izan zen kontzertua hasi zuena; Malikian bera, biolina jotzeko duen doai berezi horrekin –munduko folklore eta musikan espezializatua, etengabeko abiadura da haren ezaugarrietako bat–. Lagun zuen taldea,

Ensemblea, biolaz, biolontxeloz, kontrabaxuz eta bigarren biolin batez osatua. Kepa Junkera ere ez zen bakarrik etorri, Iñigo Olazabal izan baitzuen lagun, perkusioarekin, txalapartarekin eta albokarekin.

Guiztiak elkarrekin, dotore

Kepa Junkeraren abesti ezagunak interpretatu zituzten bereziki kontzertuan. Malikian berak konposatuak ere bai bat edo beste, baina batipat eta esan bezala, bilbotar musikariarenak. Hala, haren betiko *Madagascar* edota *Hiri* bertsiionatu zituzten. Ara Malikianek eta haren orkestratxo txikiak, sekulako indarra eta maisutasuna eman zizkien Junkeraren konposizioei.

Hamabostaldian urtero legez, bete egin zen Arantzazuko Santutegia; jendez eta txalo hotsez.



Ara Malikian musikariak sutuki bizi du biolina. | HAMABOSTALDIA



Malikian eta haren taldea eta Kepa Junkera, Arantzazuko Santutegian. | HAMABOSTALDIA

LA BANDA
DEL ABUELO

GURE MUSIKA TALDEAK



La Banda del Abuelo musika taldeko kideak, kontzertuan, mozorrotuta. | GOIENA

"Errespeta garriak izateko, hor dago Alderdi Popularraren gazteria"

- ▶ 10 urte hauetan 'Do it yourself' filosofia izan da taldearen ikurra
- ▶ La Banda Del Abuelok musikari eta hitzei garrantzia bera ematen die

ANDER MONEDERO | ARRASATE

10 urteren ostean, Arrasateko La Banda Del Abuelo taldeak zirikatu eta gustuko ez dituenak salatzen jarraitzeko gogoarekin jarraitzen du. Aurten, urteurrena ospatzeko, *La sed del fuego* izeneko lana kaleratu dute. Lan berria hobeto ezagutzeko, Josu taldekidearekin hitz egin dugu. **Aurten hamar urte bete dituzue. Nolako izan da zuen ibilbidea?** Batzuetan gogorra da, baina polita ere bai, bizitza bezalakoa da rock talde bat. **Hirukote moduan hasi eta urte gutxira Aner sartu zen taldean.**

Zaila izan al zen didjeridua rock talde batean integratzea?

Haiziaren seme txirikaua mundiala da. Harekin *zailtasun* hitza ez da existitzen. Hari berdin dio harmonika, didjeridua, *suge elektrikoa* edo edozein tramankulu jotzea. Izan ere, musika darama odolean.

Hirugarren diskoa kaleratu berri duzue. Grabazio digitalaz aparte, ze berritasun sartu duzue *La sed del fuego* diskoan?

Baxuari lehenengo aldiz *wah-wah* efektua sartu diogu; didjeridua bi abestiren bizkarrezurra da; gitarrak laukoiztuta daude; eta

biolontxelo eta irlandar gaita ere sartu ditugu. Yeska eta Marea taldeetako abeslariak kantu pare bat abestu dituzte. Hiru abestitan Antonio Belarte *Sorkampana* poetaren hitzak eta ahotsa erabili ditugu. Orokorrean, taldearen soinua sendoagoa da eta abesti borobilagoak direlakoan gaude, baina hori entzuleek esan behar dute, ez guk! **Zuen hitzak zuzenak eta gogorrik izaten dira eta ironia ere erabiltzen duzue. Askotan, rock taldeek ez dituzte horrelako hitz landuak egiten. Zuen ustez, musika bezain garrantzitsua da abestietan esaten duzuenaz?**

Kontuz ibili behar da, 15 urteko mutiko bati ezin diozu esan: *"Zure buruaz beste egin..."*. Edo: *"Ekin gogor droga gogorrek hartzeari"*. Ezkortasuna, etengabeko hedonismoa eta auto-suntsiketa baztertu behar ditugu. Badago etorkizuna eta hori borrokarekin, konpromisoarekin eta lanarekin lortzen da. Etor-kizuna idazteke dago, baina guri dagokigu idaztea.

Democracia Far West-ek pil-pilean dagoen gaia jorratzen du.

Demokrazia baino gehiago, Plutokrazia dirudi: boteretsu, narrusendo eta lotsagabeen etengabeko latrozinioa, hain zuzen ere.

Zer da *Culo de luciérnaga*?

Diskoaren lehenengo kantua, Mareako Kutxik abesten duena. Abestian probokazio eta poesia apur bat daude. Rock-and-rollak probokazio kutsu bat izan duela ahazten zaigu: Rolling Stones, Sex Pistols... gustuko ditugun rock taldeak probokatzaileak eta zirikatzailak ziren. Errespeta garriak izateko hor daude Alderdi Popularraren gazteria edo Benedikto XVI.aren jarraitzaileak!

Hiru disko eta bost bideoklip, denak autoekoiztutakoak. Do it yourself filosofia duzue.

Baten batek zure lokaleko txirrina jotzen duen zain bazaude, jai daukazu. Bizitza motza da, eta abesti baten esaten dugun moduan: *"Basurde bat daramagu geure bihotzian, baimenik ez dugu biher, lokatzetan dantzari"*.

Spotify, Grooveshark... eta horrelako musika plataformek diskoetxe txiki eta ertainetan baino banaketa handiagoa eskaintzen dute. Munduko Internet erabiltzaileen eskura zaudete.

Poeta batek esan zuen moduan: "Mundua arrotza eta zabala da". Beharbada, zure herrian bertan inork ez daki existitzen zarenik, eta, aldi berean, Huelvako herri xume baten, erdaldun bat bada bil zuk euskaraz konposatutako kantuak abesten. Harrigarria da.

Gaur egungo musikaren egoera ikusita (musika aukera asko, industriaren krisia...), underground eszenan zaudeten taldeentzat zaila al da ezagutzera ematea?

Ezagun izan nahi baduzu, rock-and-rolla egitea baino hobe da *El conquistador*-eko casting-ean parte hartzea. Ezaguna izatea, gainera, tonto bihurtzeko lehenengo urratsa izaten da. Ezezagunak nahita, harro eta betiko! **Etorkizun hurbilerako proiektu gehiago dituzue? Ala diskoa zuzenean aurkezteko garaia da?**

Culo de luciérnaga bideoklipa sare sozialen bidez ezagutarazi nahi dugu, eta gero, urrian, *La sed del fuego* abestiaren bideo-klipa egingo dugu: *Dead man* western filmaren omenaldi xume bat.


"Bideoklipa sare sozialen bitartez zabaltzen ari gara"



UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan

Baita hemen ere: [f](#)



DEBODTENPLUA. Madrilen dagoen Antzinako Egiptoko Debod tenplua.
/Argazkia: Andrea Paredes /Arrasate



HABIA. Aretxabaletan, Deba ibaian, dagoen zikinkeriaz, bizitza apur bat ere badago oraindik! /Argazkia: Aitziber Oianguren /Aretxabaleta



HITZ GABEKOA. Burj Al Arab zazpi izarreko hotela gauez, txundigarria. 321 metroko garaiera du eta munduko hotelik handiena da.
/Argazkia: Andoni Garai /Oñati




TONTORRERABIDEAN. Egunsentia, Huayna Potosi 6.088 metroko Boliviako tontorrerako bidean. /Argazkia: Maite San Vicente eta Iker Elortza Eginuren /Arrasate



PANPOXAK. Etxeko ortuan ateratako argazkia da. Nire bi lehengusinak dira argazkikoak, Lide eta Sara. /Argazkia: Joana Mancisidor /Arrasate



EGUZKILOREAK. 2012ko abuztuan Irunberriko Arroiletan ateratako argazkia. Horrenbesteko beroa egin du abuztu honetan, eguzkiloreek ere bizkarra eman diote eguzkiari.
/Argazkia: Julen Leturia /Bergara



ESKALATZEN. 2005eko udan ateratakoa da, Ataunen; Jentilbaratzako mendian. Argazkian Malen eta haren aita Damaso agertzen dira.
/Argazkia: Malen Gallastegi Meabe /Bergara



VOLENDAM. 2011ko udan Volendameko (Holanda) etxe bateko atariari ateratako argazkia. /Argazkia: Mila Galafriena Iriarte /Arrasate



PEÑA TELERA. Uda honetan, abuztuan, Pantikosan (Huesca) ateratako argazkia da. /Argazkia: Jone Ezkurra Agirreureta /Arrasate



OIHANEKO PRINTZESAK. Antzuolan uztailean ateratako argazkia: lagun batek besteari bere leku sekretua erakusten. /Argazkia: Koldo Lizarralde Mondragon /Antzuola



GERIZPEAN. Marokoko Sidi Mugaits izena duen hodartzeta bateko argazkia. "Paradisua ematen zuen, bakar-bakarrik geunden". /Argazkia: Alix Barbero Erostarbe /Oñati



HIK LAN ETA NIK JAI. 2012ko abuztuan Santanan (Madeira) ateratako argazkia. Bertan garbi ikusten da batzuek turismoaz gozatu ahal izateko beste batzuek lan egin behar dutela. /Argazkia: Lorea Zurutuza /Bergara

VIII. GOIENA LEHIAKETA

an: goiena.net/blogak/argazkiak



udakoargazkiak udakoargazkiak



VESPANLAUHAIZETARA. 2012ko abuztuan, Vespa arrosa batean Toskana ezagutzen. /Argazkia: Mireia Agirre Agiriano /Oñati



ITSASONTZIAK. Hondarribian jasotako irudi bat da hori; bertan, hiru itsasontzi agertzen dira. /Argazkia: Lorea Ondarra Urrutia



ANDOLATZATIK. Ekainaren 1ean ateratako argazkia. Oñatiko Andolatza baserri inguruan. /Argazkia: Eugenio Iciar Igartua/Oñati



NORANZKOA. Lanzarotetik munduko hainbat lekutarako norantza eta zenbat kilometro dauden adierazten duen seinale bitxi hori dago. /Argazkia: Iker Altuna Arenaza /Aretxabaleta



ITSASOARI BEGIRA. Uda honetan lgedon ateratako argazkia arratsalde eder baten, ilunabarraren zain, itsasoari begira daudden bi neskatxa agertzen dira. /Argazkia: Vanessa Gonzalez /Arrasate



LORETXOEKIN JOLASEAN. Albinan loretxoekin jolasean ibili ta gero ateratako argazki bat; Olatzen hankak eta atzealdean Albinako urtegia agertzen dira. /Argazkia: Maialen Urizar Barrutia /Aramaio



URREA BEHELAINO ARTEAN. Landako urtegian egunsentian ateratako argazkia. Eguzkia laino artean sartzen zen momentuan, izpiekin ingurua urreztatzen zuen. /Argazkia: Antonio Baena /Arrasate



PARADOXA. Erromako St. Angelo gaztelutik San Pietro elizari begira budista ikusi nuenean. /Argazkia: Uxue Arregi Retolaza /Antzuola



BAREAREN OSTEAN DATOREKAITZA. 2007ko abuztuan ateratakoa da, Nikaraguako Corn Islands irltako La Isleta irlan. Barearen ostean zetorren ekaitza islatu nahi da argazkian. /Argazkia: Maitane Igartua Lopez

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailearen 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinakoa bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarola Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETAKO: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

* Oinarri guztiak: ttiki.com/40738

Sariak:

- 1. saria:** Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 2. saria:** Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herriarren saria:** bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotelean.
- Boto emalleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.



ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:



Canon



GURE AMETSA
JATETXEA



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Etxebizitza salgai. Egungo egoerara egokituriko prezio interesgarria. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu telefono 650 01 05 15 zenbaki honetara.

Oñati. Etxebizitza salgai Kale Zaharra auzoan. Bi logela, komuna, egongela, sukaldia eta barruko patio bat. Guztiz jantzia. Oso argitsua. Igogailuarekin. 190.000 euro. Interesatuok deitu 655 72 27 35 telefono zenbakira.

Oñatin. Etxebizitza bat saltzen da Errekalde auzoan. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldia. 79 metro koadro ditu eta 7,20 metroko ganbara. Oso argitsua. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 73 08 03

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentu txikia ematen da errentan erdigunean. Logela bat eta egongelarekin. Berokuntzarekin. Hilean 450 euro. Interesatuok deitu 665 71 06 66 (Amaia).

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat, Uribe auzoan, unibertsitateko gertu. Lau logela, sukaldia, egongela eta bi komun. Eguzkitsua. Berokuntza zentral eta igogailuarekin. Jantzia. 680 euro hilean. Irailtik uztaile. Idatzi mezu bat ajaugal@gmail.com helbidera edo deitu telefono zenbaki honetara 6 6 1 2 7 6 3 4 7 (Amaia).

Arrasate. Garaian hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 675 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646 19 49 98

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitateko gertu. Egoera ezin hobean. Lau logela ditu, horietako bi bikoitzak. Guztira 6 pertsonarendako modukoak. Bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Garajearekin. 840 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 53 82 48

Arrasate. Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Munar auzoan, unibertsitateko gertu. Berokuntza zentral eta igogailuarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 53 60 29 edo 615 71 94 58

Arrasate. Ikasleentzako hiru logelako etxebizitza errentan ematen da. 635 73 27 74.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 629 80 77 73

Elgeta. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Ama eta alaba gara. 686 08 16 90

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Bilogela ematen dira errentan erdigunean. Interesatuok deitu 603 14 28 89 telefono zenbakira.

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Kontratuarekin. Interesatuok deitu 678 73 66 54 telefono zenbakira.

Arrasate. Gela ematen da errentan San Andres auzoan. Interesatuok deitu 657 55 81 15 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuok@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuok

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garaiea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate. Neska gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 629 80 77 73

Bergara. Bergarar neska eskalduna irailtik aurrera umeak zaintzeko gertu. Deitu 686 61 35 52 telefonora.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu, mekanikari laguntzaile zein lorazain jarduteko. Baita ospitalean gaixoak zaindu zein etxeetan bertan bizitzan lan egiteko ere. Interesatuok deitu 626 36 02 01 edo 943 53 21 92 telefono zenbakietara eta Davidengatik galdetu.

106. BESTELAKOAK

Arrasate. Logela bila nabil errentan. San Andresen edo gertu ahal bada. 699 11 43 23.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria eta etxeko laguntzaile tituluak dauzkat. Gida baimena eta legezko paperak ere bai. Deitu 672 91 18 46 telefono zenbakira eta Luisengatik galdetu.

Debagoiena. 40 urteko gizon eta emakumea gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Margoketa lanak ere egingo genituzke. Arrasaten bizi gara. Interesatuok deitu 630 04 52 79 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketarak egin edo nagusiak zaindu zein pasean laguntzeko. Deitu 43 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Nancy. 636 47 64 92.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. ematen dira opari Debagoienean. 626 12 57 47

704. BESTELAKOAK

Txakurra galduta Arrasaten. Abuztuaren 13an Bedoña inguruan, artzai txakur zuria galduta zen. Oso alai eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroixka dauka. Ikusi baduzue mesedez deitu. 665 71 44 76 edo 653 70 33 44

8. DENETARIK

801. SALDU

Apple MacBook Pro. 15 hazbeteko Apple MacBook Pro (mid 2010) ordenagailu eraman garria

salgai. Core i7 prosezagailua, 8Gb-eko RAM memoriaduna, Mac OS X Lion Sistema eragilearekin. Egoera ezin hobea 1000 euro. Interesatuok deitu dezala 605 98 37 06 telefono zenbakira.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ramon M^a Lili 92 m². 3 logela. Terraza eta garajearekin. Berritua.
- Aranerreka 78 m². 3 logela, terrazarekin. Berritua. 175.000€.
- Justo Garate 60 m². 2 logela. Terraza eta garajearekin. 240.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 90 m². 2 logela. Berritua. 174.293€. Aukera ona.
- Masterreka 70 m². 2 logela. Garajea aukeran. 198.334€.
- Martoka 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Zubietta 168 m². 4 logela. Ortuarekin.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berritua. 150.000€.
- Simon Arrieta 75 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin.
- Bidekurutzeta 147 m². Aukera ona.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Azkarruntz 80 m². 3 logela. 92.856€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Irizar Enparantza 71 m². 2 logela, igogailu, berogailu, trasteleku eta garajearekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 240.405€.
- Zubietta 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegi 55 m². Balkoia eta trasteleku. Prezio jaitserarekin. 114.192€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243€.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailu, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zabalotegi 54 m². Balkoia arekin. 96.000€.
- Zubietta 65 m². 3 logela. 63.000€.
- Iparragirre 40 m². Apartamentua, berria.

Antzuola:

- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitserarekin.
- Buztinzi, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealdia 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

URTEURRENA

Pilar Berezibar Galdos



'Errekalde'
Emiliano Etxarte Aginagaren alarguna
Iruñean hil zen 2011ko abuztuaren 16an.

Nik badakit ez naizela arbola bat edo harri bat edo pauso batzuk gauaren erdian. Baina ezere ez dit burutik kenduko holako zerbait ere banaizela.
(Bitoriano Gandiaga)

Etsaiagoga eta sakrifizio ahalmena arbaso esklabotuen memoriatik elikatzen dira, ez iloba liberatuen idealetik.
(Walter Benjamin)

Arrasaten, 2012ko irailaren 3an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

- ARRASATE Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ARETXABAETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
- ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
- ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
- ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Babeslea:



Beilatokia

Etengabeko zerbitzua

Lore koroak

Eskelak

Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



'Phablet': tableta diren mugikorrak, eta alderantziz

- ▶ 'Phablet' delako joeraz berba egiten da telefono eta tableten neurrietan
- ▶ Ekoizleak apustuak egiten dabilta neurri egokiarekin nork asmatuko

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sakelako telefono handi-handiak hasi dira merkaturatzen eta, aldi berean, tableten neurria txikitu eta "sakelako bertsioak" ateratzen hasiko dira aurki; konfirmatzeko dagoen iPad miniaren kasua, adibidez. Tableten eta mugikorraren arteko mugak geroago eta lausoagoak dira eta dispositibo bakoitzaren neurria

bertain egingo den edukien kontsumoak finkatzen du gehiago, soilik telefonoa edo tableta izateak baino. Kontuak kontu, telefonoak geroago eta txikiagoak ziren iPhonea iritsi zen arte, eta orain, tamainaren garapena tabletei iritsi zaie, Applen eskutik oraingoan ere, 7 hazbeteko iPada indarra hartzen dabilen zurrumurrua baita.

Pantaila handia, pasatu barik

Pantaila da garrantzia duena eta estandarra iPhoneak zehazten du 3,5 hazbeterekin. Litekeena da Applen hurrengo telefonoak 4 hazbete izatea. Gama altuko mugikorretan, baina, txikiena izaten jarraituko du Applenak. Nokia Lumia 900, Sony Xperia S eta Panasonic Elga modeloek 4,3 hazbeteko pantailak dauzkate. Pan-

taila hain handiekin, hala ere, zaila da atzamar lodiak erraztasunez azalera osora iristea eta garraiatzeko ere handiak dira mugikorrek; epe luzera arrakasta, beraz, zalantzan dago. Tableten muga ukitzen duten mugikorrek dira horiek, baina tableten joera, hain zuzen, txikitzen joatekoa dela kontuan izanda. Bost hazbeteetan dago muga, esaten dutenez, eta iaz aurkeztu zuten Galaxy Note delakoa da ezagunetan txikiena, Samsungena. Berba berri bat eta guzti atera dute mugikor eta tablet artean dagoen gailuarentzat: *phablet* (ingelesezko *phone* eta *tablet* hitzen arteko nahasketa). Gainontzeko tabletak 7 hazbeteen bueltan dabilta, Googlen Nexus 7 entzutetsuaren kasuan. Microsofti dagokionez, haien apustua Surface tableta da, 10,6 hazbetekoa, eta joera nagusia apurtzen duena.



Lumia 900 eta iPhone-a. | GIZMODO



Nexus tableta. | TODDANDROID

Birusen erasoek gora egin dute, bereziki mugikorretan

J.B. | ARRASATE

Karspersky enpresak zabaldu-tako txostenaren arabera, azken hiruhilekoan gertatu da Android sistemetan hirukoiztea, eta birusak zabalteko bide eta modu berriez ohararazten dute; SMS bidez kutsatutakoak edo pasahitzen lapurreten hazkundera bera, kasu. 15.000 fitxategi kaltegarri atzeman zituen antibirusak azken hiru hilabeteetan; aurreko urtearekin alderatuta, hirukoizta. Bankuko datuak eskuratzeko erasoen kopurua da gehien hazi dena. Telefonoetako erasoak hazi badira ere, etxeko ordenagailuaren kontra ere ekiten

diote birusek, arlo horretan jaitziera nabarmenik gertatu barik.

Etxeko erasoek ere gora

Esan bezala, mahaigaineko ordenagailuetan, segurtasun neurriak hartuta ere, erasoek gora egin dute, baina, Karsperskyren arabera, Espainia erdi mailako leku seguruen taldean kokatzen da arrisku mailari dagokionez. Munduko herrialderik seguruena, ikerketa beraren arabera, Taiwan, Japonia, Danimarka, Luxenburgoko eta Txekiar Errepublikak dira, hurrenez hurren.

Eskularru interaktiboaren patentea erregistratu du Googlek

J.B. | ARRASATE

Betaurrekoekin nahikoa ez eta Googlek eskularru interaktiboak ere kaleratu gura ditu. Beste dispositiboekin komunikatu, mugimendua ulertu eta kamerarekin grabatzeko ahalmena izango dute gailu berriek. Proiektua dagoeneko erregistratu egin dute patenteen bulegoan Esta-

tu Batuetan. Erregistratutako eskularru zibernetikoak, baina, beste gailuen osagarri lanak egingo ditu; ez da, oraingoz, autonomoa den modelorik erregistratu.

Errealitate birtualaren alorrean bete-bete sartzeko gura du Googlek, ikusten denez, proiektu berriekin.

Megaupload itzuli egingo da, "handiagoa", "hobea" eta doakoa

J.B. | ARRASATE

Mundua aldatuko duela iragarri du Kim Dotcom-ek, Megaupload zerbitzuaren fundatzaileak. Irargarpen handi horrekin batera esan du, baldintzapeko askatasunean, Megaupload itzuli egingo dela eta "handiagoa eta hobea" izango dela lainoko biltegitarte zerbitzu ezaguna. Zerbitzariak batzeko *hoster*-ak konektatzeko aukera eman gura du zerbitzu berriarekin, banda zabalera areagotuz; betiere, fitxategiak Estatu Batuetan ez dauden neurrian. Megauploaden itzulera doakoa izango dela eta erasoetatik babes-

tuta egongo dela ere iragarri du Dotcomek. Garatzaileei APIak sortzeko aukera ere emango die Megauploaden bertsio berriak. Dei horrek, hain zuzen, proiektuaren handitasuna jar dezake agerian, eta industrian bertan aurreko bertsioak baino eragin askoz handiagoa izan dezake. Doakoa eta askoz azkarragoa den zerbitzua bultzatu gura du Kim Dotcomek, mundu mailako zerbitzari sare aske eta zabal batekin eta pribatutasun berme guztiak eskainita, iragarri duenaren arabera. Kaleratze datarik ez dute iragarri.



Kim Dotcom. | NEWSWHIP.COM

Titularrengatik ordainduko du Googlek Alemanian

J.B. | ARRASATE

Bilatzaileek ordaindu egin beharko dute aurrerantzean Alemanian eduki informatiboaren egile eskubideengatik, auzitegiaren ezarri denez.

Behin eta berriz salatu dute hedabide handiek bilatzaileek, bereziki Googlek, euren albisteen izenburuak erabiltzen dituztela, publizitate etekinak lortuta eta sarri eduki horiek hirugarrenei eskainita; blogetan, esate baterako.

Kanon informatiboa

Helegite bat baino gehiago aurkeztu eta gero, Alemanian auzitegi batek onartu egin du eskaera; bilatzaileek ordaindu egin behar dutela erabaki eta Gobernuaren lege proiektua lantzen dabil egile eskubideen edukien ordainketa erregulatzeko. Kanon bitartez bideratu gura du Merkelen gobernuak ordainketa hori, eta lizentziak banatu, material informatiboa erabili ahal izateko.

Googletik dagoeneko adierazi dute ez dutela asmoa begi onez ikusten, uste baitute "Interneten garapena oztopatuko" duela, "Alemaniako informazioaren eskubideari kalte egin" eta "ekonomia bera ere kalte dezakeela". Hori esan du Kay Oberbeck-ek, Googlen Europa iparraldeko bozeramaileak, eta proiektua gaitzetsi du.

Amazonen aplikazio denda dagoeneko zabalik dago

J.B. | ARRASATE

Amazonen zabalkunde definitiboa egin du Europako eta Androiderako aplikazioekin denda zabaldu du; Frantziar Espainian, Alemanian, Italian eta Erresuma Batuan erabil daitekeena. Egunero doako aplikazio bat eskainiko du Amazonen, hasierako sustapen modura. Gai nontzeko dendetan eskaintzen diren aplikazioekin baino kalitate hobea izango dute iragarri dute arduradunek, ebaluazio eta proba gehiago egingo baitizkiete Amazonen aplikazio denda eskaintzen direnek. Denda erabiltzen hasteko, erabiltzailea sortu eta denda bera den aplikazioa jaitsi behar da gailura Androiden Play denda, doan.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Telebista ez da uda kontua (edo bai?)

Telebista zalea naizela ezin dut ukatu, beti gustatu izan zait mundura begira dagoen etxeko leihotxo txiki hori, hala ere, udan beti egin izan dut etenaldi txiki bat. Hondartzak, lagunak, aisialdia, bidaiak... Ekintza gehienak kanpoan edo etxetik kanpo egiten ditudanez ez dut telebista gehiegi ikusteko aukera izaten eta egia esateko, nire burmuinak beti eskertu dit hilabete luze irauten duen "barbetxo" tarte hori.

Aurten, aurreko urteetan gertatu ez da bezala, kaxa tonto horrek eskaintza zabala ikusteko aukera eman dit. 15 egunez, TVE eta joko olimpikoek ia telebista guztia bete dute, baina gainontzeko telebista kate handiek ez dute uda guztia eguzkia hartzen igaro eta eskaintza interesgarriak ikusteko aukera izan dut, besteak beste *Juego de tronos* eta *Fragiles* telesailak estreinatu dituzte (biak oso gomen-dagarriak).

Nik udan ez nuke gauzak onik estreinatuko baina jasotako erantzunaren ostean...

Akaso ni nintzen erratu bakarra eta telebista, bizikletak bezala, uda kontu bat izango da.

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 03



Maite Aristegi

Antzuola, Bergara eta Elorrioko landa turismoen esperientzia ekarriko dute gaur *Magazinea*-ra. | 20:22

12:25 Tertulia
12:55 Zorion Agurrak
13:00 Onein
13:28 Nere herrie
14:14 Ekogune
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Zorion Agurrak
15:13 Taula gainean
15:43 Erreportajea
16:03 Erreportajea
16:20 Bizitegia
16:50 Berriak
17:10 Eguraldia
17:13 Onein
17:41 Erreportajea: Zarauzko triatloia
18:21 Ekogune
18:51 Nere herrie
19:37 Zugarramurdiko sorgiñen museoa
19:59 Berriak
20:22 Magazinea
21:07 Berriak
21:27 Eguraldia
21:32 Erreportajea
21:52 Magazinea
22:37 JazzBer.
23:57 Berriak

MARTITZENA, 04



Joseba Asiron

Joseba Asiron, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarraren zuzendaria, izango da *Harira* saioan. | 21:32

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Erreportajea
13:44 Ekogune
14:16 Zugarramurdiko sorgiñen museoa
14:38 Zorion Agurrak
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Erreportajea
15:26 Erreportajea: Zarauzko triatloia
16:06 Ur eta lur
16:51 Berriak
17:11 Eguraldia
17:34 Bizitegia
18:04 Erreportajea
18:24 Beranduegi.tv
18:44 Laino arteko plana
19:16 Musikaz Gain
19:26 Ekogune
19:56 Berriak
20:16 Eguraldia
20:19 Magazinea
21:04 Zorion Agurrak
21:09 Berriak
21:29 Eguraldia
21:32 Harira
22:02 Ekogune
22:32 Musikaz Gain
22:28 Walker
23:54 Berriak

EGUAZTENA, 05



'Lehiaketa'

Amaia Txintxurretaren eskutik, opor osteko lehen lehiaketa egingo da *Magazinea* bukatu ostean. | 21:00

12:30 Eguraldia
12:33 Magazinea
13:18 Zorion Agurrak
13:23 Harira
13:56 Beranduegi.tv
14:18 Erreportajea
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Onein
15:43 Erreportajea: Zarauzko triatloia
16:23 Zorion Agurrak
16:28 Musikaz Gain
16:38 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Erreportajea
17:21 Zorion Agurrak
17:26 Musikaz Gain
17:36 Beranduegi.tv
17:54 Harira
18:27 Nere herrie
19:13 Laino arteko plana
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Lehiaketa
21:15 Berriak
21:35 Eguraldia
21:40 Magazinea
22:25 Erreportajea: Zarauzko triatloia
23:05 Berriak
23:25 Eguraldia

EGUENA, 06



Erreportajea

'Petrolio merkea: noiz arte?' izena daraman erreportaje interesgarria izango da ikusgai egunean. | 23:41

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Tertulia
13:50 Erreportajea: Zarauzko triatloia
14:30 Musikaz Gain
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Ur eta lur
15:53 Musikaz Gain
16:04 Erreportajea
16:26 Walker
16:52 Berriak
17:12 Eguraldia
17:15 Erreportajea
17:35 Onein
18:10 Taula gainean
18:36 Walker
19:02 Nere herrie
19:48 Zorion Agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Laino arteko plana
21:37 Berriak
21:57 Eguraldia
22:00 Taula gainean
22:30 Walker
22:56 Magazinea
23:41 Erreportajea: Petrolio merkea: noiz arte?
00:01 Berriak
00:30 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 07



'Berriak'

Monika Belastegi aurkezlearen eskutik Debagoienean gertatzen denaren berri izango dugu. | 14:45

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Walker
13:48 Onein
14:16 Beranduegi.tv
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Laino arteko plana
15:43 Bizitegia
16:13 Erreportajea
16:35 Nere herrie
17:21 Erreportajea: Petrolio merkea: noiz arte?
17:50 Berriak
18:10 Zugarramurdiko sorgiñen museoa
18:35 Harira
19:08 Esku pelota txapelketa
19:36 Beranduegi.tv
19:56 Berriak
20:16 Eguraldia
20:19 Goierri Creation Center
20:47 Harira
21:20 Berriak
21:40 Eguraldia
21:43 Musikaz Gain
21:54 Ekogune
22:24 Berriak
22:44 Eguraldia
22:47 Goierri Creation Center
23:15 Ekogune
23:45 JazzBer
01:05 Taula gainean
01:25 Berriak

ARRASATE IRRATIA

'Uda giroan' saioan, zuzenean gaur Arrasate Irratian

Abuztuko etenaldiaren ostean bueltan da irratarik freskoena. Arrasate Irratiko *Uda giroan* saioa 10:30etik 11:30era bitartean -ohiko errepikapenekin- entzungai izango duzue, 107.7 uhinetan. Asteburuan gertatutakoaz gain, momentuko gaiak ekarriko dituzte gaurko saioan 10:30etik hasita.

Disko ezberdinez osatutako sorta zozketan

Aste honetan disko ezberdinez osatutako sorta jarriko dugu entzuleen eskura. Egun pasa egiteko proposamena bidali eta zozketan parte hartzeko bideak beti bezala, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat: irratia@goiena.com edo [#arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena). Zorte on!

Josu Uribetxeberria presoaren anaiarekin hitzordua

Josu Uribetxeberria preso mondragoetarra baldintzapean aske uztea erabaki zuen Espetxe Zaintzako Jose Luis Castro epaileak, egubakoitzean.

Bere egoeraren berri ematen saiatuko gara Arrasate Irratian eta Jabi senideekin jardungo dugu berbetan. Hori guztia eta are gehiago, 107.7 uhinetan.

TELE-ALBISTEAK

Debagoieneko landa turismoendako nolako uda izan da aurtengoa?

'Goiena Magazinea' bueltan da; Txomin Madinak gidatuta gaur ekingo zaio ikasturte berriari

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Goiena Magazinea bueltan da eta 20:22ean ekingo dio kurtso berriari. Gaurkoan Txomin Madinak Debagoieneko hainbat landa turismo ekarriko ditu Goienako platora. Izan ere, aurtengo udan gure landa turismoei nola joan zaien jakin gura dugu eta balorazioa egiteko ere eskatuko diegu. Antzuola, Bergara eta Elorrioko landa turismoen esperientzia gaur 20:22ean hasita.

Joseba Asiron historialaria martitzenean 'Harira' saioan izango da

Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarraren zuzendaria elkarrizketatuko dugu bihar

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Harira saioa denboraldi berriko lehen gonbidatua Joseba Asiron irakaslea eta historialaria izango da. Bera Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarraren zuzendaria da. Hain zuzen ere, biltzarra Arrasaten abiatuko da irailaren 7an. Hizkuntzaren galera eta eremu murrizketa aztertuko dute, Gaztelaren inbasio eta konkistaren testuinguran.

Hala, martitzenean, 21:30ean hasita, Eneko Azkarate aurkezlearen eskutik Joseba Asiron nafarrari elkarrizketa ikusteko aukera egongo da.



Joseba Asiron. | GOIENA



Txomin Madina eta Miren Arregi 'Magazinea'-ko aurkezle oñatiarrak. | GOIENA

JAIOTAKOAK

**Unai Garcia Serrano**

Antzuola. 3,020Kilo. Uztailaren 24a. Gurasoak: Marijo eta Luis. Argazkian, Unai arreba Mainerrekin.

**Olaia Vitoria Herranz**

Arrasate. 3,220Kilo. Abuztuaren 12a. Gurasoak: Iker eta Maider. Argazkian, Olaia sehaskan goxo-goxo.

**Iker Martinez Osinaga**

Aretxabaleta. 3,200Kilo. Abuztuaren 13a. Gurasoak: Ainara eta Oskar. Argazkian, Iker sehaskan lo.

**Unax Agiriano Urrutia**

Aretxabaleta. 3,470kgKilo. Abuztuaren 16a. Gurasoak: Bakarne eta Josu. Argazkian, Unax amama Pilarrekin.

**Paula Juliette Arias Perez**

Oñati. 3,490Kilo. Uztailaren 23a. Gurasoak: Leire eta Johan. Argazkian, Jaioberria gurasoekin.

**Ekain Cano Isazelaia**

Arrasate. 4,200Kilo. Uztailaren 24a. Gurasoak: Itziar eta Ibai. Argazkian, Ekain jaioberria sehaskan lo.

**Danel Martinez Pajares**

Eskoriatza. 3,580Kilo. Uztailaren 22a. Gurasoak: M. Carmen eta Cesar. Argazkian, Danel jaioberria lotan.

**Unai Narbaiza Pavo**

Antzuola. 3,420Kilo. Uztailaren 25a. Gurasoak: Kristina eta Iñaki. Argazkian, Unai txikia sehaskan.

**Oxel Urrutia Arizmendi**

Arrasate. 3,820Kilo. Abuztuaren 18a. Gurasoak: Elisabeth eta Xabier. Argazkian, Oxe amama Mikaelarekin.

**Naia Okina Belategi**

Bergara. 3,140Kilo. Abuztuaren 16a. Gurasoak: Nerea eta Iban. Argazkian, Naia gurasoekin.

**Ibai Garcia Romero**

Arrasate. 3,080Kilo. Abuztuaren 19a. Gurasoak: Laura eta Alex. Argazkian, Ibai gurasoekin.

**Ekain Baquerin Zabaleta**

Bergara. 3,600Kilo. Abuztuaren 28a. Gurasoak: Sagrario eta Gorka. Argazkian, Ekain aitarekin.

**Oxel Bengoa Muxika**

Eskoriatza. 3,480Kilo. Abuztuaren 30a. Gurasoak: Iratxe eta Andoni. Argazkian, Oxel jaioberria amarekin.

**Haizea Mier Pinacho**

Arrasate. 3,220Kilo. Abuztuaren 6a. Gurasoak: Oihana eta Gorka. Argazkian, Haizea gurasoekin.

**Oihane Galan Perez**

Aretxabaleta. 3,380Kilo. Abuztuaren 7a. Gurasoak: Raket eta Francisco Javier. Argazkian, Oihane gurasoekin.

**Iria Pereira Nocelo**

Aretxabaleta. 2,790Kilo. Abuztuaren 5a. Gurasoak: M. Carmen eta Juanjo. Argazkian, Iria jaioberria amarekin.

**Markel Quintanilla Vicente**

Aretxabaleta. 3,710Kilo. Abuztuaren 8a. Gurasoak: Anabel eta Zigor. Argazkian, Markel amarekin.

**Martin Etxabe Elorza**

Aretxabaleta. 4,050Kilo. Abuztuaren 9a. Gurasoak: Alaitz eta Gorka. Argazkian, Martin jaioberria amarekin.

**Aiora Fernandez Galdos**

Oñati. 2,070Kilo. Abuztuaren 2a. Gurasoak: Iratxe eta Aitor. Argazkian, Aiora sehaskan lasai-lasai.

**Ion Garcia Garcia**

Arrasate. 3,290Kilo. Abuztuaren 10a. Gurasoak: Jeannette eta Raul. Argazkian, Ion jaioberria gurasoekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**Xuban Altuna Unamuno**

Aramaio. 3,300Kilo. Abuztuaren 12a. Gurasoak: Naiara eta Iker. Argazkian, Xuban ama eta aitarekin.

**Jon Errasti Korkostegi**

Oñati. 4,700Kilo. Abuztuaren 16a. Gurasoak: Noemi eta Iñigo. Argazkian, Jon sehaskan lo.

**Eder Garcia Cuevas**

Arrasate. 3,150Kilo. Abuztuaren 27a. Gurasoak: Ines eta Aitor. Argazkian, Eder amamaren besoetan.

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA Enara Alberdi Hernandez
Irailaren 8an, 7 urte.
Zorionak, Enara, eta jarritu horren ausart! Muxu handi bat denon partetik.



BERGARA Iraia Aragones Sanchez
Irailaren 8an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure seigarren urtebetetzean etxekoan, eta bereziki, zure anaia Anerren partetik.



ARRASATE Carla Murillo Pildain
Irailaren 7an, 3 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat. Txokolatada goxoa prestatu! Maite zaitugu. Amatxo eta aitatxo.



ARRASATE Izadi Elortondo Moraza
Irailaren 4an, 4 urte.
Zorionak, Izadi! Lau urte bete ditu gure bixixuak. Zorionak etxekoan partetik.



BERGARA Unax Etxaniz Gastañaga
Irailaren 3an, 8 urte.
Zorionak, *guapeton!* Danon partetik zorionak. Ah! Eta laster ikastolara!



BERGARA Nora Agirrebeña Altuna
Irailaren 3an, 6 urte.
Zorionak, politxo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian, eta muxu handi bat!



BERGARA Maren Unamuno Martinez
Irailaren 3an, 8 urte. Urte askotarako, printzesa! Etxeko guztien partetik eta, bereziki, Naiaren partetik.



OÑATI Maddi Laskurain Arregi
Irailaren 3an, 3 urte.
Zorionak, poxpolin! Zure ahizpatxo Ane eta etxeko danan partetik muxu handi-handi bat! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugulako!



ARETXABALETA Jabi Aranegi eta Alazne Leturiaga
Abuztuaren 5ean eta Alaznek abuztuaren 31n.
Zorionak, bikote! Muxu eta besarkada handi bat familia guztiak, batez ere Eider, Oier, Irati eta Haritzen partetik.



BERGARA Maider Navajo Márquez
Abuztuaren 30ean, urtebete.
Zorionak, sorgintxo! Ze azkar pasatu zaigun urte hau! Eskerrik asko urte honetan eman diguzun guztiagatik, muxu pila bat, familiakoan, eta bereziki, aitatxoketa amatxoren partetik.



OÑATI Maialen Barrena Umerez
Abuztuaren 29an, 25 urte.
Zorionak! Urte askotan horrela jarraitu...




ARETXABALETA Ane del Fresno Lezeta
Abuztuaren 29an, 6 urte.
3, 2, 1, iritsi da eguna! Zorionak! Ondo-ondo pasatu eguna. Laztan potolo bat etxekuen partetik.




ARETXABALETA Julen Gutierrez
Abuztuaren 29an, 7 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxeko danen partetik.



ARETXABALETA Ander Lana Martinez
Abuztuaren 27an, 2 urte.
Etxeko danen partetik, eta batez ere Markel eta Norak, muxu handi bat!



ARRASATE Jon De Andres Garai
Abuztuaren 26an. Zorionak, Jon! Aurten oso urrun ospatu duzu, baina ondo pasatu duzula espero dugu familia osoak. Mamubizko muxu eta besarkada handia bidaltzen dizugu, bereziki Irati, Haritz eta Izarok.



ARETXABALETA Manex Amozarain Olabarria
Abuztuaren 25ean, 2 urte.
Zorionak, Manex! Patxo potolo-potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA Ane Azkarate Unamuno
Irailaren 4an, 11 urte. Urte askotarako etxekoan partetik, bereziki, Uxueren partetik!



ARAMAIO Aratz Ezpeleta Etxeberria
Abuztuaren 22an, 6 urte.
Zorionak, txapelidun! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik.



ARAMAIO Ilargi Bengoa Gomez de Segura
Abuztuaren 21ean, 5 urte.
Zorionak, Ilargi! Neskatila panpoxa einda zaz! Tximinokeriak eitxia be asko gustetan jatzu! Jaso patxo potolo-potolo aitatxo, amatxo eta Hegoaren partetik!



ARRASATE Gorka Garai Urkia
Abuztuaren 19an, 31 urte.
Zorionak! Muxu eta besarkada handi bat familia guztiak, bereziki Izaro eta zure lobak.



ARETXABALETA Iker Mendikute Otxoa
Abuztuaren 17an, 15 urte.
Zorionak! Muxu eta besarkada handi bat familia guztiaren partetik. Ondo pasatu eguna eta aprobetxatu Andra Maixetako azken egun hau.



ARETXABALETA Maialen Murua Otxoa
Abuztuaren 17an, 7 urte.
Zorionak! Muxu eta besarkada handi bat familia guztiaren partetik!



OÑATI Benat Telleria Gardoki
Abuztuaren 17an, 6 urte.
Zorionak! Etxeko danon partetik, batez be Izarok. Muxu handi bat.



ARRASATE Unax Blazquez del Pozo
Abuztuaren 16an, 3 urte.
Zorionak, pirata! Mila kilo zorion eta besarkada handi bat danon partetik.



ARETXABALETA Oinatz Urkia Berezibar
Abuztuaren 11n, 3 urte.
Zorionak, Oinatz! Gure mutikotxuak hiru urte bete ditu. Patxo handi-handi bat danon partetik.



OÑATI Nahia Umerez Madinabeitia
Abuztuaren 10ean. Zorionak, potxola! Etxeko txikitxuenak be urtetxo bat. Oporretan txokolatada eder batekin denok ospatu dugu. Muxu pila bat Aiuri, Izaro, Ekain eta Helenek.



BERGARA Idoia Bengoa Lazkano
Abuztuaren 10ean, 43 urte. Zorionak eta urte askotarako, amatxo. Aurten be opor garaian ospatu dituzu baina... zer edo zer asmatu dugu zure eguna ospatzeko. Muxu potolo asko Ziortza, Endika eta aitatxoren partetik.



BERGARA Iosu Elorza Alberdi
Abuztuaren 10ean, 21 urte. Zorionak eta urte askotarako! Bihar dan moduan ospatu eguna eta aprobetxatu oporrak.



ARETXABALETA Oier Aranegi Leturiaga
Abuztuaren 9an, 3 urte.
Zorionak, pirata! Txokolatzeko muxu pila familia guztiak. Batez ere Eider, Irati eta Haritzen partetik.



OÑATI Laida eta Naroa Vazquez
Laidak, uztailearen 2an, 10 urte eta Naroak, abuztuaren 7an, 6 urte. Zorionak, *guapisimas!* Oso ondo pasatu zuen urtebetetzeak! Muxu pila familia danaren partetik!



BERGARA Egoitz Goiti Zubia
Abuztuaren 6an, urtebete. Amatxo, aitatxo eta Intzaren partetik zorionak, txipirin!



BERGARA Ainhoa Saldaña Carvalho
Abuztuaren 2an, 6 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxekoan partetik!



ARRASATE Andoni Baena Mendizabal
Abuztuaren 1ean, 10 urte.
Zorionak, txapelidun! Oso ondo pasatu egun berezi hau. Hamar kandelatxoei putz fuerte-fuerte egin! Laguntxo guztien partetik, kiloka patxo!



ARRASATE Itziar Ezkurra
Abuztuaren 1ean.
Zorionak! Oporretan hasi duzu urte berria, Riberoa edanaz egin dugu ospakizun handia, esaiguz egia zelan zaude beti holako gaztia? Etxekoak, Liher, Oihana eta Zeke.



ARRASATE Ane Castro Ezpeleta
Abuztuaren 1ean, urtebete. Zorionak, printzesa! Muxu handi-handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Danel, Aratz, Naroa eta Izaroren partetik.



ARRASATE Ainara Andres Bautista
Uztailaren 30ean, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu egun berezi hau. Sei muxu goxo-goxo eta belarri tirakada handi bat, laguntxo guztien partetik. Ederto pasatu oporrak, poxpolin!



OÑATI Noa Mugarza Urizar
Uztailaren 28an, urtebete.
Zorionak, pitxin! Muxu potolo bat etxeko danon partetik. Asko gura du! Muaka!



ARRASATE Ana Kortabarria
Uztailaren 27an, 59 urte.
Maite zaitugun danon partetik, batez be, Uxue eta Elaiak, mila kilo zorion!



OÑATI Peio Xpe Elkororibe
Uztailaren 27an, 5 urte.
Zorionak, Peio, eta ondo-ondo pasatu eguna, txapeliduna! Aitatxo, amatxo eta Aloñaren partetik.



OÑATI Ana Mari Liziaga
Uztailaren 26an. Zorionak, amama! Merezittako moduko egun ona pasatu! Eta ospatuko dugu bazkai batekin danok batera! Patxo handia familiaren partetik! Bereziki Uxue, Jonan eta Lide.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA Haritz Garai Leturiaga
Irailaren 2an, 5 urte.
Zorionak, piratato!
Jadanik bost urte! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat zure etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA Alluitz Lazkano
Irailaren 2an, 5 urte.
Zorionak, polittori!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta kontuz ibili dinosaurioekin, eh! Muxutuak!



BERGARA Iñaki Zabala Ibarquien
Irailaren 2an, urtebetetzea.
Zorionak, aita, familia guztiaren partetik! Egun ederra pasa dezazula. Besarkada eta muxu handi bat etxeko guztien partetik!




ARRASATE Nerea Urrizalki Ayesa
Irailaren 2an, 8 urte.
Zorionak, Nerea! Irrikitan gaude zu herriko plazan berriz ere ikusteko. Ondo pasatu!




ARRASATE Iker Ayesa
Irailaren 2an, 42 urte.
Zorionak, Iker! Eta kontuz ibili patinekin; adin horretan pasian hobeto!



OÑATI Nora Irizar Bidezabal
Irailaren 2an, 2 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik!



BERGARA Aratz Ormaetxea Cid
Irailaren 1ean, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Leire, Oier, Ane eta Ekhiren partetik.



OÑATI Mikel Bolinaga Martin
Irailaren 1ean, 7 urte.
Zorionak, Mikel!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta ea merendola goxo batekin ospaketan dun! Etxeko danon partetik muxu handi bat!



ARETXABALETA Nerea Lete Ojea
Abuztuaren 31n, 30 urte.
Zorionak zure lagun on baten partetik!



BERGARA Unax Gallastegi Agirrezabal
Abuztuaren 25ean, 8 urte.
Zorionak, terremoto! Urte bat dagoeneko! Muxu pila bat zuretzat, bereziki zure arreba Amaiurrena.



ARRASATE Maren Barquero Oñate
Abuztuaren 25ean, 8 urte.
Zorionak, printzesa! Oso oso ondo pasatu zure egunean. Maite zaitugu. Leire, Aner eta Unairen partetik. Patxo potoloa.



BERGARA Oier Etxaniz Gastañaga
Abuztuaren 24an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun, etxeko danon partetik!



ARRASATE Uxue Arregi
Abuztuaren 23an, 7 urte.
Zorionak, Uxue! Ondo hasi eguna eta hobeto bukatu. Muxu handi-handi bat familixaren partetik.



ARRASATE Ganix, Mikel eta Igor
Ganixek eta Mikelek abuztuaren 23an eta Igorrek 31n. Oso ondo pasatu eta hobeto ospatu! Zorionak!



BERGARA Oier Lete
Abuztuaren 23an, 5 urte. Zorionak, guapisimo! Bost urte, mutikote. Segi holako alai. Patxo handi bat etxeko guztien partetik bereziki Erik, aitaxo eta amatxok.



ARRASATE Arantza Ibañez de Opakua
Abuztuaren 16an. Zorionak, guapa! Zure urtebetetze oso ondo pasatuko zenuela espero dugu. Muxu eta besarkada potolo bat bereziki Izaro eta zure loba guztien partetik.



ARAMAIO Irati Garaitonandia eta Iñaki Gabilondo
Iratik, abuztuaren 15ean, 3 urte eta Iñakik abuztuaren 28an, 12 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna Agarre familien partetik. Muxu bana.



ARRASATE Jon Aranzabal Vitoria
Abuztuaren 15ean, 5 urte. Zorionak, pirata. Dagoeneko eskuko hatz guztiak jaso ditzakezu. Muxu potolo bat etxeko guztien eta bereziki Unax eta Aneren partetik.



ARAMAIO Bienvenida Esquina Alcazar
Abuztuaren 14an.
Zorionak, amama! Ederto pasatu eguna. Muxu potolo-potoloak eta besarkada pila iloben eta etxeko guztien partetik. Patxoak, guapa!



ESKORIATZA Aroa Garro Diaz de Garayo
Abuztuaren 14an, 6 urte. Zorionak eta musu handi-handi bat aitaxo eta amatxoren partetik. Ondo pasatu oporrek eta buetan Almenara!



ARETXABALETA Alaitz Isasmendi Garcia
Abuztuaren 11n, 4 urte.
Zorionak, gure Alaitxo!
Gure etxeko printzesak 4 urte bete ditu-eta. Ilargiraino, gehi infinito maite zaitugu. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA Iker Lopez Fernandez
Abuztuaren 5ean, 5 urte.
Zorionak, Iker! Ze ondo ospatu genuen zure eguna oporretan... Muxu handi bat etxeko guztien partetik, batez ere Danel, Oier eta Eiderrek.



ARRASATE Ana Mari Ormaetxea Milikua
Abuztuaren 4an. Zorionak, amama! Kiloka muxu eta belarri tirakada handi-handia, Beñat, Uxue, Maren, Aurken eta etxeko guztien partetik. Patxoak, printzesa!



ARAMAIO Luis Alonso Esquina
Abuztuaren 4an, 39 urte.
Zorionak, tio Luis! Ederto pasatu Maetzun eta Gasteizko jaietan kontuz txanpainarekin! Muxu potoloak loba Beñat, Maren eta etxeko guztien partetik. Patxoak, golfista!



ARRASATE Hodei Gallastegi Altuna
Abuztuaren 4an, 7 urte.
Zorionak, Hodeitxo, arreba, amatxo eta aitaxoren partetik.



LEINTZ GATZAGA Martina Bengoa Basaras
Abuztuaren 4an, 6 urte.
Zorionak, Martina! Azkenien heldu da eguna! Zorionak eta patxo handi-handi bat Olaungo danon partetik.



BERGARA Xabat Unamuno Etxeberria
Abuztuaren 3an, 3 urte.
Zorionak, txapeldun! Besarkada handi bat etxeko guztien partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze egunian.




BERGARA Asun Udabe Osa
Abuztuaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Egun ederra igaro dezazula eta beti bezain guapa jarraitu! Patxo eta besarkada bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE Liher Gracia
Abuztuaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Aurten ezin zara kezatu; plan ezin hobea zure urtiak ospatzeko! Oso ondo pasatu eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI Ixone Guridi Urteaga
Abuztuaren 2an, 4 urte.
Zorionak, terremoto. Muxu handi bat, mundiala zara-eta.




ARETXABALETA Uxue Isasmendi Garcia
Uztailaren 26an, 6 urte.
Zorionak, Uxuetxo, etxeko guztien partetik! Gezurra dirudi baina jadanik 6 sei urte. Ez ahaztu inoiz pila-pila patata tortila maite zaitugula. Ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat.



ARETXABALETA Aner Azpitarte Zubizarreta
Abuztuaren 25ean urtebetete. Zorionak, txapeldun! Ederto ospatu dugu zure eguna oporretan. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik. Pa!



ARRASATE Amets Ugalde Etxagibel
Uztailaren 24an, 33 urte.
Zorionak eta urte askotarako, amatxo! Egun on-ona pasatu eta disfrutatu! Patxo handi bat danon partetik!



BERGARA Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat familiako eta bereziki Ane, Elene eta Eriken partetik. Ondo pasatu urtebetetzean eta jarraitu orain bezain alai.



BERGARA Ixaso Uzin Inza
Uztailaren 22an, 40 urte.
Zorionak, Ixaso! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta ahal dozun gehien disfrutatu. Heldu zara beste etapa berri batera, eh! 40. urteurrenera. Baina gazte ikusten zaitugu. Zorionak danon partetik baina batez ere Ekaitz, Izar, Oier eta Elenek. Muxu asko.



ARETXABALETA Mikel Zurutuza Amozarrain
Uztailaren 22an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun! Urte askotarako! Patxo potolo bat Antton, Manex eta Maddiren partetik.



OÑATI Haizea Arregi Markuleta
Abuztuaren 14an, 5 urte.
Zorionak, Haizea! Gure etxeko printzesak bost urte handi bete ditu. Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik.

AI, ENE!

Grisa zen zubia, kolorez betea

Nork ez ditu zubiak eta bestelakoak eraiki Legoko piezekin? Martin Heuwold artista horretan inspiratu da argazkiko zubia alaitzeko. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Gehiago irabazteko, denbora laburragoa eman edaten eta gehiago lanean"

GINA RINEHART | ENPRESABURUA

25.000 milioi euro ingururekin, Gina Rinehart australiarra da munduko emakume aberatsena, eta diru gehiago irabazteko, erretzen edo lagunekin berbetan denbora laburragoa ematea ere aholkatzen du. Argitu behar da, bera herentziaz dela aberatsa. www.20minutos.es

EGURALDIA



Max. 23°

Min. 13°

Goiza goibel samarra eta argiago arratsaldean. Tenperatura apur bat igoko da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-09-03

HAMARREKOA

Urko Aristi Ibarra jaio eta Arriben hazia, eguraldi iragarle moduan eta erreportaje saioekin ETBko aurpegi ezagunenetakoa dugu. Herritxoz herritxo ibili da azken hilabeteotan 'Bizirik' saioarekin. | TXOMIN MADINA

"Kalea nire amorantea da; eguraldia, aldiz, emaztea"

1. Zer aurki dezakegu herritxoetan hirietan ez dagoenik?

Bizitza handia, elkartasuna eta auzolana zentzu osoan; alegia, herrigintza. Herri txikiak izaki, zailtasun asko dituzte, baina horiei aurre egitea guztien arteko elkartasunari esker lortu dute.

2. Zu zeu ere herri txiki baten hazitakoa zara.

Bai, Nafarroan dagoen 120 biztanleko Arribe herri politean. Horregatik, saioa proposatu zidatenean, berehala argi ikusi nuen; iruditzen zait herriok aurrera atera dituztenei gorazarre egin behar zaiela.

3. Eguraldi gizon moduan lehen urratsak ez omen zenituen oso konbentzituta egin.

Gizona ez, eguraldi mutila naiz oraindik ere! Baina bai: mundu arrotza nuen, nire buruarekin zorrotza naiz eta ikusten nuen ez nabilela gauza txukunik egiten. Baina ez nuen etsi, eta hamar urte geroago jarraitzen dut. Maitemintze prozesuan gaude.

4. Eguraldiarekin lotuta aparteko ordu asko egiten dituzu kalean?

Nahi baino gehiago; estutu egiten naiz, gainera! Baina makulua dut: jendeak eguraldiaz galdetzean, beti diot ona egingo duela. Momentuan, behintzat, gustura geratzen dira.

5. Eguraldia platoon, beste hainbat saio kalean; non gusturago?

Kalean. Beti diot kalea dela nire amorantea eta eguraldia emaztea, egonkortasuna ematen didana. Baina gozarazi kaleak egiten dit.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Eguraldi mapan, gustuko eguraldia"

"Gure eguraldi mapan jendearen gustuko eguraldia jarriko nuke; eta ez naiz bakarrik eguraldiko mapaz ari, baita bizitzakoaz ere. Norberak izan dezala amesten duen edo behar duen hori; eta besteen bizimoduan sartzen diren horiek guztiak mapatik kenduko nituzke".

6. Erraza al da euskaldunak kamera aurrean jartzea?

Esango nuke gero eta errazagoa dela. Itxiak garela? Ez, baina ez gara besteak bezain harroputzak. Espainian edonor doa telebistara lau tontakeria esatera; hemen bada-kigu zer den auzo-lotsa, eta serioago jokutzen dugu.

7. Sekretu bat kontatuko banizu, sekretu izaten jarraituko luke?

Kosta arren, bai. Hitzun moduan baino hobea naiz entzule gisa: nire gauzez hitz egitea kostatzen zait, baina lagun gehientxoek etortzen zaizkit arazo eta kontuekin. Haien konfiantza merezi badut, ez naiz entzule txarra izango.

8. Egiteaz gain, ikusten al duzu telebista?

Gehiegi, nire bizioetako bat da: besteek egiten dutena ikusi, joerak, programazio estrategiak... Erreportaje saioak asko gustatzen zaizkit, uste dut telebistaren funtsa laburbiltzen dutela.

9. Zer egiteari utzi diozu telebistan agertzeagatik?

Duela gutxi arte, hondartzan larru gorritan jartzeari. Baina berriz itzuli naiz, ez dut uste-eta inor ikaratuko denik.

10. Eta zer egiteari ez zenioke ezeragatik ere utziko?

Ni neu izateari. Hasieran kezkatu nintzen: zure intimitatea besteen ahotan egotea, gezurrak entzutea, mila amorante jartzea... Baina urtekin hori ere gainditu dut.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Uda-kronika lasterra

Udaren akabera-sentsazioa goritzen digu irailak, eta aurten areago, krisiaren zafaldiak egurtuta gauzkalako. Eta ingurua berotzen dihardoskun eguzkiak oroigarri gaiztoeneko zein xamurreneko gogorantziak ere galdatzen dizkigu.

Erreskate dontsuarenak, Olinpiar Jokoak, hauteskundeak aurreratzea, Erresuma Batuko erreginak aginte-aulkian jarrita 60 urte betetzea edota Albako Duke andreak San Inazioaren martxa, hasieratik bukaeraraino euskaraz eta trabatu gabe, kantatu izana dira aurtengo udako kontu batzuk.

Albako Duke andreak San Inazioaren martxa kantatu izanak irakurle txorrotxen bati, agian, adar-soinua ere ekarri dio belarrietara.

Ez dabil guztiz oker irakurle belarri fin hori baina, kargua udazkenean laga bitartean, Euskadiko Legebiltzarburu den Arantza Quiroga andrea, PPkoa bezain Opusekoa bera, hiru urte eta erdian aginte-aulkian jarrita egon ondoren, ba ote da, euskaldunoi zor digun errespetua gogoan, beste horrenbestetarako gauza? Quirogak, urtero-urtero, 99.377 euroko soldata kobratzen du diru publikotik.

ARETXABALETA

ARRASATE

ARETXABALETA

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ARETXABALETA

banatzaile ofiziala